



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO


HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



ORIXETOLOSA

Bigarren Hezkuntza Institutua
Instituto de Educación Secundaria

ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA- ARAUDIA



2018/12/12

A.J.A.REN EGITURA

SARRERA	6
ATARIKO TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK	9
I. TITULUA. ORIXE B.H.I.ko ANTOLAMENDUA	9
I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK	9
II. KAPITULUA. TALDEKO AGINTE-ORGANOAK	11
I. ATALA. ORIXE B.H.I.ko OOG	11
II. ATALA. IRAKASLEEN KLAUSTROA	13
III. ATALA. ZUZENDARITZA TALDEA	14
III. KAPITULUA. PERTSONA BAKARREKO AGINTE-ORGANOAK	15
IV. KAPITULUA. IRAKASKUNTZA KOORDINATZEKO ORGANOAK	16
I. ATALA. ORIENTABIDE-DEPARTAMENTUA	17
II. ATALA. DIDAKTIKA-DEPARTAMETUAK	18
III. ATALA. KOORDINAZIO PEDAGOGIKORAKO BATZORDEA	20
IV. ATALA. TUTOREAK ETA IKASLE TALDEEN IRAKASLEAK	21
V. KAPITULUA. PARTAIDETZA-ORGANO BEREZIAK	22
I. ATALA. IKASLEEK PARTE HARTZEKO ORGANO BEREZIAK	22
II. ATALA. GURASOEN BATZARRA, IKASLEEN GURASO-ELKARTEAK ETA IKASLE ELKARTEAK	25
II. TITULUA .BIZIKIDETZARAKO ARAUAK	27
I. KAPITULUA. PRINTZIPIO OROKORRAK	27
II. KAPITULUA. IKASLEEN ESKUBIDEAK BETETZEKO BERMEA	28
III. KAPITULUA. BETEBEHARRAK BETETZEKO BERMEAK	32
III. TITULUA. ERRENDIMENDU AKADEMIKOAREN EBALUAZIO OBJEKTIBOA	34
ERANSKINEN ZERRENDA	41
I. ERANSKINA	42
ORDEZKARITZA ORGANO GORENA	42
II. ERANSKINA	44
EKONOMIA BATZORDEAZ	44
III. ERANSKINA	45
IRAKASLE KLAUSTROAZ	46
IV. ERANSKINA	47
ZUZENDARITZA TALDEAZ	47
V. ERANSKINA	47
ZUZENDARIA	48
VI. ERANSKINA	49
IKASKETA-BURUAREN ETA IDAZKARIAREN EGITEKOAK	50
VII. ERANSKINA	50
LAGUN BAKARREKO BESTE ORGANOEN EGITEKOAK	51

VIII. ERANSKINA	53
ORIENTABIDE DEPARTAMENTUAREN FUNTZIOAK	54
IX. ERANSKINA	55
DEPARTAMENTSU DIDAKTIKOEN FUNTZIOAK	56
X. ERANSKINA	56
TUTOREEN EGINKIZUNAK	57
XI. ERANSKINA	57
EGOKITZAPENEN KOORDINAZIO TALDEAK ETA LAGUNTZA-IRAKASLEAK	58
XII. ERANSKINA	59
PARTAIETZAKO BESTE ORGANOAK	60
XIII. ERANSKINA	63
201/2008 DEKRETUA, abenduaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharreri buruzkoa.	64
XIV. ERANSKINA	104
ORIXE B.H.IKO ELKARBIZITZARAKO ARAU ETA PROZEDURAK	104
XV. ERANSKINA	120
Testuliburuaren eta Curriculum-materialen Kudeaketa Solidarioa egiteko Programaz arduratzen den zentroko batzordea.	120
XVI. ERANSKINA	124
KARGU ETA BATZORDE BERRIAK ETA BERAIEN ESKU GERATZEN DIREN FUNTZIOAK	124
XVII. ERANSKINA: ESKOLA 2.0 - ARAUDIA	125
XVIII. ERANSKINA: HEZKIDETZAKO ETA GENERO-INDARKERIAREN PREBENTZIOKO ARDURADUNA	127
XIX. ERANSKINA:	128
MUGIKOR ETA ANTZEKO TRESNEN ERABILERA ORIXEN	128
XX. ERANSKINA	129
IKASLEEN CHROMEBOOK GAILUEN ERABILERA ORIXEN	129

ORIXE BIGARREN HEZKUNTZA

INSTITUTUAREN ANTOLAKUNTZA ETA

JARDUERA ARAUDIA

SARRERA

1. Antolakuntza- eta jarduera-araudia (AJA) Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako berezko dokumentua da. Agiri hori derrigorrezkoa da Euskal Eskola Publikoaren Legeko 29. artikulua hala ezarri duelako.

Artikulu horretan, halaber, AJAren eduki minimoak zein izan behar duen zehaztu da. Hona hemen:

- Ikastetxearen antolamendurako eta funtzionamendurako egituraren definizioa.
- Zenbait arau, hezkuntza-komunitateko kide guztien arteko begirunea eta bizikidetzak bermatzeko, eta aretoak nahiz instalazioak egoki erabiliko direla ziurtatzeko. Arau horiek demokratikoak izan behar dute; hau da, eskola-komunitateko kide guztiek hartu behar dute eskubideak errespetatzeko eta betebeharrak betetzeko konpromisoa.
- Ebaluazioetan erreklamazioak egiteko araubidea.

2. Agiri hau gidatzat hartu behar da. Ez da derrigor bete beharrekoa. Agiri honen bidez, erraztu egin nahi da Eskubideen eta Betebeharren abenduaren 2ko 201/2008 Dekretura AJA egokitzeko prozesua. Agiri hau, horrenbestez, orientagarria besterik ez da.

3. Agiriaren ezaugarriak hauek dira:

- Dekretuaren derrigorrezko edukia besterik ez du jaso. Hiru tituluetan, 1. puntuan zehaztu diren hiru alderdiak jaso dira, Legean aipaturiko ordena berean, hain zuzen. Argi dago mugaketa horren arrazoa zein den: AJA arau tinko samarra da ikastetxeetan. AJAn aldaketak egiteko, eskuarki, batzordeak eratu behar dira, eta OOGak onetsi beharko ditu egin diren zuzenketak. Egoera berrietara egokitzeko edo araudiko aldaketak jasotzeko, AJAn zenbait aldaketa egin beharko dira ziur asko. Derrigorrezkoak ez diren elementuak sartzen baditugu, beraz, beharrezkoak diren aldaketak ezin izango ditugu arin egin. Bestetik, Eskubideen eta Betebeharren Dekretuan ezarri da ikasleek eskolako arauak betetzeko betebeharra dutela. Eta eskolako arauen artean ikastetxeko aginte-organismoek beren

eskumenen esparruan onetsi dituzten guztiak daudenez, AJAK ezinbesteko markoa soilik ezartzea litzateke egokiena.

- I. tituluan, aginte-organoen, koordinazio didaktikorako organoen eta partaidetza-organoen eskumenak eta funtzioak zein diren zehaztu da. Halaber, organo horien eskumenak eta funtzioak legezko zer xedapenetan ezarri diren zehaztu da. Xedapen horiek, nolana ere, ez dira testuan hitzez hitz jaso, arrazoa argia da: funtzioetako asko Hezkuntza Sailaren araudian zehazten direnez, agirietan hitzez hitz jarriz gero, aldaketak egin beharko liriateke ia ikasturtero. Aitzitik, legezko testua eranskinetako batean ageri bada, eranskina besterik ez da aldatu behar. Aldaketa hori, gainera, zuzendaritza-taldeak egin dezake, inolako arazorik gabe.
- Ildo horretatik, gauza bera gertatzen da II. tituluan, bizikidetza arautzeko xedapenez ari denean, 201/2008 Dekretura jotzeko esaten zaigunean. Ikastetxeak beti du dekretuan ezarritako irizpideak betetzen dituzten jokabideak zuzengarriak direla erabakitzeko ahalmena, eta hori kontuan hartuta, nahikoa litzateke eranskinetan bildutako legeetara jotzea.
- Ez da aurreikusi arautu gabeko irakaskuntza ematen duten ikastetxeen egoera. Euskal Eskola Publikoaren Legeko 55.2 artikulua araberako arautu gabeko lanbide-heziketa ematen duten ikastetxeetan, antolamendu- eta jarduera-araudian jaso beharko dira, besteak beste, bizikidetzarako arauak, eta aretoak zein instalazioak egoki erabiltzeko zehaztapenak, bizikidetza eta aretoen erabilera egokia bermatu dadin. Oro har, nahikoa izango da arautu gabeko ikasketak egiten ari diren ikasleei 201/2008 Dekretuan adinez nagusi diren ikasleentzat adierazitako arauak aplikatzea.
- Halaber, ez dago garraioari eta jantokiei buruzko arau zehatzik. 201/2008 Dekretuak eskola-barneko eta -kanpoko jarduerak arautzen dituenez –bai jantokian, bai garraioa egiten den bitartean, bai eskolatik kanpo ere–, baldin eta ikastetxearekin lotura badute, bizikidetza-arau orokorrak aplikatzekoak dira ikasleentzat.
- Era berean, azpimarratu beharra dago antolamendu- eta jarduera-araudiak ez dituela arautzen irakasleen, ikastetxeko gainerako langileen eta gurasoen eskubideak eta betebeharrak. Irakasleen eta irakasle ez diren ikastetxeko langileen kasuan, argi dago zergatik ez diren arautu: beren eskubideak eta betebeharrak funtzionarioen estatutuko funtsezko alderdi bat dira, eta Legean arauturik daude. Nolanahi ere, baliagarria izan daiteke aipatu berri duguna eranskin gehigarrietan jasotzea; izan ere, beren betebeharrak ez betetzea falta arina da, gutxienez, eta ikasleek irakasle eta irakasle ez diren langileen eskubideak urratuz gero, zuzendu egin behar zaie.

4. Tituluei dagokienez, I. tituluari aginte-organoak, koordinazio didaktikorako organoak eta partaidetza-organoak zehazten dira. Oinoharretan azaltzen dira, batetik, Euskal Eskola Publikoaren Legearen arabera zer organo diren derrigorrezkoak; bestetik, aukerako zer organok duten Hezkuntza Administrazioaren onarpena, zenbait arautan adierazia, baldin eta baldintza ekonomikoak, administratiboak edo ordutegizkoak betetzen badituzte; eta azkenik, beste edozein organo ezartzeko aukera ere adierazten da. Azken horiek erabateko eraginkortasuna izango dute ikastetxe barruan, baina ez dute aurrekoen onarpena.

5. II. Tituluari dagokionez, jada aipatu da uko egiten zaiola AJAren baitan bizikidetzara-arauek zehatz-zehatzak adierazteari. Eskubideak errespetatzea eta betebeharrak betetzea zehazten dira bizikidetzaren oinarritzat, Euskal Eskola Publikoaren Legearen nahiz Eskubideen eta Betebeharren Dekretuaren espirituari eta filosofiari jarraiki. Titulu horretan, halaber, ikasleen oinarritzako eskubideen bermeak jaso dira, 201/2008 Dekretuan ezarritakoa betez, baina modu orokorrean; izan ere, ikastetxeen aniztasuna dela-eta, arau zehatzagoak ezarri gero, ezingo lirateke egokitu egoera berezi askotara. Ikastetxeko aginte-organoek eskumena dute goian aipaturiko zehaztasunak adierazteko, OOGk edo zuzendaritza taldeak hartutako erabakien bidez.

6. Hain zuzen, eskolarako hutsegite kolektiboari dagokionez, eredu nahiko irekia aukeratu da, aurreko Dekretuarekin bat etortzeko. Hala ere, legeak agindu bezala, auzi horretatik kanpo utzi dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren mailatik beherako ikasleak. Arau hori ezartzea, nolana ere, ikastetxearen esku dago. Nolan ere, hauek izango lirateke muturreko irizpideak: alde batetik, proposaturiko eredu ireki hori hartzea, eta bestetik, eskolarako hutsegite kolektiboa kasu guztietan faltatzen jotzea, baldin eta, salbuespen gisa, erakundeek edo alderdi politiko guztiek horretarako deialdia egin ez badute (esaterako, etxeko indarkeria edo terrorismoa gaitzesteko kontzentrazioetarako deialdiak). Era berean, aukera dago zuzendaritza jakinarazteko izapideetarako epeetan eta moduetan zorrotasun edo malgutasun handiagoz jokatzeko.

7. Azkenik, aldaketak egin daitezke ere erreklamazioak egiteko proposaturiko ereduan –baliozkoa da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzatik aurrera–. Gutxienez, behintzat, 201/2008 Dekretuan helburuen publizitateari eta ebaluazio-irizpideei buruz zehaztutakoa bermatu beharko litzateke erreklamatzeko ezinbesteko baldintzat, bai eta ikasturte osoan zuzendu diren azterketak ikusteari buruzkoa ere. Halaber, idatzizko prozedura ezarri beharko litzateke, gutxienez azken kalifikazioak eman ondoren 24 orduz erabiltzekoa, bai eta, adostasunik lortu ezean, irakasgari horretako arloak azterketa berrikustea ere, Lurraldeko Ordezkaritzan erreklamazioa aurkeztu baino lehen.

ATARIKO TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. ORIXE B.H.I.ren izendapena, irakaskuntzak eta ezaugarriak

1. ORIXE B.H.I. ikastetxe publikoa da. Bertan, honako hauek ematen dira: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa. Goian aipaturiko ikastetxea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mende dago. Ikastetxe horrek, hartara, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezarritako planeamenduari jarraiki ematen ditu, ikasturtez ikasturte, bere ikasketak.
2. Euskal Eskola Publikoaren Legeko 3.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, ORIXE B.H.I.k ezaugarri hauek ditu: plurala da, elebiduna da, demokratikoa da, euskal gizartearen beharrak ase ditu, inguru sozial eta kulturean sustraiturik dago, parte hartzailea da, desberdintasunak orekatzen ditu eta aniztasuna zaintzen du.
3. ORIXE B.H.I.k bere egin ditu Euskal Eskola Publikoaren Legeko 3.2. artikuluan ezarri diren xedeak. Ikastetxe horretako gobernu-organo, partaidetza-organo eta koordinazio didaktikorako organo guztiek, irakasleek eta irakasleak ez diren ikastetxeko langile guztiek goian aipaturiko helburuak betetzera bideratuko dute beren jarduna.
4. ORIXE B.H.I.k, ikastetxeko bizikidetzaren oinarri gisa, bere eskubideak arduraz bete eta gainerakoen eskubideak errespetatuko dituela agintzen du.

I. TITULUA. ORIXE B.H.I.ko ANTOLAMENDUA

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

2. artikulua. Aginte-organoak

1. ORIXE B.H.I.k Euskal Eskola Publikoaren Legean aurreikusi diren taldeko aginte-organoak nahiz lagun bakarreko aginte-organoak izango ditu. Organo, horiek EEPLn ezarritako eskumenak eta eskuduntzak izango dituzte.
 - a) Taldekoak: OOG, irakasleen klaustroa eta zuzendaritzako taldea.
 - b) Lagun bakarrekoak: zuzendaria, ikasketaburua eta idazkaria.
2. Ikasturte bakoitzean ikastetxean dagoen ikasle kopuruaren arabera eta ikasturteko Antolakuntza Ebazpenean

xedatutakoarekin bat etorriz, ORIXE B.H.I.n, arestian aipatutakoez gain, lagun bakarreko beste aginte-organo batzuk egon daitezke. Lagun bakarreko organo horiek Antolakuntza Ebazpenean zehazten diren eskumenak eta funtzioak izango dituzte, baita aurreko paragrafoan aipatu ditugun organoek eskuordetzen dizkietenak ere. Ikasturte honetan, beraz, lagun bakarreko organo hauek egongo dira:

- a) Zuzendariordea eta idazkariordea.
- b) Batxilergoko Koordinatzaile Pedagogikoa, DBHko koordinatzailea eta irakasle delegatua

3. artikulua. Hezkuntza-komunitatearen partaidetza

1. OOGren bidez, ikasleek, ikasleen gurasoek, irakasleek, administrazioko langileek, zerbitzuetako langileek eta Udalek ORIXE B.H.I.ren kudeaketan parte har dezakete.
2. Badira ORIXE B.H.I.ren jardunean parte hartuko duten beste organo espezifiko batzuk. Euskal Eskola Publikoaren Legean zehaztutakoari jarraiki, gurasoen batzarrak eta ikasleen parte hartze-organoek mintzagai dugun ikastetxearen kudeaketan parte hartuko dute.
3. ORIXE B.H.I. ikastetxeko ikasle- nahiz guraso-elkarteen egoitza izango da. Ikastetxeak, hartara, lokalak utziko dizkie elkarte horiei haien jarduera gauzatu dezaten. Horrez gain, elkarteek ikastetxearen bizitzan parte hartzea sustatuko du ikastetxeak. Horretarako, hezkuntza-jarduerak, jarduera kulturalak eta kirol-jarduerak bultzatuko ditu.

4. artikulua. Koordinazio didaktikorako organoak

Tutoretzak eta taldeko, etapako nahiz zikloko irakasle taldeak ORIXE B.H.I.ko koordinazio didaktikorako organoak izango dira. Aipatu berri ditugun bi organo horiek, klaustroaren, Koordinazio Pedagogikorako Batzordearen, didaktika-departamentuaren eta orientazio-departamentuen zuzendaritzapean egongo dira.

5. artikulua. Aginte-organoen, partaidetza-organoen eta koordinazio didaktikorako organoaren jardunaren oinarriak

1. Ikastetxeko aginte-organoek, partaidetza-organoek eta koordinazio didaktikorako organoek zainduko dute ikastetxeko jarduerak Euskal Eskola Publikoaren Legean jaso diren printzipio eta balioei jarraiki gauzatzen direla. Aipatu berri ditugun organoek, halaber, EEPLn nahiz indarrean dauden xedapenetan ezarri diren hezkuntzako xedeak egoki betetzen direla zainduko dute, baita hezkuntzaren kalitatea ere.

2. Horrez gain, aginte-organoek, partaidetza-organoek eta koordinazio didaktikorako organoek bermatuko dute, bakoitza bere eskumen-esparruan, ikasleen, irakasleen, gurasoen eta administrazioko nahiz zerbitzuetako langileen eskubideak betetzen direla. Era berean, organo horiek guztiek aipatu berri ditugun eragileek beren betebeharrak betetzen dituzten ikuskatuko dute.
3. Mintzagai ditugun organoek, bestetik, beren gain hartuko dute hezkuntza-komunitateko kide guztiek ikastetxeko bizitzan, ikastetxearen kudeaketan eta ikastetxearen ebaluaketan eraginkortasunez parte hartuko dutela bermatzeko ardura.

II. KAPITULUA. TALDEKO AGINTE-ORGANOAK

I. ATALA. ORIXE B.H.I.ko OOG

6. artikulua. ORIXE B.H.I.ko OOGren ezaugarriak eta osaera

1. ORIXE B.H.I.ko OOGren bidez, hezkuntza-komunitateko kide guztiek hartuko dute parte ikastetxearen kudeaketan. Organo horrek OOG izena hartuko du.

2. OOGren eskumenak.¹

ORIXE B.H.I.ko OOGk EEPLko 31. artikuluan aitor zaizkion eskuduntzak ditu.

3. ORIXE B.H.I.ko OOG ondoko hauek osatuko dute: (EEPL 32.2)²

- a) Zuzendaria, OOGko buru izango dena.
- b) Ikasketaburua.
- c) Klaustroak aukeratuko dituen hamar irakasle.
- d) Ikasleen gurasoen zortzi ordezkari. Legez sortu den guraso-elkarte garrantzitsuenak ordezkari horietako bat aukeratuko du.
- e) Ikasleen zazpi ordezkari.
- f) Administrazioko eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat.
- g) Udaleko ordezkari bat.
- h) Ikastetxeko idazkaria. OOGko idazkari izango da. Hitza izango du, baina botorik ez.

7. artikulua.- OOG hautestea eta berritzea

¹ EEPLn OOGri aintzatetsi zaizkion eskumenak –2008ko ekaineko azken aldaketak barne– I. Eranskinean jaso ditugu.

² Kideen kopurua 1994ko maiatzaren 10eko Aginduan ezarri da. Halaber, 201/1993 DEKRETUAN, uztailaren 6koan, eta 228/2010 DEKRETUAN, irailaren 7koan, guraso eta ikasleen partaidetzarako gutxieneko ehunekoak arautu dira.

Bi urtetan behin, OOGko kideen erdiak berrituko dira. Berritze hori txandaka gauzatuko da, halaxe ezarri baita OOGak arautzen dituen Dekretuan eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak argitaratu dituen deialdietan.

8. artikulua. Presidentea eta idazkaria aldatzea

1. Zuzendaria kanpoan bada, zuzendariordea izango da ikastetxeko buru. Ikastetxean zuzendariorderik ez badago, ikastetxeko zuzendari ikasketaburua izango da edo, hala badagokio, antzintasunik handien duen ikastetxeko OOGko irakaslea.
2. Idazkariorderik egon ezean, ikastetxeko OOGko irakasle berrienak hartuko du idazkariaren lekua. Pertsona horrek, irakasle den aldetik, botoa emateko eskubidea izaten jarraituko du.

9. artikulua. OOGren funtzionamendu-erregimena

1. OOGren bilerak kide guztiak bertaratu ahal diren orduan eta egunean egingo dira. Zuzendariak bileraren deialdia bidaliko die OOGko kideei. Deialdiarekin batera, honako hauek helaraziko dizkie: bileraren gai-zerrenda; eztabaidagai izango diren dokumentuak; eta, hala badagokio, onespena. Kideek, beraz, bilera egin baino astebete lehenago jasoko dituzte agiri horiek guztiak.
2. Ezohiko bileretarako deiak egin daitezke, betiere, berrogeita zortzi orduz aitzin dei egiten badira. Hala gerta daiteke, premiaz landu behar den auzirik badago.
3. OOG hiruhilekoan behin bilduko da gutxienez. OOG bilduko da zuzendariak hala eskatzen duenean edo OOGko kideen heren batek hala nahi duenean. Edonola ere, ikasturtearen hasieran eta amaieran bilera bana egin beharko ditu nahitaez. OOGko kide guztiak derrigor joan beharko dute OOGren bileretara.
4. OOGk gehiengo soilez hartuko ditu akordioak, kasu hauetan izan ezik:
 - a) Hezkuntza-proiektua, urteko plana eta AJA nahiz AJAren aldaketak onetsi behar direnean. Horiek guztiak gehiengo osoz onartuko dira.
 - b) Zuzendaria berriz izendatzeko proposamena onetsi behar denean. Proposamen hori bi hereneko gehiengoaz onetsiko da.
5. Erregelamendu honetan eta hezkuntzako legeetan aurreikusi ez diren OOGri buruzko auziak ebazteko, administrazio-jardunbidearen Legeko II. tituluko 2. kapituluan ezarritakoa beteko da.

10. artikulua. OOGko batzordeak

1. OOG batzorde iraunkorra izango da. OOGk EEPLko 36.3 artikuluan zehaztu diren funtzioak beteko ditu, baita osoko bilkurak haren esku uzten dituenak ere. OOG ondoko kide hauek osatuko dituzte: zuzendariak, ikasketaburuak, irakasle batek, ikasleen guraso batek eta ikasle batek –sektore bakoitzean aukeraturikoak. Organo horrek gehiengoz hartuko ditu erabakiak, boto haztatuaren sistemaren bidez.
2. Bizikidetza Batzordeak OOGren osaera bera izango du eta, haren moduan, boto haztatuaren sistema erabiliko. Bizikidetza Batzordeak bi funtzio nagusi izango ditu. Batetik, ikastetxean bizikidetzarako giro egokia egotea zaintzea. Bestetik, bizikidetzaren aurkakoak diren eta bizikidetzarentzat larri kaltegarriak izan daitezkeen jokabideak zuzentzeko neurriak ezagutzea, aplikatzea eta berrikustea.
3. Aipatu berri dugun batzordeaz gain, Ekonomia Batzordea ere sortuko da. Batzorde horrek aurrekoaren osaera berbera izango du. Bere egitekoa: agintzen zaizkion auziei buruz OOGri informazio ekonomikoa ematea.³
4. OOGk auzi zehatzez arduratuko diren batzordeak sor ditzake. Batzorde horiek sortzeko erabakian haien esku utzi diren eskumenak izango dituzte eta erabakian ezarri bezala sortuko dira. Sortzen diren batzorde guztiek –artikulu honetako lehen hiru paragrafoetan zehaztu direnak barne– azterketak, txostenak eta proposamenak egin ditzakete beren eskumenekoak diren gaiei buruz. Artikulu honetako 1. eta 2. paragrafoetan, indarrean dauden arauak betetzearekin lotura duten zenbait gai aztertu dira. Arauetan aurreikusi diren kasu zehatz horietan izan ezik, sortu diren batzorde bereziek erabakiak har ditzakete. Horretarako, berariazko eskumena behar dute eta batzorde iraunkorra nahiz bizikidetza-batzordearen moduan osaturik egon, hau da, OOGko osaerarekiko proportzionalak izan behar dira. Batzorde berezien esku, beraz, gehiengo soilez ebatz daitezkeen erabaki guztiak utz daitezke.
 - 4.1. Testuliburuaren eta Curriculum-materialen Kudeaketa Solidarioa egiteko Programaz arduratzen den zentroko batzordea. (XV. Eranskina)

II. ATALA. IRAKASLEEN KLAUSTROA

11. artikulua. Irakasleen klaustroaren ezaugarriak eta osaera

³ Ekonomia Batzordearen hasierako araubideak II. eranskinean jaso dira.

1. Irakasleen klaustroa, ORIXE B.H.I.ko aginte-organoetako bat izateaz gain, irakasleen berezko parte hartze organoa da. Are gehiago, koordinazio didaktikorako ikastetxean dagoen organo gorena da. Klaustroak, halaber, ikastetxeko hezkuntza-alderdi guztiak planeatzeko, koordinatzeko erabakiak hartzeko eta informazioa emateko ardura du. Klaustroak Batzorde Iraunkorra izango du, Koordinazio Pedagogiko Batzordea deritzona, hain zuzen.
2. Klaustroak zuzendaria izango du buru eta ikastetxean irakasle aritzen diren guztiek osatuko dute. ORIXE B.H.I.ko idazkaria klaustroko idazkari izango da ere.
3. Zuzendaririk egon ezean, ikasketaburua izango da klaustroko buru ⁴. Eta zuzendaririk nahiz ikasketabururik ez badago, antzinasunetik handiena duen irakaslea izango da klaustroko buru. Idazkaririk egon ezean, aitzitik, irakasleetan berrienak beteko ditu idazkariaren funtzioak.

12. artikulua. Klaustroaren funtzionamendu-erregimena

1. Klaustroa hiruhilekoan behin bilduko da gutxienez, zuzendariak deialdia egin edo klaustroa osatzen duten kideen gutxienez heren batek hala eskatzen badu. Horrez gain, bi bilkura egin beharko dira nahitaez: ikasturtearen hasieran bat eta amaieran beste bat.
2. Klaustroko kide guztiek derrigor joan beharko dute klaustroaren bileretara.
3. Ohiko bileretarako deia bilera baino astebete lehenago egingo da gutxienez. Salbuespen moduan, ezohiko bileretarako deiak egin daitezke, betiere, berrogeita zortzi orduko aurrerapenez egiten badira. Hala egin daiteke premiaz landu behar den auziren bat badago.
4. Erregelamendu honetan eta hezkuntzako legeetan aurreikusi ez diren auziak ebazteko, Herri Administrazioen Araubidean eta Administrazioako Prozedura Erkidearen Legeko II. tituluko 2. kapituluan ezarritakoari jarraituko dio klaustroak.

13. artikulua. Klaustroaren eskumenak

EEPLko 35. artikuluan eta indarrean dauden beste xedapen batzuetan, irakasleen klaustroaren funtzioak zehaztu dira. ⁵

III. ATALA. ZUZENDARITZA TALDEA

14. artikulua. Zuzendaritza taldea

⁴ Zuzendariorderik existitzen ez bada.

⁵ EEPLn egun ageri diren eskumenak III. Eranskinean jaso dira.

1. Pertsona bakarreko aginte-organoeak ORIXE B.H.I.ko zuzendaritza taldea osatzen dute. Horiek guztiek modu koordinatuan betetzen dituzte beren funtzioak.
2. Zuzendaritza taldeak EEPLko 36. artikuluan esleitzen zaizkion funtzioak izango ditu ⁶ baita OOGk edo irakasleen klaustroak bere esku uzten dituenak ere.
3. Zuzendaritza taldeak, egoki baderitzo, hezkuntza-komunitateko zeinahi kide gonbidatu dezake bere bileretara aholkuak eman ditzan. Era berean, egoki deritzon funtzioak ikastetxeko irakasleen esku utz ditzake, batez ere, zikloko edo etapako koordinatzaileen esku edota proiektu zehatzez arduratzen diren irakasleen esku. XVI. Eranskinean jasotzen dira noren esku geratzen diren eta zeintzu diren funtzio horiek.
4. ORIXE B.H.I.n, pertsona bakarreko organo hauek osatuko dute zuzendaritza taldea: Zuzendaria, ikasketaburua, idazkaria, zuzendariordea, idazkariordea, Batxilergoko Koordinatzaile Pedagogikoa, DBHko koordinatzailea eta irakasle delegatua

III. KAPITULUA. PERTSONA BAKARREKO AGINTE-ORGANOAK

15. artikulua. Zuzendaria

1. ORIXE B.H.I.ko zuzendaria ikastetxearen ordezkari izango da ondorio guztietarako. Zuzendaria, halaber, Hezkuntza Administrazioaren ordezkari da ikastetxean, eta ikastetxeko taldeko aginte-organoen buru da.
2. Zuzendariak EEPLko 34. artikuluan ezarri diren eskuduntzak eta eskumenak ditu. ⁷

16. artikulua. Ikasketaburua

Ikasketaburuak, zuzendaritza taldeko kide den aldetik dituen eskumenez gain, EEPLren 41. artikuluan ezarri zaizkionak izango ditu. ⁸ Ikasketaburua, zuzendariaren agintepean, irakasleen buru izango da erregimen akademikoarekin zerikusia duten auzi guztietan. Horrez gain, departamentuko buruen eta tutoreen jarduna koordinatuko du.

17. artikulua. Idazkaria

⁶ IV. eranskinean jaso dira.

⁷ V. eranskinean jaso dira.

⁸ VI. eranskina

Idazkariak, zuzendaritza taldeko kide denetik dituen eskumenez gain, EEPLren 42. artikuluan ezarri zaizkionak izango ditu.⁹ Zuzendariaren agintepean, ikastetxean aritzen diren administrazioko eta zerbitzuetako langileen buru izango da.

Lagun bakarreko beste organoek Antolakuntza Ebazpenean zehazten diren eskumenak eta funtzioak izango dituzte, baita aurreko paragrafoan aipatu ditugun organoek eskuordetzen dizkietenak ere.¹⁰

18. artikulua. Pertsona bakarreko aginte-organook izendatzea eta kargua uztea

EEPLn nahiz arauzko xedapenetan aurreikusitakoa beteko da pertsona bakarreko aginte-organook izendatzeko eta izendatuek kargua uzteko.

19. artikulua. Zuzendaritza taldeko kideak ordezkatzeta

1. Zuzendaria kanpoan bada edo gaixo badago, zuzendariordeak beteko ditu haren funtzioak behin-behinekoz.
2. Ikasketaburua kanpoan bada edo gaixo badago, zuzendariordeak beteko ditu haren funtzioak behin-behinean.
3. Era berean, idazkaria kanpoan bada edo gaixo badago, eta ikastetxean idazkariorderik ez badago, zuzendariak izendatu duen irakasleak beteko ditu idazkariaren funtzioak. Zuzendariak gertakariaren berri eman behako dio OOGri.
4. Zuzendaria kanpoan bada edo gaixo badago, zuzendariordea edo ikasketaburua jarduneko zuzendari izango dira. Jarduneko zuzendariaren eskumen berak izango ditu, baita artikuluko honetako 2. eta 3. paragrafoetan jaso direnak ere.

IV. KAPITULUA. IRAKASKUNTZA KOORDINATZEKO ORGANOAK

20. artikulua. ORIXE B.H.I.ko koordinazio-organook

ORIXE B.H.I.n irakaskuntzaren koordinazio-organo hauek egongo dira:

- a) Orientabide-departamentua.
- b) Didaktika-departamentuak. Urtero eratzen dira, ikasturtearen antolamenduari buruz Hezkuntzako Sailburuordeak emandako ebazpenaren arabera.
- c) Koordinazio Pedagogikorako Batzordea. Batzorde honek bi talde-aholkulari izango ditu: Batzorde Pedagogikoa (BP) eta

⁹ VI. eranskina

¹⁰ VII eranskina

Koordinatzaileen Batzordea (KNB). Talde hauen osaera eta funtzioak XVI. Eranskinean jasotzen dira.

- d) Tutoreak.
- e) Taldeko, zikloko edota etapako irakasle taldeak.

I. ATALA. ORIENTABIDE-DEPARTAMENTUA

21. artikulua. Orientabide-departamentuaren osaera

Orientabide-departamentua ondoko hauek osatuko dute:

- a) Psikologia eta pedagogia espezialitateko irakasleek.
- b) Curriculum-aniztasuneko taldeen, eskolan esku hartzeko taldeen eta esku-hartze osagarriko taldeen arduradun diren irakasleak.
- c) Pedagogia Terapeutikoan espezializatutako maisu-maistrak.
- d) Ariketak egiten ikasteko gelen arduradun diren irakasleak.

22. artikulua. Orientabide-departamentuaren funtzioak

1. Orientabide-departamentuak indarrean dauden legeek agintzen dizkioten funtzioak hartuko ditu bere gain. Hezkuntzako Sailburuordeak ikasturtero ematen du ikasturtearen antolamenduari buruzko ebazpena. Orientabide-departamentuak, horrenbestez, ebazpen horretan jaso diren funtzioak izango ditu. Mintzagai dugun departamentuko kideek, Departamentuko funtzio komunez gain, Hezkuntzako Sailburuaren ebazpenaren bidez ezarri zaizkien banakako funtzioak bete beharko dituzte.
2. Funtzio horiek, aldatzen ez badira, VIII. eranskinean ageri direnak dira, hots, 2010/2011 ikasturteari dagokion ebazpenean ageri direnak.

23. artikulua. Orientabide-departamentuko burua izendatzea

1. Zuzendariak urtero izendatuko du Orientabide-departamentuko burua. Horretarako, psikologian eta pedagogian espezializatutako irakasleen artetik bat hautatuko du. Aukeraketa egiteko, Departamentuko kideen iritzia kontuan hartuko du eta kategoria akademikoaren nahiz espezialitatearen irizpideak errespetatuko ditu.
2. Zuzendari-karguren bat dutenak ezin izango dira departamentuko buru izan, ezta departamentuaz goragoko kategoria akademikoren bateko kargudun izanda ere.
3. Departamentuko buruak departamentuaren jarduerak zuzendu eta koordinatuko ditu. Horrez gain, departamentuaren bilerak

deituko ditu eta bileren buru izango da. Orientabide-departamentuko buruak, azkenik, departamentuak bere funtzio guztiak betetzen dituela bermatuko du.

II. ATALA. DIDAKTIKA-DEPARTAMENTUAK

24. artikulua. Didaktika-departamentuen ezaugarriak eta osaera¹¹

1. Didaktika-departamentuak arloen, irakasgaien eta moduluen irakaskuntza antolatzeaz eta garatzeaz arduratzen diren organoak dira. Buruaren zuzendaritzapean, departamentuek arlo edo irakasgai bera ematen duten irakasleak koordinatuko dituzte, baita antzeko arloak edo irakasgaiak ematen dituzten irakasleak ere. Departamentuko kide guztiek eragin zuzena dute taldeen egitekoaren nahiz taldeak gauzatzen duen lanaren gain.
2. Irakasle guztiak astean ordubetez bildu beharko dira departamentuaren ohiko bilerak egiteko. Aipatu berri duguna bazter utzi gabe, departamentuko kide guztiak bildu beharko dira departamentu-buruak egoki baderitzo edo departamentuko kideen heren batek hala eskatzen badu.
3. Irakasleek zer didaktika-departamentutan egon behar duten zehazteko, kontuan hartuko da asteko beren ordutegiko ordurik gehien zer alor, irakasgai edo moduluri ematen igarotzen duten. Irakasle batek bi didaktikadepartamenturi edo gehiagori dagozkion ikasgaien eskolak ematen baditu, ordu gehiago ematen ditueneko ikasgaiaren departamentura atxikiko da; hala ere, berak irakasten dituen gainerako ikasgaien departamentuen bileretara bertaratu ahal izango da, baita bertan egiten diren lanetan eta hartzen diren erabakietan parte hartu ere.
4. Moduluak, arloak edo irakasgaiak departamenturen batera atxikirik ez badaude, edo hainbat departamentutako irakasleek eman baditzakete eta, bestetik, indarreko arauak ez badute ezartzen zer departamentutara atxiki, ikastetxeko zuzendariak –Koordinazio Pedagogikorako Batzordeak hala proposatzen badio– arestian aipatutako irakaskuntzak departamentu batera atxikiko ditu. Didaktika departamentuak, departamentu-buruaren zuzendaritzapean, hurrengo artikuluan aipatzen diren jarduera guztiak egin eta auzi guztiak ebatzi beharko ditu, betiere, goian aipatutako moduluen, arloen eta irakasgaien inguruan suertatzen direnak.

25. artikulua. Didaktika-departamentuen eta departamentu-buruaren funtzioak eta eskumenak

¹¹ Ikasturtearen antolamenduari buruzko ebazpenean azaltzen diren baldintzak bete beharko dira.

Ikasturtearen antolamenduari buruz Hezkuntza Sailburuordeak ematen duen ebazpenean nahiz indarrean dauden gainerako arauetan hainbat ataza ezarri zaizkie didaktika-departamentuei nahiz departamentu-buruei. Didaktika-departamentuek eta departamentu-buruek, beraz, beren gain hartuko dituzte urtero ezarri zaizkien atazak.¹²

26. artikulua. ORIXE B.H.I.ko didaktika-departamentuen kopurua eta izena

Ikasturtearen antolamenduari buruz Hezkuntzako Sailburuordeak eman duen ebazpenean ezarri bezala ORIXE B.H.I.n didaktika-departamentu hauek eratu dira:

Gaztelania eta Literatura
Euskara eta Literatura
Ingelesera
Geografia eta Historia
Filosofia
Gorputz Hezkuntza
Matematika
Fisika eta Kimika
Biologia eta Geologia
Marrazketa
Teknologia Orokorra
Informatika

27. artikulua. Didaktika-departamentuetako buruak izendatzea

1. Zuzendariak didaktika-departamentuetako buruak hautatuko ditu urtero ikastetxeko irakasleen artetik. Buruak hautatu aurretik, zuzendariak entzunaldia egin beharko die. Zuzendariak, halaber, kategoria akademikoaren nahiz espezialitatearen irizpideak errespetatuko ditu beti.
2. Zuzendari-karguren bat dutenak ezin izango dira departamentuko buru izan, ezta departamentuaz goragoko kategoria akademikoren bateko kargudunak badira ere.
3. Departamentuko buruak departamentuaren jarduerak zuzendu eta koordinatuko ditu. Horrez gain, departamentuaren bilerak deituko ditu eta bileren buru izango da. Azkenik, departamentuak bere funtzio guztiak betetzen dituela bermatuko du departamentu-buruak.

¹² 2010/2011 ikasturteko betebeharrak IX. eranskinean jaso dira, baita gainerako araubideak ere.

III. ATALA. KOORDINAZIO PEDAGOGIKORAKO BATZORDEA

28. artikulua. Koordinazio Pedagogikorako Batzordearen osaera

ORIXE B.H.I.n Koordinazio Pedagogikorako Batzorde bat egongo da. Zuzendaria, ikasketaburua eta departamentu-buruek osatuko dute Koordinazio Pedagogikorako Batzordea, ikastetxeko zuzendaria buru izango duelarik. Departamentu-bururik gazteena izango da mintzagai dugun Batzordeko idazkari.

29. artikulua. Koordinazio Pedagogikorako Batzordearen eskumenak

1. Koordinazio Pedagogikorako Batzordea irakasleen klaustroko batzordea da. Koordinazio Pedagogikorako Batzordearen funtzio nagusia curriculum-proiektua eta proiektuari egin dakizkiokeen aldaketak koordinatzea izango da.
2. Egiteko hori betetzeko jarraian aipatuko ditugun eskumenak izango ditu, betiere, irakasleen klaustroaren zaintzapean egonik:
 - a) Etapako curriculum-proiektuak lantzeko eta berrikusteko zuzentzarau orokorrak ezartzea.
 - b) Etapako curriculum-proiektuak nahiz berorien zuzenketak lantzeko eta berrikusteko prozesua ikuskatzea. Etapako curriculum-proiektuak nahiz berorien zuzenketak koordinatzea eta beroriek idaztea. Etapako curriculum-proiektuak ikastetxearen hezkuntza-proiektuarekin bat datozela ziurtatzea.
 - c) Departamentuen, ikasleen orientazio akademikoari nahiz profesionalari buruzko planaren zein tutoreekintzarako planaren programazio didaktikoak lantzeko eta aztertzeko irizpide orokorrak finkatzea.
 - d) Klaustroari curriculum-proiektuak proposatzea, onar ditzan.
 - e) Etapako curriculum-proiektuak betetzen direla zaintzea eta ebaluatzea.
 - f) Klaustroari ebaluazio eta kalifikaziobilkuren plangintza orokorra proposatzea, baita azterketak edo aparteko probak egiteko egutegia ere, ikasketaburuak dioenaren arabera.
 - g) Irakasleen klaustroari planak proposatzea ondoko hauek ebaluatu ditzan: etapa bakoitzeko curriculum-proiektua, hezkuntza-proiektuaren irakaskuntza, urteko programazio orokorra, ikastetxean eskola-errendimenduak izan duen eboluzioa eta irakaskuntza-prozesua.

- h) Ikastetxeko jarduera nahiz proiektu guztiak ebalua daitezela sustatzea, Hezkuntza Administrazioaren edo aginte-organoen ekimenez gauzatzen diren ebaluazioetan laguntzea, eta ebaluazio horien ondorioz beharrezko gerta litezkeen hobekuntza-planak sustatzea.

IV. ATALA. TUTOREAK ETA IKASLE TALDEEN IRAKASLEAK

30. artikulua. Tutoretza eta tutoreak izendatzea¹³

1. Tutore izatea eta ikasleak orientatzea irakasleen berezko funtzio dira.
2. ORIXE B.H.I.ko ikasle talde bakoitzak bere tutorea izango du¹⁴.
3. Zuzendariak izendatuko du talde bakoitzeko tutorea. Horrela, ikasketabuaren proposamena kontuan harturik, ikasleei eskola ematen dien irakasleetako bat aukeratuko du, betiere, ikasturtea antolatzeari buruz Hezkuntza Sailburuordearen ebazpenean jaso diren jarraibideekin bat etorriz.
4. Ikasketaburuak tutoreen lana koordinatuko du eta, aldiari, beharrezkoak diren bilerak egingo ditu tutoretzek egoki funtziona dezaten.

31. artikulua. Tutoreen funtzioak

Tutoreek ikasturtero beren gain hartuko dituzte ikasturtea antolatzeari buruzko ebazpenean esleitu zaizkien funtzioak eta atazak.¹⁵

32. artikulua. Talde bateko irakasleen erregimena eta osaera

1. Ikasle talde berari eskolak ematen dizkieten irakasleek talde bat osatuko dute, eta talde hori ikasle taldearen tutoreak koordinatuko du.
2. Ikasle taldearen irakasleak ebaluazioari buruzko araudietan ezarritakoaren arabera bilduko dira. Ikasketaburuak egingo du bilerarako deia, ikasle taldeko tutorearen eskariz.

33. artikulua. Ikasle taldeko irakasleen funtzioak

Ikasle taldearen irakasleek funtzio hauek izango dituzte:

- a) Taldeko ikasleen ebaluazio eta segimendu orokorra egitea. Horretarako, ikasleen ikaskuntza hobetzeko beharrezkoak diren

¹³ Ikasturteko antolamenduari buruzko ebazpena oinarri hartuko da tutoretzak arautzeko.

¹⁴ Curriculum desberdinetako taldeetan, hezkuntzan espezifikoki esku hartzeko proiektuetan eta esku-hartze osagarrietan bi tutore egon daitezke.

¹⁵ X. eranskinean, ikasturte honetan tutoreei esleitu zaizkien eskumenak eta funtzioak ageri dira.

- neurriak ezarriko dituzte, betiere, ebaluazioari buruzko legeetan ezarri diren baldintzei jarraiki.
- b) Taldeko bizikidetza-giroa hobetzeko beharrezkoak diren jarduerak ezartzea.
 - c) Taldearen baitan sortzen diren gatazkak modu koordinatuan lantzea eta gatazka horiek ebazteko neurririk egokienak ezartzea.
 - d) Taldeko ikasleei proposatzen zaizkien ikaskuntza- nahiz irakaskuntza-jarduerak koordinaturik egon daitezela zaintzea.
 - e) Taldeko ikasleen gurasoei edo tutoreei emango zaien informazioa ezagutzea eta hura osatzen laguntzea.
 - f) Taldean Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleen egokitzapeneko bileretan parte artzea.¹⁶
 - g) Ikastetxearen barne-araudian ezartzen diren gainerako funtzioak.

V. KAPITULUA. PARTAIDETZA-ORGANO BEREZIAK

I. ATALA. IKASLEEK PARTE HARTZEKO ORGANO BEREZIAK

34. artikulua. Partaidetza-organo bereziak

OOGn hezkuntza-komunitate osoak parte hartzen du. Horrez gain, ikasleek eta ikasleen gurasoek elkarleen eta organo berezien bidez hartu ahal izango dute parte ikastetxearen kudeaketan.

35. artikulua. Ikasleek parte hartzeko organo bereziak

ORIXE B.H.I.n badira ikasleek parte hartzeko bi organo berezi: taldeko nahiz mailako ordezkariak, batetik, eta ordezkarien biltzarra, bestetik.

Bestalde, ikastetxeak bere egin dituen xede jakin batzuen lorpenerako, hau da, gai zehatz batzuen inguruko helburuak betetzera jarduna bideratuko duten, eta XII. eranskinean adierazten diren, beste lankidetza organoak sortu dira.

36. artikulua. Taldeko ordezkariak

1. Ikasturtearen lehenengo hilabetean eta ikasturte osorako, ikasle talde bakoitzak bere ordezkaria aukeratuko du, zuzeneko eta

¹⁶ XI. Eranskinean, egokitzapenen koordinazio taldeei eta laguntza-irakasleei esleitu zaizkien eskumenak eta funtzioak ageri dira.

isilpeko bozketaren bidez. Ordezkarri hautetsi hori ikasleen Ordezkarrien Batzordeko kide izango da. Ordezkariorde bat ere aukeratuko da. Ordezkariordeak ordezkarriaren lekua hartuko du hura kanpoan denean edo gaixo dagoenean. Ordezkariordeak, halaber, laguntza eskainiko dio ordezkarriari.

2. Ikasturteko ordezkarriak eta ordezkariordeak aukeratzeko deialdia ikasketaburuak egingo du eta berak erabakiko ditu bozketarako arauak, beti ere artikuluko honetako 3. atalean zehaztutakoa errespetatuz, eta taldeetako tutoreekin nahiz OOGn ikasleen ordezkarri direnekin elkarlanean.
3. Edonola ere, taldeko ikasle guztiak izango dira hautesle eta hautagai, kandidatek aurkeztu beharrik gabe. Bozketan, ikasle bakoitzak izen bat jarriko du bototxartelean. Botorik gehien jaso duen ikaslea ordezkarri izango da, eta boto gehien jaso dituen bigarrena, aldiz, ordezkariorde. Berdinketarik izanez gero, ikasleen ordezkarri hautetsietan zaharrena izango da eta ordezkariorde hurrengoa.
4. Ordezkarriak eta ordezkariordeak ezeztatu ahal izango dira, baina horretarako alde aurretik tutoreari txosten arrazoitua bidaliko zaio. Txosten horrek, ordezkarria zein ordezkariordea aukeratu zuten ikasleen gehiengo absolutuaren onespina izan behar du. Kasu horretan, hauteskunde berrietarako deialdia egingo da, hamabost eguneko epean eta aurreko atalean adierazitakoa kontuan hartuta. Onartu diren dimisioen kasuan modu berean jardungo da.
5. Ezin izango dira ordezkarriak zigortu araudi honen arabera bete beharreko funtzioak bete izanagatik.

37. artikulua. Taldeko ordezkarrien funtzioak

Hauek dira taldeko ordezkarrien funtzioak:

- a) Ordezkarrien Batzordearen bileretara joatea eta eztabaidetan parte hartzea.
- b) Aginte-organismo eta Koordinazio Didaktikorako Organoei ordezkatzen duten taldearen iradokizunak eta kexak helaraztea.
- c) Bizikidetzaren sustatzea ikasturteko ikasleen artean.
- d) Ordezkatzen duten taldearen funtzionamenduaren gain eragina duten gaiak tutorearekin eta gainerako irakasleekin lantzea.
- e) Irakasleekin eta ikastetxearen aginte-organismoekin batera ikastetxearen funtzionamendu egokiaren alde lan egitea.
- f) Ikastetxeko materiala eta instalazioak behar bezala erabiltzen diren zaintzea.
- g) Ikastetxeko aginte-organismoek, beren eskumenen barruan, esleitzen dioten funtzio oro.

38. artikulua. Ordezkarien Batzordearen eraketa eta jarduera-araudia

1. Ikasleek ikastetxearen kudeaketan parte hartzeko duten organoak, EEPLren 30. artikuluan aipatzen denak, ikasleen Ordezkarien Batzordea du izena.
2. ORIXE B.H.I.n ikasleen Ordezkarien Batzordea egongo da. Batzorde hori osatuko dute, batetik, taldeetako ikasleek libreki hautatu dituzten ordezkariak eta, bestetik, ikastetxeko OOGn ikasleen ordezkari aritzen direnek.
3. Ordezkarien Batzordeak funtzionamendurako bere arauak landuko ditu. Ikasketaburuak onartu ondoren, arau horiek indarrean sartuko dira, eta arau horiek baztertuko dira legez ezarritako arau baten aurka badoaz, araudi honetako legeen aurka badoaz edo ikasleen eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideen edo betebeharren aurka badoaz.
4. Edonola ere, ikastetxeko ikasleen artean dagoen aniztasuna eta Ordezkarien Batzordearen eraginkortasuna zaindu beharko dira.
5. Zuzendariak Ordezkarien Batzordeari bere bilerak egiteko leku egoki bat utziko dio, baita behar bezala funtzionatzeko behar dituen bitartekoak ere.
6. Ordezkarien Batzordeko kideek, beren funtzioak betetzean, Eskola kontseiluaren bilkuretako aktak kontsulta ditzakete, baita ikastetxeko administraziomailako beste edozein agiri ere, kasu batean izan ezik: dokumentazio jakin bat erabili edo hedatzearen ondorioz, pertsonen intimitatearen aurka doanean.

39. artikulua. Ordezkarien Batzordearen funtzioak

Hauek dira Ordezkarien Batzordearen funtzioak:

- a) Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua, Urteko Plana eta Urteko Memoria lantzeko proposamenak, baita eskola jardunaldia antolatzeakoak ere, zuzendaritza taldeari luzatzea.
- b) OOGko ikasleen ordezkariari aholkularitza eta laguntza eskaintzea, baita talde edo ikasturte bakoitzak dituen arazoei buruzko informazioa ematea ere.
- c) OOGko ikasleen ordezkarien aldetik informazioa jasotzea, gaizerrendari buruz, modu eraginkorrean aztertutako gaiei buruz eta Eskola kontseiluan hartutako akordioei buruz.
- d) OOGko txostenak egitea, bai ikasleen Ordezkarien Batzordearen berezko ekimenez bai OOGk hala eskatuta ere.
- e) AJA aldatzeko proposamenak egitea, beren eskumenen barruan.
- f) Ikasleei Ordezkarien Batzordearen jarduerari buruzko informazioa ematea.

- g) Ikastetxean jarduera osagarriak eta eskolaz kanpoko jarduerak garatzeko proposamenak egitea.
- h) Enpresetan praktikak egiteko hitzarmenei buruzko informazioa ematea, hitzarmenik egonez gero, eta horien jarraipenean parte hartzea.
- i) Ikasleengan eragin zuzena duen beste edozein jarduera edo erabaki.

II. ATALA. GURASOEN BATZARRA, IKASLEEN GURASO-ELKARTEAK ETA IKASLE ELKARTEAK

40. artikulua. Gurasoen Batzarra

1. ORIXE B.H.I.ko Gurasoen Batzarraren bidez, gurasoek ikastetxearen kudeaketan parte har dezakete. Ikasle guztien gurasoek edo tutoreek osatuko dute organo hori. Zuzendariak egingo du biltzeko deialdia eta bera izango da bilkuraren buru; ikasturte bakoitzaren hasieran gutxienez behin bilduko da Gurasoen Batzarra, betiere, ez bada beste prozedura bat aukeratzen, artikuluko honen 2. eta 3. e) ataletan azaltzen den ahalmenean oinarrituta.
2. Gurasoen Batzarraren barruan beste organo bat egon daiteke, zuzeneko eta isilpeko botoaren bidez aukeratuko dena; barneorgano horrek Gurasoen Batzarraren bilerak antolatuko ditu eta Batzarrak hartutako erabakiak gauzatzen direla gainbegiratuko du.
3. Gurasoen Batzarrak honako funtzio hauek beteko ditu:
 - a) Egokitzat jotzen dituen proposamenak ikastetxeko gainerako organoetara luzatzea, organo horien eskumenekoak diren gaiei buruzkoak. Helarazi diezaieke, beraz, irakaskuntzajardueren, prestakuntzajardueren, eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien programa nahiz urteko kudeaketaprograma gauzatzearen balioespena.
 - b) Zuzendaritza taldearekin eta klaustroarekin kontaktuan egotea, ikastetxearen hezkuntzaproiektuaren garapenean ahalik eta lankidetzat handiena lortze aldera.
 - c) Gurasoen ekimena sustatzea, ikastetxearen bizitzan aktiboki parte har dezaten.
 - d) Taldeko organoetan gurasoen ordezkari direnak Gurasoen Batzarraren bilkuretara agertzeko eskatzea, egindako kudeaketari buruzko informazioa eman dezaten.
 - e) Funtzionamendurako bere arauak onestea.

41. artikulua. Ikasleen gurasoelkarteak eta ikasleelkarteak

1. ORIXE B.H.I.k, indarrean dagoen otsailaren 10eko 66/1987 Dekretuak –Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen guraso-elkarteak arautzen dituenak– xedatzen duenaren arabera eratuko diren ikasleen guraso-elkarteak aintzatetsiko ditu, haien egoitza izango da eta ikastetxearen funtzionamenduan parte hartzera lagunduko die. Ikastetxeak, halaber, legalki sortu diren ikasle-elkarteen egoitza izango da eta ikasle-elkarteei ikastetxearen funtzionamenduan parte hartzera lagunduko die.
2. Zuzendariak zehaztuko du legalki eratu diren elkarteek zer lokal erabiliko dituzten modu iraukorrean. Zuzendariak, elkarten ordezkariak hala eskaturik, gune komunak erabiltzeko baimena emango die arestian aipatutako elkarteei.
3. OOGn ordezkari aritzeko, guraso-elkarterik garrantzitsueneko kide bat aukeratuko da, halaxe zehaztu baita arauetan. Aipatu berri dugun kasuan izan ezik, legalki eratu diren elkarteak ez dira inola ere baztertuko.
4. Ikastetxeko aginte-organoez ez dituzte ikasleen gurasoak edota ikastetxeko ikasleak jardutez edo ez-egitez behartuko elkarte eratuetakoa batean izena ematera ezta elkarte eratuetakoa bat diruz laguntzera ere.

42. artikulua. Elkarte legalki eratu bidez parte hartzea

Ikastetxean eratu diren ikasleen guraso-elkarteek nahiz ikasle-elkarteek ondoko hauek egin ditzakete:

- a) OOGri hezkuntza-proiektua eta urteko programazio orokorra lantzeko nahiz aldatzeko proposamenak egin.
- b) OOGri ikastetxearen martxari buruz egoki deritzon alderdien berri eman.
- c) Hezkuntza-komunitateko kide guztiei bere jardueren berri eman.
- d) OOGn landu diren gaien buruzko informazioa jaso. OOGren gaitzerrenda jasotzea hark bilerak egin aurretik, proposamenak prestatu ahal izateko.
- e) OOGrako txostenak egin, bai guraso- nahiz ikasle-elkarteen berezko ekimenez bai OOGk hala eskatuta.
- f) AJA aldatzeko proposamenak landu.
- g) Jarduera osagarriak egitea proposatzea.
- h) Emaitza akademiko orokorren nahiz berorien gain ikastetxeak egiten duen balioespenaren berri izatea.
- i) Hezkuntza-proiektuaren, curriculum-proiektuen eta proiektu horien aldaketan ale bat jasotzea.

- j) Ikastetxeak hautatu dituen testuliburuei eta ikasmaterialei buruzko informazioa jasotzea.
- k) Hezkuntza-komunitateko kide guztien arteko elkarlana sustatzea.
- l) Ikastetxeko aretoak erabiltzea, zuzendariak ezarritako baldintzetan.

II. TITULUA .BIZIKIDETZARAKO ARAUAK

I. KAPITULUA. PRINTZIPIO OROKORRAK

43. artikulua. Bizikidetzaren oinarriak

ORIXE B.H.I.ren ustez, bizikidetzaren bermatzeko, batetik, hezkuntza komunitate osoak ikasleen eskubideak errespetatu eta babestu behar ditu ezinbestean eta, bestetik, ikasleek beren eskubideak eta eginkizunak arduraz bete behar dituzte, titulu honetan ezartzen denarekin bat etorriz.¹⁷

44. artikulua. Bizikidetzaren plana

ORIXE B.H.I.k bizikidetzaren plana idatziko du, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak xedatzen duenarekin bat. Bizikidetzaren helburu nagusia bizikidetzaren gerta daitezkeen gatazkak prebenitzea da. Gatazkarik gertatuz gero, beroriek nola ebatzi aurreikusiko da. Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren bitartez, aukerako zenbait bide ezarri ziren hainbat jardura eta neurri aplikatzeko. Hartara, gatazkak ebazteko, aipatu berri dugun Dekretuaren bidez ezarri ziren neurriak aplikatuko dira. Horretarako, beharrezko balitz, bitartekaritza-prozedurak erabil daitezke.

45. artikulua. Eskubideen berehalako babesa

Ikasleek Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuko 6. artikulutik 21. artikulura bitartean jaso diren eskubideak izango dituzte.¹⁸ Irakasleen batek ikusten badu ikaslearen baten jokabidea arestian aipaturiko eskubideen kontra doala edo eskubide horiek betetzea galarazten duela, esku hartu beharko du berehala. Jokabide okerra izan duen ikaslea ahoz ohartarazi

¹⁷ Irakasleen eskubideei eta betebeharrak kontuan hartzen direlarik. Irakasleen eskubideak eta betebeharrak irakasleei buruzko legeetan (LOEko III. Tituluan) eta funtzionarioen lege orokorretan (Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 69-76 artikulua) jaso dira. Azken lege horiek administrazio eta zerbitzuak langileei eragiten die. Irakasleak, halaber, sindikatu-legeen mende daude.

¹⁸ XIII. eranskinean 201/2008 Dekretua ageri da oso-osorik.

beharko du eta, ondoren, ikasketaburuarengana joateko agindu.

46. artikulua. Betebeharrak betetzeko bermea

Ikasleek Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuko 21. artikulutik 27. artikulura bitartean jaso diren betebeharrak bete beharko dituzte.¹⁹ Irakasleren batek ikusi badu ikasleak ez dituela bere betebeharrak bete, haren jokabidea zuzendu beharko du berehala. Horrez gain, irakasleak uste badu ikasleak bere jokabideaz hezkuntza-komunitateko beste kide batzuen eskubideak urratu dituela, ikasketaburuarengana joatea aginduko dio.

II. KAPITULUA. IKASLEEN ESKUBIDEAK BETETZEKO BERMEA

47. artikulua. Irakasleek ikasleen eskubideak babesten laguntzea

ORIXE B.H.I.ko irakasle guztiak abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren bidez ikasleei aitortu zaizkien eskubideak babesten lagunduko dute. Horretarako, araudi honetan eta aginte-organoen jarraibideetan zehaztutakoari jarraituko diote.

48. artikulua. Segurtasunarekin lotura duten eskubideak zaintzea

1. Tutorek nahiz gainerako irakasleek hautematen badute ikasleren bat tratu txarrak jasotzen ari dela edo, Eskubideen eta Betebeharren Dekretuko 7.2 eta 7.3 artikuluetan aurreikusitakoarekin bat, haurren bat arriskuan edo babesik gabe dagoela, ikasketaburu edo zuzendaria jakinaren gainean jarriko dute.
2. Irakasleek berdinkideen arteko tratu txarrak prebenitu edo ahalik eta lasterren hauteman behar dituzte. Tratu txarren arrastorik antzeman ez gero, zuzendaritza taldea jakinaren gainean jarriko du berehala, egoki diren protokoloak aplikatu daitezten.
3. Ikasketaburuak zenbait irakasle –begien bistaz ikasle guztiak kontrolatzeko bezainbat– izendatuko ditu ikasleen jarduna jolas-orduan zaindu dezaten. Irakasleek jolas-orduan ikasleen jarduna zaintzea nori dagokion jakin behar dute. Irakasleek bertatik bertara egon behar dute eta uneoro ikasleei begira egon. Zuzendariak jolas-orduan zenbait toki erabiltzea debekatu dezake, irakasleen zainketa zailtzen badute.

¹⁹ Ikusi aurreko oharra

49. artikulua. Ondra, intimitatea eta irudi propioa babesteko eskubidea

1. Ikasleek nahiz hezkuntza-komunitateko gainerako kideek haien ondra, intimitatea eta irudi propioa babesteko eskubidea dute. Horrenbestez, ORIXE B.H.I.ko aginte-organoeak, tutoreak eta irakasle guztiek babestu beharko dute ikasleen nahiz hezkuntza-komunitateko kideen eskubide hori. Zuzendaritza taldeak zenbait arau proposatuko dizkio OOGri grabatzeko bideen, sakelako telefonoen eta, oro har, teknologia berrien erabilerari buruz. OOGk, bere aldetik, arau proposatu horiek onartu ala ez aztertuko du. Aipatu berri ditugun arauen bidez, ikasgelan grabazioak egitea, argazkiak ateratzea eta sakelako telefonoa erabiltzea galarazita egongo da.
2. Ikasgelatik kanpo -hau da, eraikinean edo eskola-barrutian- aipatu berri ditugunak erabiltzea baimentzen bada, egoki izan daitezkeen muga guztiak proposatu daitezke. Batera zein bestera, debekaturik egongo da hezkuntza-komunitateko kideren bati bere baimenik gabe argazkiak ateratzea edo hura filmatzea. Debekatuta egongo da ere hezkuntza-komunitateko kidearen baimenaz atera den argazkia edo egin den grabazioa interesdunaren baimenik gabe erabiltzea.

50. artikulua. Biltzeko eskubidea

ORIXE B.H.I.ko aginte-organoeak ziurtatuko dute biltzeko eskubidea -Legeak ikasleei aitortzen diena- modu eraginkorrean gauzatzen dela. Biltzeko eskubidearekin erlazionatutako alderdi guztiak zainduko dituzte. Alde horretatik, biltzeko eskubidea gauzatzea hezkuntzahelburuarekin bat datorrela eta adinez txikikoen babeserako Legeak ezartzen dituen aginduekin bat datorrela bermatuko da. Horretarako, pertsona bakarreko aginte-organoeak paragrafo hauetan zehazten dena hartuko dute kontuan:

- a) Taldeak gelan bil daitezke ikasketei buruzko gaiak lantzeko, eskolarik galdu gabe, aldeztatik tutoreari jakinaraziz. Hala badagokio, tutorea bileran izango da. Horrez gain, hilean behin eskolaordutan bil daitezke, ordubetez gehienez ere. Horretarako, tutoreari gaizerrenda jakinarazi behar diote aldeztatik. Bilera horietan taldetik kanpoko ikaslerik ezin izango da egon. Tutorea ez badago, bilera horien buru eta moderatzaile taldeko ikasleen ordezkaria izango da.
- b) Zuzendariak adieraziko du Ordezkarien Batzordeak zer lekutan egingo duen bilera. Horretarako, Araudi honetako 38.2 artikuluan aipatzen den eta funtzionamendurako arauak aurreikusten duten bileretarako araudiari jarraituko zaio.

- c) Ordezkarien Batzordeak, egoki jotzen duenean, ikasle ordezkatuei kontsulta egitea erabaki dezake. Horretarako, Ordezkarien Batzordeak Ikasketaburuari baimena eskatuko dio, eta horrek, gaizerrenda irakurri ondoren eta bertako gaiek Ordezkarien Batzordearen eskumenekin duten egokitzapenmailaren arabera, baimena emango du ala ez du emango. Horrez gain, aurreko bileretan gaizerrenda errespetatu ez bada, baimena ukatu dezake. Ikasketaburuaren erabakiaren aurka erreklamazioa aurkez daiteke zuzendariaren aurrean.
- d) Bileren deialdia ikasle guztiei jakinaraziko zaie ikasleen ordezkarien bitartez, bileraren aurreko egunean. Gaizerrendaren berri emango zaie ere. Bileretara joatea ez da derrigorrezko izango.
- e) Ikasketaburuak, zuzendariaren agintepean, bilera non eta noiz egin erabakiko du. Hasiera batean eskolaordutegitik kanpo egingo da. Horretarako, ikasketaburuak eskolen ordutegia alda dezake, eskolen iraupena murriztu gabe.
- f) Hala ere, OOG osatzen duten hiru sektoreek –ikasleek, gurasoek eta irakasleek–, gehiengo erlatiboaren bidez onesten badute, ikasketaburuak eskolen iraupena murriztuko du bilerak ordubete iraun dezan. Horretarako bileran aztertuko diren gai kopurua eta gaien izaera kontuan hartuko dira. Eskola-ordutegia murrizten bada, eta erabakia bileraren bezperan hartzen bada, eta irakasle guztiei jakinarazten bazaie murriztapena eskola guztien artean banatuko da. Aitzitik, erabakia bilera egingo den egunean bertan hartzen bada, bilera egiten den jolas-orduaren aurreko eta ondorengo eskolak bakarrik murriztuko dira.

51. artikulua. Taldeak eskoletara ez agertzeari buruzko arauak ²⁰

Biltzeko eskubidea betetze aldera, biltzeko eskubidea betetzearen ondorioz DBHko hirugarren mailatik gorako ikasle talde bat derrigorrezko eskoletara edo bestelako jardueretara huts egitea ez da jokabide okertzat hartuko. Gertakari horiek ezingo dira zuzendu, betiere, jarraian aipatuko duguna betetzen bada:

- a) Eskoletara ez agertzeko proposamena ikastetxeko Ordezkarien Batzordeak hartuko du hasiera batean, bere ekimenez edota ikastetxean matrikulatuta dauden ikasle guztien edo legez aitortzen diren elkarrekin, federazioetako edo

²⁰ Arau zabalak proposatu dira, aurreko Dekretuan ageri zirenekin bat etor daitezkeenak. Arau berriek aurreko Dekretuan ageri zirenak guztiz errespetatzen dituzte DBHko hirugarren mailatik aurrera, LOEk –ezartzen ez badu ere– jardunbide hori ahalbidetzen baitu. Arauak libreki murriz daitezke: derrigorrezkoen ondoko etapetako ikasleei mugatuz; erabakiak hartzeko eta jakinarazpenak egiteko epeak luzatzeko eskatuz; mobilizazio orokorretara mugatuz; elkarte, sindikatu edo alderdi guztien babesa duten mobilizazioei mugatuz; edo Herri Administrazioak egin ditzakeen ohiz kanpoko mobilizazioetara mugatuz. LOEk faltatzen hartzen du talde oso bat eskolan ez egotea. Ez-agertze hori, nolana ere, hezkuntza-bitarteko gisa onar daiteke zenbait egoeratan. Ez du eskubide moduan aintzatesten.

konfederazioetako ordezkarien %5ak hala eskatzen badu. Aldez aurretik jarraian azaltzen diren alderdiak eztabaidatu beharko dira:

- Deialdiaren hezkuntza edo prestakuntzahelburua.
 - Deialdiak ikastetxearekin duen lotura.
 - Ikasle guztiek haren gain hausnartzeko duten denbora.
 - Aurretik egindako beste deialdiak edo aurrerantzean egingo direnak.
- b) Proposamena Ordezkarien Batzordeak onesten badu, deialdia idatziko da, artikulua honen 5.a) atalean adierazitako alderdiekin bat arrazoitua, eta deialdia egiten dutenak zeintzuk diren adieraziz. Horrez gain, orduak eta programatutako jarduerak adieraziko dira. Deialdia bilera egin baino bi lanegun lehenago egingo da gutxienez, deialdia egiten dutenek premia eragiten duten arrazoiak ikasketaburuaren aurrean aurkezten dituzten kasuan izan ezik.
- c) Deialdia ikastetxearen zuzendaritzari helaraziko zaio eta, 52. artikulua 1. paragrafoan xedatutakoaren arabera, xede horretara zuzendutako espazioetan eta lekuetan jarriko da. Bozketa amaitu bitartean, adierazitako lekuetan azaldu beharko du informazio guztiak.
- d) Ordezkeri bakoitzak dagokion ikasle taldeari deialdia jakinaraziko dio, baita deialdia ikusgai egongo deneko lekua ere; deialdia ezin izango da geletan jarri eta ezin izango da ikaslerik behartu deialdiaren berri izatera. Modu berean, bozketa egingo deneko lekua eta unea jakinaraziko dira. Zuzendariak berariaz baimendu ezean, bozketa ezin izango da ikasgeletan egin.
- e) Ikasketaburuak botazioa egingo deneko jolas-orduaren aurreko eta ondorengo eskolak murriztea erabaki dezake.
- f) Botazioari jolas-ordua hasi bezain laster ekingo zaio; ikasturte bakoitzak mahai bat izango du eta ikasketaburuak zainduko du, edo haren kargua eskuordeturik hartu dueneko irakasleak. Mahai bakoitzean gutxienez talde bakoitzeko bi ordezkari izango dira: batek, NANen bitartez edo ikastetxeko txartelaren bitartez ikasleen nortasuna egiaztatuko du eta dagokion ikasle taldearen zerrendan sartu; eta, besteak, ikasleen bototxartela hartuko du.
- g) Erabiliko diren bototxarteletan, (BAI/SÍ) eta (EZ/NO) aukerak azalduko dira, bakoitza laukitxo batean. Hautesleek bi aukeretako baten alde egin beharko dute. Hartara, beraiek hautaturiko aukeraren laukitxoan ixa bat egin beharko dute tintaz edo bolalumaz. Bi laukitxoetan marka bana duten bototxartelak baliogabeak izango dira, baita norberak bete ez

duen botoa edo beste modu batera betetako botoa ere. Markadun laukitxorik ez duten botoak eta bestelako daturik ez dutenak boto zuritzat hartuko dira.

- h) Bozketa amaitu ondoren, mahai bakoitzean botoak zenbatuko dira. Emandako botoen batura, boto baliogabeak eta zuriak barne, ikastetxeko ikasle kopuruaren erdia gehi bateko *quorum*era iristen ez bada, botazioak ez du baliorik izango, eta ezin izango da deialdi berdinerako beste botaziorik egin. Beraz, deialdia besterik gabe baztertuko da.
- i) Bozketaren emaitza baliozko izan dadin, quorum hau beharrezkoa da: botoen erdiak gehi bat. Quorum nahikoaz ikasketaburuaren proposamena onartu bada, azken horrek ikasleek hartutako erabakia deialdiarekin batera jarriko du ikusgai. Emaitza ez da inoiz loteslea izango eta ikasleek eskolara joateko duten eskubidea gauza dezakete. Nolanahi ere, deialdi onetsiari jarraiki eskoletara ez agertzea ez da jokabide okertzat hartuko eta ez da egintza hori zuzentzeko neurririk ezarriko.
- j) Ikastetxeak eskolak emango ditu, agertzen ez den ikasle kopurua edozein izanda ere.

52. artikulua. Idatzizko adierazpen askatasunaren eskubidea betetzea

1. Apirilaren 19ko 201/2008 Dekretuaren 14. artikulua ikasleei aitortzen dien adierazpen askatasunaren eskubidea gauzatzeko:
 - a) Zuzendariak – edo, haren lekuan, ikasketaburuak– arautuko du eskubide hori gauzatzeko modua, espazioak eta lekuak. Edozein kasutan, erakundeekiko eta hezkuntza-komunitateko kideenganako errespetua kontuan hartu beharko da.
 - b) Edonola ere, informazioa jendarteratzeko dauden lekuetan eta espazioetan jartzen den informazio orotan, informazioaren erantzule den pertsonaren, erakundearen, elkartearen zein taldearen izena agertuko da.
 - c) Gelen barruan eskolako jardueri buruzko informazioa bakarrik jar daiteke.
2. Aipatu arauak errespetatzen ez dituzten informazioak kendu egingo dira, zuzendariaren edo ikasketaburuaren aginduz.

III. KAPITULUA. BETEBEHARRAK BETETZEKO BERMEAK

53. artikulua. Printzipio orokorra

1. Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak zenbait betebeharrak ezarri dizkie ikasleei. Ikasleek betebeharrak horiek ez betetzea, gutxienez, jokabide okertzat hartuko da beti. Hutsegite hori, halaber, bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabide edo bizikidetzaren kontrako jokabide izan daiteke, baldin eta haren bidez hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak betetzea galarazten bazaie, edota hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak zuzenean urratzen badira.
2. Betebeharrak horiek betetzen ez direla ikusten duen irakasleak esku hartu beharko du derrigor. Horrenbestez, bizikidetzarekin bat ez datorren jokabidea zuzendu beharko du, betiere, arestian aipaturiko Dekretuan nahiz araudi honetan ezarritakoarekin bat etorriz.

54. artikulua. Zuzendu beharreko jokabideak

Ahalik eta lasterren zuzendu behar dira 201/2008 Dekretuak okertzat jo dituen jokabide guztiak, baita bizikidetzaren kontrakoak edo bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkietenak ere. Ahal den heinean, neurri zuzentzaileak zuzendu beharreko jokabidearekin lotura izan behar dute, hainbestekoa non zuzendu beharreko jokabidearen ondorioztat har daitezkeen.

55. artikulua. Jokabide desegokiak²¹

1. Jokabide desegokitzat arestian aipaturiko Dekretuaren 30. artikuluan aipatu direnak hartuko dira.
2. ORIXE B.H.I.n, arestian aipaturiko Dekretuan jaso denaren arabera, ikaslea une horretan babespean duen irakasleak zuzenduko ditu jokabide desegokiak.
3. Ikasketaburuak ezarriko du jarraitu beharreko prozedura. Prozedura hori indarreko arauekin bat etorriko da beti. Era berean, jokabidea zuzentzeko ahozko ohartarazpena baino zerbait gehiago aplikatu behar bada, halaxe jakinarazi beharko zaio ikaslearen tutoreari.

56. artikulua. Bizikidetzaren kontrako jokabideak ²²

1. Bizikidetzaren aurkako jokabideak Eskubideen eta Betebeharren Dekretuko 31. artikuluan aipatzen direnak dira.
2. Bizikidetzaren aurkako jokabiderik hautematen duen irakasleak, lehenik, aurkako jokabidea izan duen ikaslea ahoz ohartaraziko du. Ondoren, ikasketaburuarengana edo haren ordezkorengana joatea aginduko dio. Azkenik, ikasketaburuak eta zuzendariak zehaztu duten prozedurari jarraiki, gertakarien

²¹ XIII. eranskinean 201/2008 Dekretua oso osorik eta IVX. eranskinean Orixe B.H.I.n egin den Dekretuaren zehaztapena ageri dira.

²² XIII. eranskinean 201/2008 Dekretua oso osorik eta IVX. eranskinean Orixe B.H.I.n egin den Dekretuaren zehaztapena ageri dira.

eta jokabide okerra zuzentzeko berehala egin duenaren berri emango du.

57. artikulua. Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak²³

1. Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak Eskubideen eta Betebeharren Dekretuko 32. artikuluan aipatzen direnak dira.
2. Bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidearen lekuko izan den irakasleak, lehenik, ahoz ohartaraziko du bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea izan duen ikaslea. Ondoren, ikasketaburuarengana edo haren ordezkorengana joatea aginduko dio. Azkenik, ikasketaburuak eta zuzendariak zehaztu duten prozedurari jarraiki, gertakarien nahiz jokabide okerra zuzentzeko berehala egin duenaren berri emango du.

58. artikulua. Bizikidetzaren aurkako jokabideak eta hari kalte larria eragiten diotenak zuzentzeko prozedura

Bizikidetzaren aurkako jokabideak eta hari kalte larria eragiten diotenak zuzentzeko, abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuan aurreikusi dena aplikatuko da. Gatazka ebazteko, 201/2008 Dekretuko III. kapituluaren aurreikusi diren aukerako bideak erabili behar dira.

III. TITULUA. ERRENDIMENDU AKADEMIKOAREN EBALUAZIO OBJEKTIBOA

59. artikulua. Printzipio orokorrak

Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 16. artikuluan ezarritakoa betetze aldera, eta ikasleek beren errendimendu akademikoa objektiboki ebaluatua izatera duten eskubidea bermatze aldera, titulu honetan ezarri den berme-sistema ezarriko da. Sistema horrek ondoko printzipio hauek ditu oinarri: publikotasuna, informazioa eta gardentasuna. Aipatu berri dugun sistemaren bidez, bidenabar, ikasleek azken notaren aurrean erreklamazioak egiteko aukera izango dute.

60. artikulua. Publikotasuna

²³ XIII. eranskinean 201/2008 Dekretua oso osorik eta IVX. eranskinean Orixe B.H.I.n egin den Dekretuaren zehaztapena ageri dira.

1. Ikasketaburuak bermatu beharko du ikasleek nahiz legezko haien ordezkariak Ikastetxeko Curriculum Proiektua eskuratzeko duten eskubidea. Ikasleen eta beren ordezkoen eskura egongo den Proiektuan ondoko hauek ageri behar dira: arlo edo irakasgai bakoitzaren helburuak, edukiak eta berorietan landuko diren oinarrizko gaitasunak.
2. Ikasketaburuak, halaber, bermatu beharko du didaktika-departamentuek eta irakasleek publiko egiten dituztela, batetik, arloak edo irakasgaiak gainditzeko eskatuko diren gutxieneko edukiak, bestetik, ebaluazio-prozedura nahiz -irizpide aplikagarriak eta, azkenik, berreskuratzeak egiteko nahiz laguntza eskaintzeko aurreikusi diren prozedurak.
3. Ikasketaburuak ziurtatuko du informazio hori guztia ikasle adingabeen gurasoei edota haien legezko ordezkariari heltzen zaiela.

61. artikulua. Ikasleentzako eta gurasoentzako informazioa

1. Ikasketaburuak bermatu behar du irakasleen eta ikasleen gurasoen edota ikasleen legezko ordezkarien arteko komunikazioa bitarteko arin eta egonkorren bidez gauzatuko dela. Zaindu behar du, halaber, ikasleen gurasoek edota ikasleen legezko ordezkariak irakaskuntzako eta ikaskuntzako jarduerari nahiz eskola-errendimenduari buruzko informazio osoa eskuartean dutela.
2. Tutorearen betebeharrak bazter utzi gabe, irakasleek ezin diote uko egin ikasleei edo ikasleen legezko ordezkariari aurreko puntuan aipatutako alderdi orori buruz eskatzen duten informazio osoa emateari. Ikasketaburuak bermatu behar du irakasle guztiek egin behar hori betetzen dutela.
3. Ikasketaburuak ziurtatu behar du ikasleen irakasle-tutoreak beren taldeko ikasleen gurasoekin ikasturtean bitan bilduko direla. Bermatu beharko du, halaber, ikasleen gurasoen heren batek baino gehiagok eskatzen dituen bilerak egiten direla. Bilera horietan, goian aipaturiko alderdiak landuko dira, baita taldeko ikasleek alderdi horiek nola betetzen dituzten esan ere.
4. Aurreko puntuetan aipatu diren prozeduren bitartez igor daitekeen informazioaz gain, tutoreek ikasleen gurasoei edo legezko ordezkariari aipatu bileretan hitzartutako informazioa idatziz jakinaraziko diete, IIPn ebaluaziobilerak egiteko ezarri den gutxieneko aldizkakotasunez. Gainera, hartu behar diren neurriak hartuko dira informazioa jaso behar dutenek jasotzen dutela ziurtatzeko.
5. Modu berean, zikloko edo ikasturteko azken ebaluaziobileretan lantzen den informazioa igorriko du. Gutxienez, alderdi hauei buruzko informazioa emango da:

- Etapako eta arloetako helburu nagusien betetze-maila.
- Etapako edo irakasgaietako edukien barneratze-maila.
- Nota partzialak edo ikaskuntzaren balorazioak.
- Hezkuntza-neurri osagarrien aplikazioa, beharrezkoa izanez gero.

Txosten horietan, gainera, igarotzeko edo geratzeko erabakia arrazoitu beharko dute. Tutoreak idatziko ditu, irakasle taldearekin eztabaidatu ondoren, eta kontuan izan beharko ditu ikasleak programatutako helburuak lortu ez dituen arlo edo gai bakoitzari dagozkion irakasleek egindako proposamenak edo txostenak. Txosten horiek, ikastetxean jasoko dira eta hurrengo zikloko edo kurtsoko irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesua orientatuko dute, irakasleek ikasgelako programazioak abiapuntu horretatik egokitu beharko dituztelarik.

62. artikulua. Zuzendutako lanak, probak eta ariketak berrikustea

1. Ikasleek eta, hala egokitzuz gero, gurasoek edota legezko ordezkariak ikasleen errendimenduaren ebaluazioan eragina izango duten lan, proba eta ariketa guztiak ikusteko aukera izango dute. Behin ariketa guztiak zuzenduta eta nota jarrita, aipatu dokumentuen kopia edukitzeko eskubidea izango dute.
2. Ikasketaburuak ezarriko du kopiak eskatzeko orriek bete behar duten prozedura. Horretarako kontuan hartuko da ahozko eskabideek ahozko erantzuna jasoko dutela eta, aitzitik, idatzizko eskabideek idatzizko erantzuna.
3. Zuzenketa amaitutzat jotzeko ez da nahikoa izango kalifikazio kualitatiboa edo kuantitatiboa azaltzea; horrez gain, egindako akatsak edo hutsegiteak edo kalifikazioaren azalpen arrazoitua adieraziko da.

63. artikulua. Ariketa zehatzei jarritako kalifikazioen aurrean erreklamazioak egitea

Ikasleek edo legezko beren ordezkariak, kalifikazioak jaso eta bi eskola-egun igaro aurretik, ahoz aurkez ditzakete alegazioak eta egindako lanak edo probak berraztertze eskatu ere. Alegazioak edo eskabideak irakasleari aurkeztuko zaizkio. Irakasleak, egoki baderitzo, didaktika-departamentuari aholkua eska diezaioke auzia ebazteko. Horretarako, kontuan izango curriculum ofizialaz eta IIPz gain, didaktika-departamentuen programazioak, ikasgelako programazioak eta argitara eman diren kalifikazio-irizpideak lotesleak direla.

64. artikulua. Ebaluazio partzialen aurrean erreklamazioak egitea

1. Ikasleek, ahoz zein idatziz, zuzenean edo irakasle tutorearen bitartez, irakaslearen aurrean ebaluazioaldi bakoitzari dagozkion erreklamazioak egin ditzakete. Dagozkion irakasleak erreklamazioei guztiei erantzun beharko die, idatziz egindakoei idatziz, eta ahoz egindakoei ahoz. Horretarako, aurreko artikulua azken paragrafoan zehaztutakoa hartu beharko du kontuan.
2. Erreklamazioa ezesten den kasuetan, ikasleek, ahoz zein idatziz, zuzenean edo irakasle tutorearen bitartez, didaktika-departamentuaren esku-hartzea eska dezakete. Didaktika-departamentuak, proposatutako azterketa programazioarekin bat ote datorren egiaztatuko du, baita departamentuan erabakitako irizpideak zuzen ezarri ote diren ere, eta erreklamazioa egin duen ikasleari, ahoz edo idatziz - erreklamazioa egin den modu berean- erantzungo dio.
3. Ebaluazio partziala gauza arrunta denez, ezin izango da kalifikazioaren aurkako erreklamaziorik egin, nahiz eta irakasleak kalifikazioari eutsi departamentuaren irizpidearen aurka. Hala ere, irizpide hori kontuan hartuko da azken ebaluazioaren aurkako erreklamaziorik eginez gero erabakia hartzeko.

65. artikulua. Kalifikazioak justifikatzen dituzten agiriak gordetzea

1. Ikasturteko edozein unetan probak, lanak eta ariketak aztertu ahal izateko, irakasleek ikastetxean izango dituzte agiri guztiak, eskolagarai osoan eta, gutxienez, ikasturteko azken ebaluazioa egin ondoren erreklamazioak egiteko dagoen epea amaitu eta hiru hilabete bitartean.
2. Epe hori amaitu ondoren, agiriak suntsituko dira edo ikasleei eman, beti ere erreklamazio baten ondoren erabakia hartzeko beharrezkoak ez badira. Ondorio horietarako, kontuan hartu beharko dira bai erreklamazioan aipatu diren ariketak, baita irakasleak edo erreklamazioaileak aldarrikatzen duen kalifikazio bera izan duten ikasleen ariketak ere.
3. Edonola ere, erreklamazio bati buruzko erabakia hartzeko kontuan hartu beharreko ariketak edo agiriak gorde egin beharko dira, horiei buruzko erabaki administratiborik edo ekintza judizialik egin daitekeen kasuetan.

66. artikulua. Azken kalifikazioei buruzko erreklamazioa

1. Azken kalifikazioak argitara eman aurretik, irakasleek kalifikazioa berrikusteko tutoretza-ordua jarriko dute. Tutoretza

hori ikasketaburuak onetsi duen orduan egingo da. Kalifikazioa berrikusteko orduan, irakasleak ikasleei banan-banan jakinaraziko die zein den, bere iritziz, merezi duten nota. Ikasleen aldeko edo kontrako iritzia jasoko ditu eta, bere irizpide propioari jarraiki, kalifikazio aurreikusia aldatu edo bere horretan utziko du.

2. Aurreko puntuan zehaztutako tutoretza-ordura joan, kalifikazioarekin ados ez daudela adierazi eta, hala ere, aintzat hartuak izan ez diren ikasleek 48 orduko epea izango dute erreklamazioak egiteko, kalifikazioak formalki eman diren unetik zenbatzen hasita. Erreklamazioa egiteko, ikasketaburuari zuzendutako idatzi bat aurkeztu beharko dute idazkaritzan. Idatzi horretan, irakasleak ondoko hauek zehaztu behar ditu argi eta garbi: irakasleak jarri dion eta bere iritziz zuzena ez den kalifikazioa; zilegi litzatekeen kalifikazioa; eta ikasleak erreklamazioa egiteko dituen arrazoiak.

Ikasleak, halaber, erantsi ahal izango ditu ariketa zehatzen edo ebaluazio partzialen kalifikazioen aurrean egin ziren eta bere garaian aldeko ebazpena izan ez zuten alegazioak edo erreklamazioak, betiere, ariketa zehatz edo ebaluazio partzial horiek azken ebaluazioko emaitzaren gain eragina izan badute.

3. Ikasketaburuak dagokion didaktika-departamentuari aurkeztuko dio erreklamazioa. Didaktika-departamentuak erreklamazioa aztertuko du. Hartara, proba proposatuak ikasgaiaren programazio onartuarekin bat datozen erabakiko du, baita ebaluazio-irizpide hitzartuak zuzen aplikatu diren ere. Didaktika-departamentuak erabakiko du irakasleak jarritako kalifikazioarekin ados dagoen ala ez. Erabaki hori hartzeko, kontuan hartu beharko ditu ebaluazio partzialetan egindako erreklamazioei buruz igorri diren txostenak.

Kontuan izango du erreklamatzaillearen antzerako egoeran dauden ikasleei irakasleak zer kalifikazio jarri dien.

4. Ikasleak azken ebaluazioan «gutxi» edo «gutxiegi» kalifikazioa jaso badu, haren kontrako erreklamazioa aurkeztu badu, eta ikasleak eskoletan ahoz emandako iritziaik besterik ez badira hartu nota jartzeko, kalifikazio negatibo hori ezin izango da bere horretan utzi, salbu eta ikasleak eskoletan ahoz emandako iritziei buruz nahikoa informazio bildu bada.
5. Didaktika-departamentuak bi eguneko epean hartu beharko du erabakia, erreklamazioa idatziz egiten den egunetik zenbatzen hasita.

67. artikulua. Didaktika-departamentuak hartutako erabakiaren ondorioak

1. Didaktika-departamentuak bere erabakiaren berri emango dio ikasketaburuari. Azken horrek interesdunari helaraziko dio didaktika-departamentuaren erabakia.
2. Ikaslearen erreklamazioa balioesten bada, ikasketaburuak haren berri emango dio zuzendariari. Zuzendariak, horrenbestez, agiri akademikoan dagokion zuzenketa egingo du.
3. Erreklamazioa onartu ez eta ikaslea, oraindik ere, erabakiarekin konforme ez badago, erreklamazio-idatzia jarri dezake zuzendariaren aurrean. Zuzendariak, kasu horretan, Hezkuntza-administrazioari helaraziko dio ikaslearen erreklamazioa, eta Hezkuntza-administrazioak erabaki bat hartu beharko du.

68. artikulua. Batxilergoan ikasleek egin ditzaketen hutsegiteak eta ondorioak

2010eko uztailaren 26koa (EHAA - 2010eko irailak 9) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Batxilergoaren antolamendua eta ebaluazio-prozesua arautzen dituen Aginduan jasotzen denaren arabera, ikasleen etengabeko ebaluazioa egiteko, beharrezkoa da ikasleak eskoletara erregularki joatea eta ikasgai guztietarako programatutako jardueretara joatea. Antolamendu eta Funtzionamendu Erregelamenduan edo Barne Erregelamenduan, ikastetxeek zehaztuko dute zenbat falta egin daitekeen gehienez ikasturte bakoitzean eta ikasgai bakoitzeko, Euskadiko Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuan xedatutakoaren arabera. Dekretu horretan adierazitakoaren arabera, falta-kopuru hori egiten duen ikasleek etengabeko ebaluaziorako eskubidea galtzen dute, baina ezohiko deialdian aurkeztu ahal izango dira, matrikulatutako gainerako ikasleak bezala.

Orixe BHIn ere, etengabeko ebaluazioak klaseetara joatea erregularki eskatzen dugu. Erregularitasun hori zehaztuz, etorreraren % 80an finkatu dugu. Salbuespenak Koordinazio Pedagogikoko Batzordeak erabakiko ditu.

Hutsegite kopurua %20ra iristen bada, ikasleak ebaluazio jarraia izateko eskubidea galduko du, ez-ohiko deialdiko azterketa soilik egin izango duelarik. Hala ere, hutsegite horiek justifikatuak badira, tutorearen bidez beti, ikasleak etengabeko ebaluazioan parte hartzea eska diezaioke Koordinazio Pedagogiko Batzordeari. Eskaera hori idatziz aurkeztu beharko da, eta, besteak beste, ikaslearen hutsegiteen arrazoiak eta gurasoak jakinaren gainean daudela frogatzen duen sinadura bat ere izan beharko ditu.

Beste aldetik, gure Ikastetxeko Curriculum Proiektuak dioanaren arabera, hutsegiteek jakintzagai batean etengabeko ebaluazio-sistema aplikatzea saihesten dutenean, institutuak ezarritako irizpideen arabera, mintegiak edo didaktika-departamentuak ebaluazio sistema desberdinak aplikatu ahal izango ditu, ikasleari proba baten bidez jakintzagai horretako helburuak gainditu dituela egiaztatzeko kendu gabe.

ERANSKINEN ZERRENDA

- I. ERANSKINA: ORDEZKARITZA ORGANO GORENA**
- II. ERANSKINA: EKONOMIA BATZORDEAZ**
- III. ERANSKINA: IRAKASLE KLAUSTROAZ**
- IV. ERANSKINA: ZUZENDARITZA TALDEAZ**
- V. ERANSKINA: ZUZENDARIA**
- VI. ERANSKINA: IKASKETA-BURUAREN ETA IDAZKARIAREN EGITEKOAK**
- VII. ERANSKINA: LAGUN BAKARREKO BESTE ORGANOEN EGITEKOAK**
- VIII. ERANSKINA: ORIENTABIDE DEPARTAMENTUAREN FUNTZIOAK**
- IX. ERANSKINA: DEPARTAMENTSU DIDAKTIKOEN FUNTZIOAK**
- X. ERANSKINA: TUTOREEN EGINKIZUNAK**
- XI. ERANSKINA: EGOKITZAPENEN KOORDINAZIO TALDEAK ETA LAGUNTZA-IRAKASLEAK**
- XII. ERANSKINA: PARTAIEDETZAKO BESTE ORGANOAK**
- XIII. ERANSKINA: 201/2008 DEKRETUA, abenduaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa.**
- XIV. ERANSKINA: ORIXE B.H.IKO ELKARBIZITZARAKO ARAU ETA PROZEDURAK**
- XV. ERANSKINA: TESTULIBURUEN ETA CURRICULUM-MATERIALEN KUDEAKETA SOLIDARIOA EGITEKO PROGRAMAZ ARDURATZEN DEN ZENTROKO BATZORDEA**
- XVI. ERANSKINA: KARGU ETA BATZORDE BERRIAK ETA BERAIEN ESKU GERATZEN DIREN FUNTZIOAK**
- XVII. ERANSKINA: ESKOLA 2.0 – ARAUDIA**
- XVIII. ERANSKINA: HEZKIDETZAKO ETA GENERO-INDARKERIAREN PREBENTZIOKO ARDURADUNA**

I. ERANSKINA

ORDEZKARITZA ORGANO GORENA

(EHAA 1993-2-25 38. zkia)

31. Artikulua

Eskola-elkarteko kideen partaidetza-organoa da eta eskola-bizitzarako funtsezkoak diren erabakiak hartzea beroni dagokio eta, ikastetxearen autonomi esparruan, ikastetxearen jardueraren azken erantzulea da.

Honako **eskumen** hauek ditu:

- a) Ikastetxearen hezkuntza-proiektua, antolakuntza- eta jarduera-araudia eta kudeaketa-proiektua onartzea, bete daitezen begiratzea eta hauen ebaluazioa egitea.
- b) Ikastetxearen urteko plana onartzea, irakasle klaustroaren egitekoak eta erabakitakoaren kaltetan gabe.
- c) Prestakuntza-ihardueren, eskolaz kanpokoaren eta osagarritzkoen egitaraua eta urteko kudeaketa-egitaraua onartzea, horien jarraipena eta aldizkako ebaluazioa bere gain hartuz.
- d) Ikastetxearen urteko txostena onartzea.
- e) Zuzendaria hautatzea eta, beronen proposamenez, ikastetxeko gainerako bakar-organoak izendatzea. Zuzendariaren izendapena ezeztatzea edo bera indargabetzeko proposatzea, bi herenek onartutako erabakiz.
- f) Ikasleen onarpena erabakitzea, indarrean dagoen araubidean agindutakoari bete-betean lotuz.
- g) Ikasleen agindupe arloko gatazkei irtenbidea ematea eta zigorrak ezartzea, ikasleen eskubide eta betebeharrak arautzen dituzten arauen arabera.
- h) Beste ikastetxe batzuekin lankidetzaharremanak izatea kultura eta hezkuntzazko helburuez.
- i) Eskolako instalazio eta tresneriaren alda-berrikuntza sustatzea, bai eta haien iraupena zaintzea ere.
- j) Eskola-jantokiko antolaketa eta funtzionamendurako jarraibideak onartzea. Jantokiaren funtzionamendua gainbegiratzea. Administrazioari bidaltzea kontratatutako enpresaren zerbitzuaren ezaugarriari eta kalitateari buruzko txostenak
- k) Jantokiaren kudeaketa ekonomikoa kontrolatzea. Jantokiaren urteko aurrekontua eta urte bukaerako likidazioa ere onartuko ditu.
- l) Zerbitzuaren premiei gehien komeni zaizkien handitze-obrak proposatzea, bai eta instalazioak hobetzeko eta jantokiko zerbitzuak hobetzeko proposamenak egitea ere.

- m) Ikastetxearen jarduera orokorra gainbegiratzea, administrazio eta irakaskuntza alderdietan

II. ERANSKINA

EKONOMIA BATZORDEAZ

(EHAA 1986-4-17 74.zkia)

25. artikulua

1. Honako kide hauek osatuko dute Ekonomia batzordea:

- a) Zuzendariak
- b) OOGeko kide den irakasle batek
- c) OOGeko kide den guraso batek
- d) Ikastetxeko idazkariak, hitz egiteko eskubidez eta botorik gabe

2. Korporazio Lokalek beraien sostenguan parte hartu dezateneko ikastegietan, eskola kontseiluko kide den Udaleko zinegotzi edo horren ordezkari batek parte hartuko du aipaturako batzordean.

3. ikastegiaren ekonomia gestioaren bolumenak hala eska dezanean, eskola kontseiluak, zuzendariaren edo ekonomia batzordeko bi kideen proposamenez, ekonomia batzorderako bi edo, hala behar izan dadinean, hiru lankide izendatu ahal izango ditu, bat irakaslegoaren izenean, beste bat ikasleen gurasoen izenean, biek eskola kontseiluko kide izan beharko dutela eta hirugarrena, bidezko bada, ikastegia han kokatuta dagoeneko Udalaren izenean.

26. artikulua

Ikastegiaren ekonomia-administrazio gestio plana lantzea eta horren artezko zaintza eramatea dagokio ekonomia batzordeari eta, horietarako, honako egiteko hauek izendatzen zaizkio:

- a) Ikastegiaren urteko ekonomia-gestio planaren proiektua eratzea aurrekontuarekin batera, eskola-kontseiluak onarpena eman diezaion.
- b) Ikastegiaren urteko balantzea lantzea, eskola kontseiluak onarpena eman diezaion.
- c) Idazkariaren egunean eguneango gestio ekonomikoa kontrolatzea, hark eman behar dion aldian-aldiko informazio bidez.
- d) Instalazio eta eskola hornidura, horien kontserbazioa eta berrikuntza arloetan ikastegiak dituen beharrez eskola kontseilua informatzea eta bai inbentarioaren gaurkotzea kontrolatzea ere.
- e) Eskola kontseiluak instalazioen eta eskola horniduren kontserbaziorako eta berrikuntzarako hartutako neurriak, betetzen diren ala ez kontrolatzea.
- f) Ikastegiaren ekonomia-gestio plana aurrekontuarekin batera bete denari edo ez denari eta ikastegian ekipamendu eta instalazio mailan egin diren hobekuntzei eta bertan dauden beharrei buruzko urteko memoria lantzea, eskola kontseiluak onar dezan.

g) Legeek izenda diezazkioten gainontzeko egitekoak.

III. ERANSKINA

IRAKASLE KLAUSTROAZ

(EHAA 1993-2-25 38. zkia)

35. artikulua

1. Irakasle-klaustroa ikastetxean lanean diharduten irakasle guztiek osatuko dute eta zuzendaria izango du burua..
2. Irakasle-klaustroaren egitekoak honako hauek dira:
 - a) Ikastetxearen ikasketa-proiektua eta irakaskuntza-jardunen egitaraua egin eta onartzea, ordezkaritza-organo gorenak irizpena eman ondoren; organo horrek erabakiko du ikastetxearen hezkuntza-proiektuan jasotako arauen egokitasunaz.
 - b) Irakaskuntza-jardueren egitarauaren betetze-mailaren berri ematea ordezkaritza-organo gorenari. urteko txostena egin dezan.
 - c) Ikasleak ebaluatu eta berreskuratzeko lanari buruzko irizpideak ezarri eta koordinatzea.
 - d) Ikasleriaren bideratze-eginkizunak eta tutoretza planifikatzea eta zuzentzea.
 - e) Ikastetxean garatu behar diren pedagogiazko saioretarako edo ikerketarako ekinbideak sustatzea.
 - f) Ikastetxearen jarduera-arauak onartzea.
 - g) Irakasleriaren prestakuntzari dagozkionetan prestakuntza-jardueren, eskolaz kanpokoan eta osagarrizkoen egitarauari buruzko txostena egitea eta ordezkaritza-organo gorenak onartu baino lehen.
3. Irakasle-klaustroak hautatuko ditu ikastetxeko ordezkaritza-organo goreneko bere ordezkariak.
4. Irakasle-klaustroak batzorde iraunkorra izango du, Koordinazio Pedagogiko Batzordea, hain zuzen. Batzorde honek, klaustroaren bileren artean, honi dagozkion behinbehineko erabakiak har ditzake. Adostutako gaiak izan beharko dira eta departamentukideen iritzia jaso direla ziurtatu beharko da. Hala ere, hurrengo klaustroko bileran berretsi beharko dira erabaki horiek.

IV. ERANSKINA

ZUZENDARITZA TALDEAZ

(EHAA 1993-2-25 38. zkia)

36. artikulua

2. Ondorengoak dira zuzendaritza-taldearen egitekoak:

- a) ikastetxearen zuzendaritza eta koordinaziorako irizpideak erabakitzeke eta jarduerari begira garrantzi handiagoko erabakiak hartzeko orduan zuzendariari laguntzea.
- b) Kudeaketa-proiektua, prestakuntza-jardueren, eskolaz kanpokoen eta osagarrizkoen egitaraua eta urteko kudeaketa-egitaraua gauzatzea, ordezkari-organoren onar ditzan.
- c) Aurreko puntuan adierazitako programen burutzapena zaintzea eta koordinatzea, eta horien betetze-mailaren berri ematea ordezkari-organoren onar ditzan.**
- d) Urteko txostenaren zirriborroa egitea. ordezkari-organoren onar ditzan.
- e) Ordezkari-organoren onar ditzan euskal eskola publikoko beste zenbait ikastetxerekin lankidetzaren harremanak izateko proposamena egitea eta, halaber, kultura eta hezkuntza-xedez. erakundeekin itunak izenpetzeko proposamenak egitea, organoren onar ditzan, egoki baderitza, hezkuntza-administrazioari aurkez diezazkion.
- f) Irakasle-taldeak antolatzea eta irakasleak beren jardueretara atxikitzeke irizpideak erabakitzea ikasturte bakoitzaren hasieran.

Aurreko atalekiko b) eta d) puntuetan adierazten diren egitekoak betetzeko, zuzendaritza-taldekoek organoren onar ditzan esku emandako batzorde baten partaidetza izango du. Antolakuntza eta iharduneko araudiak organoren onar ditzan batzorde iraunkorra oharteman dezan kasuetan, batzorde horri emango zaio esandako dokumentuak egiteko ardura.

Edonola ere, ordezkari-organoren onar ditzan baitako ordezkari-baldintza eta proportzioak gorde behar dira, horretarako proportziosko botoa ezarri ahal izango dela.

V. ERANSKINA

ZUZENDARIA

3/2008 Legea, ekainaren 13koa, Euskal Eskola Publikoari buruzko Legea bigarrenez aldatzekoa

Hamargarren artikulua.

Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legearen 34. artikulua aldatzen da, eta aurrerantzean honela egongo da idatzita:

“34. artikulua.- Zuzendariari dagokio:

- a) Ikastetxearen ordezkari izatea, ikastetxean hezkuntza Administrazioa ordezkatzeko, eta Administrazio horri hezkuntza-komunitatearen planteamenduak, asmoak eta premiak helaraztea.
- b) Ikastetxearen jardura guztiak zuzentzea eta koordinatzea, irakasleen klaustroari eta ordezkari-organorenari esleitutako eskumenak aparte utzi gabe.
- c) Zuzendaritza pedagogikoa gauzatzea, hezkuntza berrikuntza sustatzea eta ikastetxearen heziketa-proiektuaren helburuak lortzeko planak bultzatzea.
- d) Legeen eta indarrean dauden gainerako xedapenen betetzea bermatzea.
- e) Ikastetxeari atxikitako langile guztien buru izatea.
- f) Ikastetxeko elkarbizitza hobetzea, gatazka konpontzeko bitartekotza bermatzea eta ikasleei dagozkien neurri zuzentzaileak ezartzea indarrean dagoen araudia beteta, gai honetan ordezkari-organorenari esleitutako eskumenak aparte utzi gabe. Horretarako, ikastetxeetan gatazka konpontzeko prozedurak bizkortzea sustatuko da.
- g) Ikastetxearen eta ingurunearen arteko harremana sendotzeko, familiekin, erakundeekin eta organismoekin lankidetzatza bultzatzea, eta eskola-giroa sustatzea, ikasleek jakintzetan eta balioetan prestakuntza integrala jasotzeko eta ikasketa-ohiturak sustatzeko lagungarri izan daitezkeen jardun guztiak garatze aldera.
- h) Ikastetxearen barneko ebaluazioak bultzatzea eta kanpoko ebaluazioetan eta irakasleen ebaluazioan laguntzea.
- i) Ikastetxeko ordezkari-organorenari eta irakasleen klaustroaren egintza akademikoetarako eta bilkuretarako deialdia egitea, egintza-bilkura horiek zuzentzea eta aipatutako erakundeek beren eskumenen eremuan hartutako erabakiak betearaztea eta betetzen diren zaintzea.

- j) Lege honen 63. atalak aipatzen dituen obren, zerbitzuen eta horniduren kontratazioak egitea, gastuak baimentzea ikastetxearen urteko kudeaketa-programarekin bat etorriz, ordainketak agintzea eta ikastetxearen ziurtagiriei eta dokumentuei oniritzia ematea, hori guztia araudi bidez ezarritakoari jarraiki.
- k) Hezkuntza gaietan eskumena duen sailari ikastetxeko zuzendaritza-taldeko beste kideen izendapena eta kargu-uztea proposatzea, irakasleen klaustroari eta ikastetxeko ordezkari-organogorenari jakinarazi ondoren.
- l) Hezkuntza gaietan eskumena duen sailak esleitzen dizkion guztiak, beste arau batzuk esleitzen dizkionak eta ikastetxearen antolaketa eta jardunbideko erreglamenduak ezartzen dizkionak”

VI. ERANSKINA

IKASKETA-BURUAREN ETA IDAZKARIAREN EGITEKOAK

(EHAA 1993-2-25 38. zkia)

41. atala

Ikasketa burua da ikasketa proiektua eta irakaskuntza jardueren egitaraua koordinatu eta gauzatzen direla zaintzeko ardura duen organoa. Ikastetxeko zuzendaritza-taldeak onartutako irizpideekin bat etorritik ondorengo egitekoak ditu:

- a) Irakaskuntzako jarduerak koordinatzea.
- b) Eskolako ordutegiak egitea eta betetzen direla zaintzea.
- c) Irakasle bakoitzari ikastetxeko gela bat edo gehiago izendatzea, 36.2.f) atalean araututakoari jarraiki.
- d) Arauek eta ikastetxearen antolakuntza- eta jarduera araudiak aitor diezazkioten gainerako egitekoak.

42. atala

Idazkariak ondorengo egitekoak ditu:

- a) Ordezkaritza-organo gorenaren, ikastetxo zuzendaritza-taldearen eta irakasle-klaustroaren bilkuretako gai-zerrendan sartu beharreko gaiak prestatzea, organo horietako lehendakariak ezarritakoaren arabera, eta organo horien bilkuretako akta egitea.
- b) Aktak, espedienteak eta ikastetxearen beraren agiriak zaintzea, eta bertako organoen eskueran izatea. Ikastetxeko irakas-baliabideak zaintzea.
- c) Zuzendariaren oniritziaz, ikastetxearen egintza, erabaki, hitzarmen, aurrekin. Liburu eta agiri guztiak egiaztatzea.
- d) Arauek eta ikastetxearen antolakuntza- eta jarduera araudiak aitor diezazkioten gainerako egitekoak.

VII. ERANSKINA

LAGUN BAKARREKO BESTE ORGANOEN EGITEKOAK

Zuzendariordeari honako hauek dagozkio:

Zuzendariari lagundu eta honen gaixotasun, ez egote, indargabetze edo kargugabetze kasuetan ordezkotza gisa aritzea, legez ezarritako prozeduraren bidez ordezkotza izendatu arte.

- a) Hezkuntza Proiektua eta Urteko Programazio Orokorra prestatzen eta hobetzen parte hartzea, zuzendaritza taldeko gainerako kideekin batera.
- b) OOGaren jarraibideei kasu eginez, jarduera osagarri eta eskolaz kanpoko urteko programazioa prestatzea, sustatzea eta koordinatzea departamentuen, irakasleen, ikasleen eta gurasoen proposamenak oinarri harturik.
- c) Jarduera osagarri eta eskolaz kanpokoak egin daitezkeen begiratzea.
- d) OOGak jarduera osagarri eta eskolaz kanpokoetarako esleitu dituen diru baliabideak nola banatu proposatzea, eta ikasturte bukaerako memoria bat prestatzea egindako jarduera osagarri eta eskolaz kanpokoak ebaluatzeko. Memoria hau zuzendaritza-memorian sartuko da.
- e) Urteko Programazio Orokorrean biltzea zentroko irakasleen formakuntza plana, Koordinazio Pedagogikoko Batzordearen proposamena oinarri harturik Beraz, Institutuko berrikuntza pedagogikoz eta irakasleen formakuntzaz arduratuko da. Zentzu honetan, honelako eginkizuen eta betebeharrak ditu:

Eginkizunak:

• Gaur egun martxan dauden berrikuntza eta prestakuntza proiektuak koordinatu, gure Ikastetxeko Hezkuntza eta Curriculum Proiektuen ildotik doazela gainbegiratu, eta beraien artean koherentzi bat dagoela bermatu

• Berrikuntza Taldea (B.T.) antolatu eta zuzendu. Talde honetan, berak eta proiektuen arduradunek parte hartzen dute.

• Irakas-ikaskuntzan eraginkorrenak suertatzen diren proiektuak dagozkien arlo, irakasgai, maila eta etapetan zabal daitezela lan egin

• (Z.T.) Zuzendaritza Taldeari, gure institutuan sor daitezkeen proiektuak ebaluatu ahal izateko irizpideak proposatu

• Batzordea Pedagogikoan parte hartu

Zereginak:

Besteak beste honako zereginak ditu:

- Berrikuntza Proiektuen artxibategi bat egin.
- Proiektuen arduradunekin bildu eta Berrikuntza Taldea (B.T.) martxan jarri.
- Zuzendaritza Taldeak finkatu dituen irizpideen arabera, proiektu berrak ebaluatu.
- Pedagogi Batzordearen bileretara joan

Idazkariordeari honako hauek dagozkio:

- a) Ordutegiak prestatzen lagundu
- b) Irakasle-gelako oholtza egunean eduki
- c) EHAA begiratzea
- d) Aldizkari eta harpidetzak kudeatzea
- e) Irakasleen ez-etortzeak eta justifikanteak kontrolatu

Irakasle ordezkariari honako hauek dagozkio:

- a) Gelategiko funtzionamendua zuzendu eta koordinatu, beti ere ikastetxeko zuzendariaren esanei jarraiki.
- b) Arauak, erabakiak, proiektuak, jarduketa-programak eta gelategiko jardunari eragiten dioten itunak betearazi.
- c) Zuzendariaren eskuordez, gelategiko langileen buru aritzea, langile horien jarduerari dagokionez, ikastetxeko zuzendariak arlo horretan dituen eskurantzak errespetatuz, eta beti ere haren esanei jarraiki.
- d) Gelategiko irakasleen akademi ordutegia betetzen dela zaintzea.
- e) Gelategiko instalazioak, altzariak eta ikasmateriala zaintzea.
- f) Ikastetxeko zuzendariaren ordeztaritzea bai gelategiko ikasleekiko harremanetan bai ikasleen gurasoekikoetan.
- g) Gelategian ematen diren mailako irakasleriaren pedagogia-koordinazioa zaindu.
- h) Institutuak adskribiturik dituen Lehen Hezkuntzako ikastetxeen arteko komunikazioa eta lankidetzaren bermatu.
- i) Ikasleen garraioa antolatu
- j) Gelategiko taldekatzeak proposatu
- k) Ebaluazio saioak antolatu eta zuzendu eta gelategiko taldeetako tutoreen bilerak zuzendu
- l) DBH ko 1go eta 2. mailako ikasleek izan ditzaketen arazoak bideratu
- m) Ordutegiak egiteko irizpideen berri eman ikasketa-buruari
- n) Jangelan gertatzen diren gora beheren jarraipena egin.

DBHko koordinatzaileak ondoko zereginak eta erantzukizunak izango ditu eta ikasketa buruaren zuzendaritza eta ikuskaritzapean beteko ditu:

- a) DBH-ko 3 eta 4. mailetakoko irakasleriaren pedagogia-koordinazioa zaindu.
- b) Taldekatzeak proposatu
- c) Ebaluazio saioak eta tutoreen bilerak antolatu eta zuzendu
- d) DBH-ko 3 eta 4. mailetakoko ikasleek izan ditzaketen arazoak bideratu
- e) Ordu-tegiak egiteko irizpideen berri eman ikasketa-buruari
- f) DBH ko ikasleek egingo dituzten ondorengo ikasketak emango dituzten irakasle-taldeen arteko komunikazioa eta lankidetzaz zaindu, nahiz ikastetxean bertan nahiz beste ikastetxe batzuetan.

Batxilergoko Koordinatzaile Pedagogikoakak ondoko zereginak eta erantzukizunak izango ditu eta ikasketa buruaren zuzendaritza eta ikuskaritzapean beteko ditu:

Eginkizunak:

- ÿ Ikasketa Buruak, batxilergoaren inguruan dituen eginkizunetan lagundu.
- ÿ Batxilergoari dagokionean, Tutoretza-Ekintza Plana koordinatu. Hortarako, orientatzailearen laguntza izango du.
- ÿ Ikasketa Buruarekin eta beste koordinatzaileen batera Koordinatzaileen Taldea (K.T.) osatuz, ikasleen disciplina arazoak aztertu eta zuzentzeko neurriak proposatu.
- ÿ Kontrol, ebaluazio-probak edo beste edozein arazoak direla eta, ikasleen eskola-ordutegian, garaiatik kanpo suertatu daitezkeen aldaketen testigantza egin. Baita ere, ekintza osagarriak eta hauen eragina eguneko martxan gainbegiratu.
- ÿ Batxilergoko ikasleen bizitza akademikari buruzko informazioa lortu eta, tutorearekin batera, ikasle hauen jarraipena egin.

Zereginak:

- ÿ Batxilergoko 1. eta 2. mailetakoko tutoreen bilerak zuzendu.
- ÿ Koordinazio bileretara, Koordinatzaileen Taldearenetara eta Pedagogi Batzordearenetara joan.
- ÿ Batxilergoko ebaluazio bileretara joan.
- ÿ Aldaketa erregistratzeko fitxan sinatu eta aldaketen erregistro-artxibategia eraman.

VIII. ERANSKINA

ORIENTABIDE DEPARTAMENTUAREN FUNTZIOAK

(2009/10 ikasturteko hasierako ebazpena)

Orientabide departamentuaren egiteko nagusia: irakasleekin parte hartzea, animatzea, aholkuak ematea eta elkarrekin jardutea eta ikastetxeetako hezkuntza parte hartzearen erabaki esparru desberdinetan, hala nola, zuzendaritza taldeak, batzorde pedagogikoak, departamentu didaktikoak, irakaskuntza taldeak, tutoretzak, irakasleak... eta lankidetzak ematea proiektuen eraikuntza, ebaluazioaren diseinu, esku hartzeko irizpide eta, azken batean, ikasleen hezkuntza-orientabide egitekoan.

Helburu hori betetzeko, honako hauek bete behar dira gutxienez:

- a) Kide bakoitzari dagozkion egitekoak koordinatzea.
- b) Ikastetxeko Orientabide Plana eta Tutoretza Plana egitean parte hartzea.
- c) Ikastetxeko Orientabide Plan eta Tutoretza Planaren burutzapen eta aplikazioaren jarraipena egitea, departamentuaren urteko memorian jasota.
- d) Orientabide pertsonal, akademiko edo lanekoa koordinatzea beste administrazioa batzuekin edo gizarte inguruko erakunde aginpidedunekin (udaleko gizarte-ongizatea, esaterako)
- e) Bokaziozko orientabide prozesuak diseinatzea jarduera egokiek, ikasleen arteko berdintasuna sustatuz euren lanbide etorkizuna hautatzerakoan.

Orientabide Departamentua osatzen duten irakasle guztiek egiteko komunak dituzte taldekideak direnez; hala ere, bana-banan berriazko egitekoak egokitu dakizkieke.

Orientatzaileek honako egiteko hauek izango dituzte:

- a) Ikastetxeko Orientabide Plana eta Tutoretza Plana egitea, zuzendaritza taldearen ikuskaritzapean.
- b) Aholkuak ematea eta koordinatzea irakasleak tutoretza lanetan, tutoreekin jardunez taldean zein banaka. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako tutoreekin orientabide lan sakonagoa egingo da, kurtso horretako ikasleei orientabide akademiko-profesionala ematekotan.
- c) Ikastetxeko batzorde pedagogikoarekin lankidetzak izatea, proposamenak eta jarduteko planak aurkeztuz departamentu didaktiko desberdinak eta irakasle taldeak koordinatzeko.

- d) Bilerak egitea aldian-aldian irakasle taldeekin, ikasteko prozesuen hobekuntzan parte hartzeko arlo desberdinetan.
- e) Taldeko tutorearekin eta irakasle taldeekin aztertzea ikasleek ikasteko dituzten zailtasunak eta aholkuak ematea hezkuntza indartzeko neurri eta, hala badagokio, curriculum egokitzapen egokienei buruz.
- f) Bere gain hartzea ikastetxek ikasleen orientabide pertsonal, akademiko eta lanekoa arreta pertsonalaren bidez.
- g) Ikastetxean sortu ahal diren jokabide eta elkarbizitza arazoei aurre hartu eta konponbidea ematen laguntzea.
- h) Bere espezialitatearekin zerikusia duten irakasgaiak ematea, hala behar izanez gero.
- i) Curriculum anitzeko gelen, zereginen ikaskuntzarako gelen eta hezkuntza premia bereziko ikasleei arreta emateko gelen jarraipena egitea.

IX. ERANSKINA

DEPARTAMENTU DIDAKTIKOEN FUNTZIOAK

(2009/10 ikasturteko hasierako ebazpena)

Sail Didaktikoei dagokie ondoko zereginak betetzea:

- a) Espezialitateak berezkoak dituen arlo edo jakintzagaien programazioa lantzea, curriculuma zehaztuz eta zikloka eta ikasturteka banatuz, hala nola ebaluazio-irizpideak zehaztuz.
- b) Sail bakoitzak bere espezialitatearekin lortutako aukerakotasun-espazioko jakintzagaiak proposatzea.
- c) Nahikotasun-probak, proba gehigarriak eta apartekoak lantzea eta kalifikazioei buruzko erreklamazioei erantzutea.
- d) Bere espezialitatearekin zerikusia duten prestakuntza edo berrikuntzarako proiektuak edo bitartekoak lantzeko proiektuak proposatzea.
- e) Emaidza akademikoak eta programaketak betetze-maila aztertzea eta baloratzea.

Saileko buruaren ardura da Sailaren funtzionamendua, eta honelakoak dira bere lanak:

- a) Sailaren lana zuzentzea eta koordinatzea
- b) Bilerak antolatzea, prestatzea eta zuzentzea
- c) Programaketaren edukiak eta gutxienezko eskakizun-maila bete daitezen arduratzea, ohiko bideetatik kurtsoa gainditu ez duten guztientzako nahikotasun-froga berdina segurtatuz.
- d) Silak eginik nahikotasun-frogen eta froga gehigarri eta apartekoen kalifikapenak ikustatzea.
- e) Sailkideen lanak banatzea.
- f) Ikasketa-buruarekin komunikatzea, Sailaren jarduerak ikastetxeko beste jarduera batzuekin koordinatzeko eta aurreikusitako lan-egitasmoaren garapenari buruzko edo Sailean ikusitako edozein anomaliari buruzko informazioa emateko.
- g) Bileretako agiriak egiten direla bermatzea
- h) Ikastetxeko AJAk zehaztu dituenak.

X. ERANSKINA

TUTOREEN EGINKIZUNAK

(2009/10 ikasturteko hasierako ebazpena)

Tutore bakoitzak bere taldeko ikasleak orientatu eta talde horri eskolak ematen dizkioten irakasleak koordinatu behar ditu, bai eta ikasleen familiei guztiaren berri eman ere. Zehazki, honako zeregin hauek beteko ditu:

- a) Bere ikasle-taldeari egokitzen zaizkion irakasleak koordinatzea, bai programazio eta ebaluazioari dagokionean, bai irakatsi eta ikasteko prozesuan zehar ematen diren banakako nahiz orotarako egoerak aztertzeko unean ere. Tutoreek ikasturtean zehar, ebaluazio-bileretatik kanpo hiru bilera bederen eduki behar dituzte bere taldeko irakasleekin. Tutoreak bilera hauen berri ikasketa-buruari emango dio eta bilera horien deialdia egingo du.
- b) Ikasleak orientatzea, alderdi pertsonal, akademiko eta profesionalean; beharrezkoa zaionean, ikastetxeko eta inguruetakoko orientazio-zerbitzuen laguntza jasoz.
- c) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapa amaituta, eta irakasle-taldearen informazioa jaso ondoren, orientazio-aholkuak idatzi beharko ditu.
- d) Ikasleei eta hauen gurasoei eskolako jardueri buruzko informazioa ematea. Honek ez du kaltetuko, gurasoek zuzenean irakasleengana edo eta ikastetxeko gobernu organoetara jotzeko duten eskubidea. Ikastetxeak esango die familiei dagokien tutoreen asteko bisita-ordutegia.
- e) Ebaluazio-bilerak koordinatzea, ikasleen notak ipini eta beraiei ematea, jakintzagaien estatistikak eta ikasketa-buruak eskatutako datuak eta bere tutoretza-lanari dagozkion ikasleen dokumentazioa betetzea.
- f) Beren taldeko/ikasgelako ikasleek galdutako eskola-orduen jarraipena egitea, eta falta horiek ikastetxeko ikasketa-buruari eta familiei jakinaraztea.
- g) Eginkizun hauek ezarriz edo garatuz ikastetxeko Antolamendu eta Jarduera Araudiak esleitzen dizkion gainontzekoak.

XI. ERANSKINA

EGOKITZAPENEN KOORDINAZIO TALDEAK ETA LAGUNTZA-IRAKASLEAK

Egokitzapenen koordinazio taldea Hezkuntza Premia Bereziak (HPB) dituzten ikasleen ikaskuntza-irakaskuntzari buruzko prozesuaz hitz egiteko, proposamenak egiteko eta zenbait erabaki hartzeko DBHko 1.go eta 2. mailako zenbait irakaslek osatzen dituzten lan taldeak dira

Honako kide hauek **osatuko** dute:

Mailako tutoreek, arlo instrumentaletako irakasleek, laguntza gelako irakasleak, PIII/HBEH programako irakasleak eta orientatzaileak.

Arduraduna, orientatzailea da.

Funtzionamendua:

Gutxienez, 3 astean behin egingo dira bilerak

Zuzendaritzak hiruhileko bakoitzean prestatzen duen bileren egitasmoan sartuko ditu. Arduraduna, aldez aurretik saiatuko da gai-ordena partaideei pasatzen, jorratuko diren gaiak ezagutu ditzaten.

Lantzen ari den gaiarekiko gogoeta egin ondoren, ahaleginak egingo dira proposamenak aho batez hartzeko eta iritzi komunetara iristeko.

Arduradunak bileren akta egingo du eta ikasketa-buruari eta maila osoko irakasle guztiei igorriko die. Hurrengo bileran, 1.go puntua aurreko bileraren aktaren onarpena izango da.

Taldearen zereginak:

- a) Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen aurre-ebaluazioa egin eta baloratu.
- b) Ikasleen egokitzapenei buruzko informazioa eman, landu eta proposamenak prestatu, irakasle-taldeak erabakiak har ditzan.
- c) Kasu-kasu aztertuz, eman behar den erantzuna prestatu (indartze-neurriak, CNEak ...) eta hauen diseinuan parte hartu
- d) H.P.B.ak dituzten ikasleen laguntzaz, eta eskainiko zaizkien saioez hausnartu eta proposamenak egin (zein arlotan, zenbat saiotan, talde txikian, bakarka, gela arruntan, laguntzako gelan,.....).
- e) H.P.B. dituzten ikasleen jarraipena eta ebaluaziorako irizpideak zehaztu.

Laguntza gelako irakaslea tutoreekin, arloko irakasleekin, eskolako beste laguntzako irakasleekin (beste PTE, PIEE; HIPI, ...), hezitzailearekin, orientatzailearekin eta kanpoko zenbait erakundeekin elkar-lanean, H.P.B.ak definiturik dituzten ikasleen indartzeaz arduratzen den irakaslea da.

Irakaslearen zereginak:

- a) Tutore eta beste irakasleekin batera, H.P.B.ak dituzten ikasleen haserako ebaluaketan parte hartu.
- b) H.P.B.ak dituzten ikasleen jarraipena egiteko prozesuan zerikusirik izan dezaketen kanpoko erakundeekin edo espezialistekin, tutore eta orientatzailearekin batera, harremanak mantendu, informazioa jaso, aholkularitza eskatu, eta koordinatu:
- c) Berritzeguneko teknikariekin
- d) Gizarte laguntzaileekin
- e) Kale hezitzaileekin
- f) Osasun mentaleko profesionalekin
- g) Logopeda, fisio, terapeutarekin (baliabide zehatzak direla eta....)
- h) Orientatzailearekin batera, L.H.ko ikastetxeetako tutoreekin eta laguntzako irakasleekin hitz egin eta Orixera etorriko diren ikasleen informazio esanguratsua jaso (H.P.B.ak, indartze neurriak, portaera arazoak....)
- i) Behar denean, eta tutore eta orientatzailearekin elkarlanean, ikasleen aurreko kurtso edo eskolako irakasleekin hitz egin eta informazioa jaso.
- j) Kasu-kasu aztertuz, gainontzeko hezkuntza eragileekin batera, eman behar den erantzuna CNEko bileretako erabakietan (indartze-neurriak, CNEak ...) eta hauen diseinuan parte hartu.
- k) Laguntza gelarako interesgarriak edota beharrezkoak izan daitezkeen baliabideen aurrekontua egin, eskuratzen saiatu eta, behin lortuz gero, horietaz arduratu..
- l) CNEa duten ikasleei jarraipen zuzena egin, "2. tutore" moduan (agenda eta lanen jarraipena, beraiekin elkarrizketak, animatzen eta motibatzen saiatu, e.a.)
- m) Behar den kasuetan, eta tutoreak eskatuta, gurasoekin bildu, esanguratsua den informazioa elkartrukatzeko eta ebaluazioaren berri emateko.
- n) CNE bileretan erabakitako laguntza mota ikasleei eskaini, gela arruntean edo laguntzako gelan.
- o) CNE taldean, H.P.B.ak dituzten ikasleen jarraipen eta balorazio saioetan parte hartu.
- p) Ebaluazio saioetan parte hartu, H.P.B.ak dituzten ikasleen egokitzapenetan definitutako ebaluazio-irizpideak kontuan izanik.
- q) Orientabide departamentuan, dagokigun neurrian, parte hartu
- r) Bi PTEen arteko koordinazioa aurrera eraman. Heziketa Bereziko laguntzailearekin koordinatu

XII. ERANSKINA

PARTAIEDETZAKO BESTE ORGANOAK

EUSKARA BATZORDEA

Sei irakasle eta DBH2. mailatik goragoko zortzi ikaslek osatuko dute batzordea.

Ikasturte hasieran deialdi ireki baten bitartez egiten da batzordearen berritzea. Batxilerreko 2.mailako ikasleak eskolatik irtengo direnez, arau orokorra izango da DBH 3.mailakoei deitzea batzordean parte har dezaten.

Batzordeko kideak hilean behin asteazkenetan jolas orduan biltzen dira normalkuntza gelan.

Batzordearen zeregina, nagusiki, ekintzak antolatzea ahalik eta ikasle eta irakasle gehienek parte har dezaten da.

Helburuak:

- Euskal giroa sortzea
- Euskararen erabilera areagotu eta ez dakitenekin ezagutza lantzea.
- Hizkuntz jarrera positiboak indartuko dituzten ekimenetan parte hartzea bultzatzea
- Euskaldunak bere ama-hizkuntzaz harro sentiaraztea eta euskaldun berriak euskara ikasteko egin duten esfortzuarekin pozik egotea.
- Euskararen normalizazioan irakasleok dugun garrantziaz jabetzea eta helburuak eta norberaren inplikazioak argi izatea.

INGURUMEN BATZORDEA

Lan egiten da Herri mailan eta ikastetxe mailan ondorengo helburuak lortu nahian:

- Agenda 21ak dituen helburuak ikastetxean ezagutaraztea.
- Herri mailan ingurugiroarekin erlazionatuta antolatzen diren ekintzetan ikastetxeak parte hartzea.
- Naturarekiko errespetuzko jarrerak bultzatzea.
- Ikasleek erabakietan parte hartzea, ikastetxe mailan nahiz herrian.

Lana alor desberdinetatik bideratzen da eta isla izan behar du komunitatearen partaidetzan, Ikastetxeko kudeaketan eta curriculumaren lanketan.

Eraketa eta funtzionamendua:

Urtero ikasturte hasieran batzordea osatzen da. Irakasle aldetik funtsean Natur Zientziatakoak hartzen dute parte eta ikasle aldetik gelako ordezkari bat.

Herri mailan foro bat dago osatuta eta gutxi gorabehera hilean behin biltzen da. Bilera hauek Zuloaga Txiki ingurumen eskolako kideek bideratzen dituzte.

Lehen hilabetetan diagnosis egiteko inkestak, lanak,... prestatzen dituzte maila guztietan eta ondoren ikastetxe bakoitzak aukeratu egiten du horietako zeinetan parte hartu. Ikastetxeek askatasun osoa dute zer landu behar duten aukera egiteko.

Ondoren, ikastetxean lana banatu egiten da mailaz edo gelaz, eta lortutako emaitzak bateratu egiten dira.

Udaberri aldera ikastetxe guztiok emaitzak Zuloaga txikira bidaltzen ditugu. Segidan ikasleen foroa egiten da, non ikastetxe bakoitzetik ikasle talde bat biltzen den. Gaika taldekatzen dira eta azken bateratzea egiten dute, betiere hiru puntutan zentratuta: ondorioak (emaitzak), eskariak eta konpromisoak.

Azkenik, udaletxean (batzutan pleno batean) alkateari eta beste zinegotziei ikasturteko lana aurkezten zaie. Epe batera alkateak erantzuna ematen du eta ikastetxean berriro aztertzen da.

Ikasturte bukaeran azken balorazioa egiten dugu eta hurrengo urteko gaia erabaki.

Ikastetxean, gai bera izanik, horren inguruan egin daitekeena aztertzen dugu. Batzutan leku fisikoak, materialak,... eta beti kudeaketaren ingurukoak aztertzen dira. Horretarako Ingurumen batzordea aldizka biltzen gara. Ez dugu maiztasun finkorik, beharra ikusten dugunean (herriko ekintzak direla edo ikastetxe bertakoak) deia egin eta biltzen gara. Kurtso hasieran gutxiago eta kurtso erditik aurrera maizago (emaitzak jaso, bateratu, erabakiak hartu,... egin behar diren neurrian). Bileran ordezkari bakoitzari informazioa pasatzen zaio gelan azaldu eta kortxoan jartzeko. Gainera, bilerako txostena ikastetxeko 4-5 puntutan jartzen da guztiek ikusteko moduan.

Gaia edozein dela eta, saiatzen gara eten gabekoak diren lanak (berziklaketa, paper,...) bideratzen eta zuzentzen.

Kasu honetan ere kurtso amaieran zuzendariari eskariak eta konpromisoak aurkezten zaizkio eta egin daitezkeenak aztertzen.

Azken saioan balorazioa egiten da eta hobetu daitezkeenak aztertu.

Ikasle ordezkariak ingurumen batzordeko informazioa gelan zabaltzeko unerik izan behar dute.

IKT Batzordea

2007-2008 ikasturtean Hezkuntza Sailak "IKT ikastetxe eredu" izeneko programa martxan jarri zuen. Orixe Institutuan erabaki zen programa horretan parte hartzea eta horrela eskatu genuen, eta Hezkuntza Sailak gure proiektua onartu zuen.

Programa horren barruan ikastetxeko "IKT Batzordea" martxan jartzea derrigorrezko baldintza bat zen eta guk horri jarraituz ikasturte horretatik aurrera Orixe Institutuko IKT Batzordea martxan jarri genuen.

IKT Batzordea ikastetxeko IKT planaren talde koordinatzailea izan behar zen.

Helburuak

- Orixe Institutuko IKT planaren koordinazioa
- Institutuko IKT azpiegituren analisia eta hauen garapenerako proposamenak egitea.
- IKT baliabideen erabilera didaktikoaren azterketa, praktika onak ezagutzera ematea eta erabilera berrien proposamena egitea.

Partaideak

Batzorde hau honako hauek osatzen dute:

- Institutuko IKT koordinatzailea (Zuzendaritzak proposatutako pertsona).
 - Honek Batzordeko koordinazio lanak egingo ditu: Bilerak konbokatu, koordinatu eta aktak idatzi; IKT prestakuntza antolatu; IKT baliabideen koordinazioa eta mantenuaren koordinazioa (gelak, arbela digitalak, bideo proiektoreak, plataforma didaktikoa); Praktika onen difusioa; etab.
- Zuzendaritzako kide bat (Ikasketaburua edo honek proposatzen duena) zuzendaritzaren ordezkari gisa.
- Premia arduraduna edo IKT azpiegituren arduraduna. Hau informatika irakaslea izango da eta Hardwarearen mantenuaz arduratuko da.
- Departamentu didaktikoen ordezkari bana: Departamentu didaktikoen ikasturte hasieran proposatuko dute zein izango da bere ordezkaria batzordean. IKTak gehien erabiltzen direnen artean aukeratuta izan behar da.

Funtzioak

Batzorde honetan honako lan hauek egingo dira:

- Institutuko **IKT diagnostikoa** egitea. Hau IKT dinamizatzailea egingo du eta Batzordean aztertu ondoren txostena osatuko da.
- Institutuko **IKT erabileraren hobekuntza plana** egitea. Hobekuntza plana urteko ikastetxeko planean sartuko da.
- Ikasturtean zehar egingo den **IKT prestakuntza** proposatzea.
- Departamentuetako **Programazioetan IKTen tratamendua** aztertzea eta hobekuntzarako proposamenak egitea.
- **IKTen erabilera didaktikoa aztertzea eta hobekuntzarako** proposamenak egitea.
- **IKT azpiegitura-baliabideak** hobetzeko proposamenak egitea.
- **Dinamizatzaileak eginiko IKT ikasturteko memoria** aztertzea eta lehen onarpena ematea.

XIII. ERANSKINA

201/2008 DEKRETUA, abenduaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa.

**Aldizkari honetan argitaratua: 2008240 zk.- 2008/12/16 
Xedapenaren lehenengo orria: 30936 **

160/1994 Dekretua, apirilaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa, ikastetxeetan baliatu den bizikidetza-araua izan da promulgatu zenetik, Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legearen 15. artikuluan xedatutakoa betez.

Lege horren 31. artikulua betez, Ordezkaritza Organo Gorenari edo Eskola Kontseiluari zegokion falta larriengatiko eta oso larriengatiko diziplinazko neurriak ezartzeko eskumena. Zuzendariari, bere aldetik, aipatu berri ditugun organoek ezarritako zigorrak aplikatzea zegokion. Euskadiko Eskola Publikoaren Legea bigarreneneko aldatzen duen ekainaren 13ko 3/2008 Legeak 31. eta 34. artikulua aldatu dituenez, apirilaren 19ko 160/1994 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa berri beharra dago, bizikidetza eta diziplina kontuetan ikastetxeetako gobernu-erakundeetako eskumenen erregimen berriari egokitze aldera.

Bestalde, lege horien aplikazio-eremua den gizarte- eta eskola-arloko errealitatea ere aldatu egin da lege horiek promulgatu zirenetik. Maila bereko ikasleen arteko tratatu txarreko egoerak gertatzen dira eta irakasleek erasoak jasotzen dituzte. Egoera horiek ez dira berriak, baina lehen baino oihartzun handiagoa dute gizartean, eta, ikastetxeetako bizikidetzari dagokionez, eragin handia dute. Teknologia berrien —hala Interneten nola eta telefonia mugikorraren— sorrerak eragina izan du eskola-jardueran; izan ere, ikasleek ez dituzte egoki erabiltzen eta, batzuetan, horrek ohiko eskola-jarduna oztopatzen du, baita ikasleen irudi pertsonala eta ohorea kaltetu ere. Hori guztiagatik, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko 160/1994 Dekretuaren derrigorrez aldatu beharra aprobetxatu behar dugu, mintzagai dugun dekretua behar berriak asetzeko gai izan dadin eta, hezkuntzaren aldetik, eraginkorragoa.

Dekretu berri honen helburua, beraz, honako hau da: ikasleek beren eskubideak baliatzen eta beren betebeharrak betetzen ikasi behar duten bizikidetza-esparrua arautzea, gizartean eskubide osoko herritar gisa integra daitezen. Alde batetik, bizikidetza positiboki bultzatzean datza, ikastetxeek beren hezkuntza-proiektuetan gaineratu behar dituzten planekin bat etorriz. Bestetik, aurreko Dekretuan arautu den faltak zuzentzeko prozesua «gizarte eta hiritar gaitasuna» eskuratzeko funtsezko tresna bilakatzea lortu nahi da. Aipatu berri dugun gaitasuna, bidenabar, eskolako curriculumek dakarten oinarrizko gaitasunetako bat da. Izan ere, jakina da ikasleek bestelako oinarrizko gaitasunetan hainbat gabezia izan ditzaketela hezkuntza-sistemaren maila batetik bestera igarotzen direnean, eta ikastetxeak gabezia horiek kontuan hartu behar dituztela, zuzentzeko. Era berean, jokabide-arloan gabeziak izan ditzakete, eta gabezia horiek helburu berarekin, espiritu berarekin eta, ahal dela, metodo berarekin zuzendu behar dira, hain zuzen ere, jokabide-arloan atzemandako gabeziei modurik egokienean erantzuteko jardueren bitartez.

Dekretuaren egiturari dagokionez, Atariko Kapituluaren honako hauek garatzen dira: Dekretuaren xedea, aplikazio-eremua eta dekretuak oinarritzat dituen printzipio orokorrak. «Jokabide desegokia», «ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabidea» eta «bizikidetza horri kalte larria eragiten dion jokabidea» terminoak erabiltzen dira honako hauek desberdintzeko: ikasleak dagokion betebeharra urratu besterik egin ez duen edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideek beren eskubideak baliatzeko eta beren betebeharrak betetzeko aukera oztopatu duen. Azken kasu horretan, bizikidetza horri kalte larria eragiten dion jokabidea ere bereizten da.

I. kapituluak ikasleen eskubideak eta betebeharrak ezartzen ditu, Hezkuntza-arloan Estatuko oinarrizko legediak aitortzen dituen eskubideak garatzen dituztenez gain, Haurrak eta Nerabeak Zaindu eta Babesteari buruzko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak aitortzen dituen eskubideak gaineratuz. Lehen atalean, artikulua bat eskaintzen zaio eskubide bakoitzari. Lehendabiziko paragrafoan Kapituluaren oinarrizko edukia zein den aipatu da. Gainerako paragrafoetan, aldiz, zatikako alderdiak zehaztu edo ikastetxeei hainbat arau ematen zaizkie aipatu berri ditugun alderdiak egoki bete bitez. Kapitulu bigarren atalean, halaber, esaldi orokorraren ondoren, betebeharren zatiko alderdiak zehaztu dira.

II. kapituluaren, hortaz, zuzendu beharreko jokabideak zein diren zehaztu da, baita jokabide horiek zuzentzeko balizko neurriak aipatu ere. Kapitulu horren bigarren atalean, alderdi orokorreari buruzko atalaren ondotik, eginbeharrak ez betetzea zuzendu beharreko jokabide bezala hartzen da. Horrez gain, honakoa izango da hauste horien larritasuna zehazteko funtsezko irizpidea: hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak betetzea galarazten edo oztopatzen dieten guztiak. Jokabide guztietan larrienak eskubide

horien kontra zuzenean eraso egiten dutenak dira. Aipatu berri dugun irizpidea, nolana ere, ez da balia daitekeen bakarra.

Kapitulu horren 3. atala aplikatu beharreko neurri zuzentzaileei buruzkoa da, eta zeregin edo lan hezigarriak egitea proposatzen du, betiere zuzendu beharreko jokabide motari loturik. Eskubideak etetea dakarten neurriak bigarren mailan utzi dira, aurreko neurriak eraginkorrak ez direnean aplikatzeko. Dena den, kasu jakin batzuetarako, hala nola jazarpen sexistaren, berdinen arteko tratatu txarraren eta irakasleen aurkako eraso kasuetarako, baita hezkuntza-komunitateko beste kide batzuen aurkako eraso bereziki larrien kasuetarako ere, ikastetxez berehala aldatzeko aukera nabarmen azkartzen da.

III. eta IV. kapituluetan, Euskal Eskola Publikoen bigarren aldaketari buruzko 3/2008 Legeak, ekainaren 13koak ezarri dituen aldaketak ageri dira. Ikastetxeko zuzendariak bizikidetzaren bermatu behar du. Horretarako, beharrezkoak diren zuzentze-neurriak aplikatu beharko ditu. Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak, bere aldetik, zuzendariek hartutako erabakien berri izan behar dute eta, egoki bada, zuzendariek hartutako erabakiak berrikusi ditzakete.

Kapitulu horiek dira aurreko Dekretuaren aldean aldaketa gehien biltzen dituztenak. Dekretuak ikasleei arbitrariotasunik gabeko diziplina-tratamendua bermatzeko helburua du, eta helburu horri eutsiko zaio, Euskal Eskola Publikoaren Legeak agintzen duenaren arabera, beharrezko prozedura-bermeekin eta legezketasunaren, tipikotasunaren eta aldebiko entzunaldiaren printzipioekiko errespetu osoarekin. Aldi berean, prozedura horretara jo beharrik ez izateko beste bide batzuk ere jasotzen dira eta III. kapitulu osoa zuzendu da bide horiek jasotzera. Izan ere, saihestu nahi da jokabidea zuzentzeko hezkuntza-prozesua ikastetxearen eta ikaslearen arteko gatazka juridikoan amai dezakeen administrazioko edo zigor-arloko zehapen-prozedurara jotzea. Horren bitartez, bereziki, zuzentzeko edozein neurri hezkuntza-balioari eustea lortu nahi da, arestian adierazi bezala, oinarritzko gaitasun batzuk lortzearren.

Hortaz, adierazitako bermeei eutsiz, prozedurak nabarmen azkartzen dira, batez ere ohiko prozedura gisa proposatzen dena, betiere izaera hezigarriagoa emateko asmoz. Aurreko Dekretuan erabiltzen zen «zehapen» terminoa kendu egin da eta, horren ordez, «zuzenketa» edo «neurri zuzentzailea» erabiltzen da; izan ere, bizikidetzarauekin bat ez datozen ikasleen jokabideei aurre egiteko legeko aukera ez da Administrazioak zehapenak ezartzeko duen ahalmen bera ikastetxeei gagozkiela. Alabaina, eginkizun hezigarriak berak dakar ikasleen jokabide desegokiak zuzentzeko eta jokabide egokirako jarraibideak emateko beharra. Horregatik, oro har, jokabide horiek zuzentzeko prozedura ikastetxearen eta ikaslearen artean ezartzen da, beste edozein jarduera balitz bezala, eta ez da nahitaezkoa gurasoek edo legeko ordezkariak zer esateko duten

aldez aurretik entzutea, salbu eta aplikatu beharreko neurriek zuzenean familia-eremuan eragina izan behar badute.

Zentzu horretan, laburtu egingo dira jokabideak eta zuzentze-neurriak ezartzeko epe finkoak, eskola-egunetan finkaturikoak, ez baita oso logikoa prozedura bati ekitea edo neurri jakin bat aplikatzea hezkuntzan, dagoeneko, eraginkortasunik ez duenean.

Era berean, xedatu egin da ikasleen jokabide zuzenduei buruzko erregistro guztiak nahiz ezarri egin diren zuzentze-neurri guztiak, behin hezkuntza-xedea beteta, erraz ezabatu daitezkeen euskarrietan jasotzea. Aipatu beharra dago epeak termino akademikoetan zehaztu direla, ez administrazioko terminoetan. Era berean, jokabide ezegokiei nahiz neurri zuzentzailei buruzko erregistroak ofizioz ezabatzea ezarri da.

Halaber, helburu hezigarria sustatzeko, lehentasuna ematen zaio bizikidetzeta-gatazkak konpontzeko adiskidetzearen eta kaltea konpontzearen mekanismoak baliatzeari; izan ere, hezkuntzari dagokionez, honako neurri hauek hezigarriagoak dira: arau-hausleak edo haren gurasoek edo legezko ordezkariak jokabidea desegokia izan dela onartzea, ofendituari barkamena eskatzea, eta kalteak konpontzea, kalteak konpontzeko neurrien artean eragindako kalteen zenbatekoa ordaintzea barne.

Neurrien izaera hezigarria sustatzeko mekanismoen barnean, familia-ingurunea neurri zuzentzaileak betetzeari lotzeko aukera biltzen da. Hainbat zirkunstantzia tarteko bide hori baliatzea ikastetxeentzat batzuetan zaila izango dela jakinda ere, komenigarritzat har daiteke aukera hori zabalik uztea; izan ere, besteak beste, gurasoek edo legezko ordezkariak seme-alaben hezkuntzan duten erantzukizuna errespetatzeko helburuz ezarri da aukera hori. Horregatik, jokabideak familia-ingurunean zuzentzen badira ikastetxean neurri zuzentzaileak etetea ahalbidetzeaz gain, bizikidetzako hezkuntza-konpromisoak sinatzeko aukera ematen da, familiei dagozkien jardun zehatzak biltzeko.

Halaber, ez da ahaztu behar batzuetan ikasleen jokabideak larritasun handiagokoak izan daitezkeela. Zenbait kasutan, jokabide horiek delituak edo zigor-arloan zigortzeko moduko hutsegiteak izango lirateke ikasleak adin nagusikoak izango balira. Baina, kasu horietan ere, ikastetxearen jardunak hezkuntza-izaerari eutsi behar dio. 5/2000 Lege Organikoan, urtarrilaren 12koa, Adingabeen Erantzukizun Penal arautzen duenean, xedatutakoa betez gertakizunen berri fiskaltzari ematen zaionean ere, ikastetxeen barnean jokabideak modu hezigarrian zuzendu behar dira, betiere kontuan izanik arauak hautsi dituztenak prestakuntza-prozesuan dauden herritarrak direla, oinarrizko gaitasun jakin batzuetan gabeziak dituztenak, hala nola gizarte- eta herritartasun-arloko gaitasunean, eta gabezia horiek konpontzeko neurri zuzentzaileak aplikatu behar direla.

Nolanahi ere, lehentasuna emango zaie adiskidetzeko eta kalteak konpontzeko prozedurei. Dena den, egoerak beste ikasleei eskubidez dagozkien babes-neurriak hartzea eskatzen badu, Dekretu honetan bildutako artetik, ikastetxeak hartarako egokienak aplikatu beharko ditu, ikastetxez aldatzeko proposamena barne.

Horri jarraiki, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak proposatuta, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean aurreikusiriko izapideak egin ondoren, Euskadiko Hezkuntza Kontseiluari eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari entzun ondoren, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2008ko abenduaren 2an egindako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

ATARIKO KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Xedea eta ezarpen-eremua.

1.- Dekretu honen xedea ikastetxeetako bizikidetzeta-esparrua arautzea da, legeek hezkuntza-jarduerari atxikitzen dizkioten helburuei jarraiki ikasleek gizarte demokratiko, plural, tolerante eta berdintasunean oinarrituan elkarrekin bizitzen ikas dezaten, dagozkien betebeharrak betez, Dekretuan arautzen diren eskubideak baliatuz eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak errespetatuz.

2.- Dekretu hau unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak ematen dituzten eta guztiz ala partzialki fondo publikoekin finantzatzen diren EAEko ikastetxe guztietako ikasleei aplikatuko zaie.

2. artikulua.- Eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko printzipio orokorrak.

1.- Ikasle guztiek eskubide eta betebeharrak berberak dituzte. Eta beren adinaren eta egiten dituzten ikasketen mailaren arabera baliatuko dituzte eskubide eta betebeharrak horiek.

2.- Ikasleek beren eskubideak baliatuko dituzte, beren betebeharrak betetzea eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak aintzat hartu eta errespetatzea bazter utzi gabe.

3.- Hezkuntza-komunitateko kide guztiek, ikasleei dagokienez, Dekretu honetan bildu diren eskubideak errespetatu behar dituzte. Beste guztien eskubideen errespetua izango da ikasleentzako muga beren eskubideez baliatzerakoan.

4.- Ikastetxeetako gobernu-organismoek eta irakasleek ikasleen eskubideak egoki baliatzen direla eta betebeharrak zorrotz betetzen direla bermatuko dute, Dekretu honetan aurreikusitakoari jarraiki.

3. artikulua.- Printzipio orokorrak ikasleek beren betebeharrak ez betetzean izandako jokabideak zuzentzeko.

1.- Ikasleen betebeharrak ez betetzea beti hartuko da, gutxienez, jokabide desegokitzat. Ez-betetze horrek hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzea eta betebeharrak betetzea eragozten dien neurrian, ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabidetzat edo bizikidetzat horri kalte larria eragiten dion jokabidetzat hartuko da.

2.- Ikasleen betebeharrak ez betetzeko jokabide guztiak lehenbailehen zuzendu beharko dira, zuzendu beharreko jokabidearekin lotutako neurrien bitartez.

3.- Neurri zuzentzaileek helburu hezigarria izango dute, batez ere, hala zuzendu behar den jokabidea egin duen ikaslearentzat, nola gainerako ikasleentzat. Neurri zuzentzaileak hezkuntza-jardunaren baitan beteko dira, hainbat arlotako oinarrizko gaitasunak lortzen laguntzeko, hala nola gizarte- eta herritartasun-arlokoak nahiz autonomia eta ekimen pertsonalaren arlokoak.

4.- Neurri zuzentzaileak proportzionaltasunaren eta gutxieneko esku-hartzearen printzipioak kontuan izanda ezarriko dira, eta adiskidetzaren eta kalte-ordainaren bidez irtenbidea lortzeari emango zaio lehentasuna, betiere ahal den hezkuntza-eraginkortasunik handiena lortzearren.

4. artikulua.- Dekretu honek tipifikatu gabeko jokabideei neurri zuzentzaileak aplikatzeko debekua.

1.- Ezein ikasleri ez zaio neurri zuzentzailerik aplikatuko Dekretu honetan ezarritakoaren arabera jokabide desegoki gisa, ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabide gisa edo ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabide gisa definituta ez dauden egite edo ez-egiteengatik.

2.- Ikasturte bakoitzaren hasieran hezkuntza-komunitate osoak zer jokabide zuzenduko diren jakin dezan, ikastetxeek Dekretu honen edukia nahiz ikastetxearen Antolakuntza eta Jarduera Araudian edo Barne Araudian bildutako bizikidetzatza-arauak ezagutzera eman edo gogoraraziko dizkiete irakasleei, ikasleei eta haien guraso edo legezko ordezkariari, hartarako komenigarrien deritzoten prozeduraren bidez.

5. artikulua.- Bizikidetzatza-planak ikastetxeen barruko bizitza arautzean.

1.- Jokabideak zuzentzeko prozedurak ikastetxeen praktikan integratu beharko dira hezkuntzako beste baliabide bat izango balira bezala. Funtz publikoek osorik edo parte batean sostengatzen dituzten ikastetxeetako bizikidetzarako planetan jasota behar du jokabideak zuzentzeko prozedurak. Ikastetxe horiek, Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa sailak xedatutakoarekin bat, Bizikidetzarako planak onetsi behar dituzte Hezkuntzako beren proiektuen parte gisa.

2.- Bizikidetzatza-plan horrek berdinen artean, generoen artean eta kulturen artean bizikidetzarako funtsezko oinarritzat hartuko du

norberaren eskubideak baliatzea eta besteen eskubideak errespetatzea, baita irakasleen, ikasleen eta irakasleak ez diren langileen arteko harremanetarako ere. Agiri horretan, gatazkak modu baketsuan ebazteko, adiskidetzeko eta kaltea ordaintzeko bitartekotza-prozedurak jaso beharko dira, baita bizikidetzarako hezkuntza-konpromisoak hartzeko zuzentarauak eta ikastetxean bizikidetzaren behatokia antolatzeko neurriak ere.

I. KAPITULUA

IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

1. ATALA

IKASLEEN ESKUBIDEAK

6. artikulua.- Hezkuntza integrala izateko eskubidea.

1.- Ikasleek beren nortasuna guztiz garatzeko aukera emango dien hezkuntza integrala jasotzeko eskubidea dute.

2.- Hezkuntza integral horretan, oinarrizko gaitasunak, zientziaren eta kulturaren arloko edukiak eta lan-ohitura intelektual eta teknikoak hartu ez ezik, garapen harmoniatsua ere bultzatuko da honako hauei dagokienez: afektibotasuna, autonomia pertsonala, autoestimua, besteekiko eta ingurunearekiko harremanak izateko gaitasuna, eta jarduera profesionaletan, intelektualetan nahiz aisiakoetan jarduteko gaikuntza. Prestakuntza horrek barnean hartzen du ikasleek euskal herriko kide gisa beren kultura-nortasuna aurkitzea eta derrigorrezko irakaskuntza amaitu ondoren bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko gai izatea.

3.- Ikastetxeetako hezkuntza eta curriculum proiektuak helburu horretara bideratuko dira, betiere, legeek hezkuntzari esleitzen dizkieten helburuen barnean. Hain zuzen ere, proiektu horietan 3/2005 Legearen —otsailaren 18koa, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babestekoaren— 24.2 artikuluan adierazitako alderdiak bilduko dira, baita 4/2005 legearen —otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunari buruzkoaren— 29. artikuluan adierazitakoak ere. Era berean, programazioek eta irakasleen lan orok kontuan izango dituzte alderdi horiek, eta irakasleen aginpideak bermatuko duen lan-giroan garatu beharko da, eskola-jardueren barnean nahiz eskolatik kanpokoetan eta osagarrietan, eta irakasle guztien laguntzarekin.

7. artikulua.- Ikasle adingabeen eskubidea arreta berehala jasotzeko.

1.- Ikasle adingabeek ikastetxeen nahiz irakasleen arreta berehala jasotzeko eskubidea dute.

2.- Arreta hori zuzenean eskainiko da eskumen-eremuari hala badagokio. Ez badagokio, aitzitik, erakunde edo zerbitzu eskumendunari kasua helaraziko zaio. Era berean, gurasoei, adingabearen tutoreari edo, beharrezkoa balitz, Fiskaltzari gertakarien berri emango zaie berehala.

3.- Ikastetxeak eta bertako irakasleak, ikasleei behar duten arreta berehala ematea bazter utzi gabe, behartuta daude tratu txarrak edo haurren babesik gabeko edo arriskuko egoeren berri ematera adingabeen babesari buruzko eskumena duten Herri Administrazioei, edo, beharrezkoa denean, Fiskaltzari edo Agintaritza Judizialari. Eskuhartzeen kalitatea eta eraginkortasuna bermatzeko beharrezkoak diren adina datu eta informazioen berri eman beharko dute, eta aipatutako Administrazioei laguntza eman beharko diete egoera horiek saihestu eta konpontzeko.

4.- Hala ere, beti kontuan izan beharko dira adingabearen lehentasunezko interesak. Era berean, derrigorrezko eskolatze-adineko ikasleren bat eskolatu gabe dagoela edo ikasleren batek absentismo-maila handia duela atzematen bada, Hezkuntza-agintariei eta tokiko erakundeei jakinarazi beharko zaie, eskola-absentismoan inplikaturik dauden Administrazio eta Erakunde guztien arteko lankidetzak lortzearren. Nolanahi ere, behar den diskrezioz jardungo da, eta ikasle adingabearen bizitza pribatua sartzeari ez eutsi beharrezkoa ez bada.

5.- Emakumeen eta haurren aurkako indarkeria-zantzurik atzeman badute, irakasleak behartuta egongo dira zantzu horiek ikastetxeko gobernu-organoei jakinaraztera, Haurrak eta Nerabeak Zaindu eta Babesteari buruzko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen 25. artikuluan nahiz Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 31. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

8. artikulua.- Ikastetxeak babesteko ikasle adingabeek duten eskubidea.

1.- Ikasle adingabeek ikastetxeak haien ohorea, intimitatea eta irudi propioa babesteko eskubidea dute.

2.- Ikastetxeetako gobernu-organoei behar diren neurriak hartuko dituzte bereziki ikasleen ohorerako, intimitaterako eta irudi propioarako eskubideei inork eraso edo kalte egin ez diezaien, eta, horretarako, beren Antolakuntza eta Funtzionamendu Araudien barruan edo Barne Erregimenean teknologia berrien erabilera arautzeko eta horiek mugatzeko mekanismoak garatu ahalko dituzte.

3.- Ikastetxeetako gobernu-organoei zainduko dute ikasleen bizitza pribatua, familia, etxean edo postan ikastetxeko inor arrazoirik gabe edo legez kanpo ez dela sartzeko. Familiei, ikasleen bitartez, soilik ikastetxeko bizimoduari, irakaskuntza/ikaskuntzako jarduerari eta tutoretza-ekintzari buruzko jakinarazpenak, komunikazioak eta agiriak emango zaizkie, eta horiek guztiak honako hauek emango dituzte: administrazio-organoei, gobernu-organoei edo ikastetxeko koordinazio didaktikoak, beren funtzioen barruan, irakasleek eta gurasoen edo ikasleen legez eraturako elkarten ordezkariak.

4.- Ikastetxeetako gobernu-organoei, irakasleek nahiz administrazio- eta zerbitzu-entzako langileek beren lanbide-jardueraren

bidez ikasleei eta haien familiei buruz eskuratzen dituzten datu pribatu guztiak behar den diskrezioz erabiliko dituzte.

5.- Era berean, ikastetxeetako gobernu-organoek eragotziko dute ikasleei buruzko informazioa hedatzea edo haien irudia edo izena erabiltzea komunikabideetan, ikasleen intimitateari, duintasunari, ohoreari, ospeari edo legezko interesei kalterik egin ez diezaieten.

9. artikulua.- Errendimendu akademikoaren balioespen objektiboa izateko eskubidea.

1.- Ikasleek eskubidea dute beren dedikazioa, ahalegina eta errendimendua objektibotasunez aintzat hartu eta balioets diezaieten.

2.- Aipatu berri dugunaren berme gisa, beren antolakuntza- eta funtzionamendu-erregelamenduan edota barne-erregimeneko erregelamenduan, ikastetxeek hainbat gauza bermatuko dituzte: batetik, irakasle guztiek ebaluatzeko irizpideak, helburuak eta edukiak ezagutzen dituztela; eta, bestetik, ikasturte amaierako nahiz ikasturte bitarteko ebaluazio-saioen ondotik, ikasleei, haien gurasoei edo -adinez txiki direnean- legezko ordezkariari informazioa emango zaie. Era berean, hala eskatuz gero, azken kalifikazioaren gain eragina izango duten lanak, ariketak eta probak zuzendu ondotik ikusteko aukera bermatuko zaie. Horrela, bermatu egingo da aipatu probak berrikusteko eskubidea. Bermatuko da ere azken kalifikazioen kontrako barne-erreklamazio prozedura egotea. Prozedura hori betetzekoa da, egoki balitz, dagokion Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzara jo aurretik.

3.- Ikastetxeek ikasleak ikasturte osoan ebaluatzeko erabili diren proba, lan eta ariketa guztiak gordetzeko beharrezkoak diren neurriak ezarri beharko dituzte, ez-ohiko azken deialdiko kalifikazioak erreklamatzeko epea amaitu arte. Erreklamazioa egiten bada, aurkeztutako erreklamazioa ebazteko kontuan hartu beharko diren eta erreklamazioa egin duten ikasleei itzuli ez zaizkien zuzendutako ariketa eta lan guztiak nahiz gainerako ikasleenak gorde beharko dira konparaketa-oinarri gisa erabiltzeko, horiei buruzko administrazio-erabaki bat edo ekintza judizial bat egin daitekeen bitartean.

10. artikulua.- Eskola- eta lanbide-orientaziorako eskubidea.

1.- Ikasleek hezkuntza- eta lanbide-orientazioa jasotzeko eskubidea dute. Orientazioa ikasleen trebetasun, gaitasun, nahi eta interesetan oinarrituko da, eta sexuan edo bestelako zirkunstantziaren batean oinarritutakoak baztertu egingo dira.

2.- Eskubide horrek honako hauek hartzen ditu barnean:

a) Ikasleei, ikastetxean sartzen direnetik, hezkuntza-orientazioko zerbitzuak ematea, aukera egokiak eginez, ikasle bakoitzaren trebetasun, gaitasun, nahi eta interesetarako ikasketa-planik egokiena aukeratzeko, batez ere maila edo ziklo bakoitzaren amaieran.

b) Eskaintzen zaizkien aukerei buruzko aholkuak ematea ikasleei, enpleguaren egoerari eta aurreikuspenei buruzko informazioa kontuan hartuta. Horri dagokionez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko ikastetxeek harremanak izango dituzte beren inguruneko Erakunde eta enpresa publiko eta pribatuekin.

11. artikulua.- Osotasun, nortasun eta duintasun pertsonaleko eskubidea.

1.- Ikasleek beren osotasun fisikoa eta morala errespetatu diezaieten eskubidea dute, baita beren nortasun eta duintasun pertsonala ere, eta ez zaie inoiz tratatu iraingarri edo laidogarria emango. Era berean, zeinahi eraso fisiko edo moralaren aurrean babesa jasotzeko eskubidea dute.

2.- Jokabideren bat zuzendu behar zaienean, arbitrariotasunik gabeko neurrien bidez zuzenduko zaie, eta Dekretu honetan ezarritako berme formalen arabera betiere. Era berean, ikasleei ezin izango zaie sekula zigor fisiko edo moralik ezarri.

3.- Ikasleen jarduera akademikoa segurtasun- eta higiene-baldintza egokietan egin beharko da. Antolakuntza eta Jarduera Araudiek edo Barne Araudiek zehaztu beharko dute jolastokiak nola zaindu behar diren, eta ikasleek zalantza izpirik gabe jakin beharko dute unean-unean zein irakaslerengana edo ikastetxeko zein arduradunengana edo zein agintari akademikorengana jo dezaketen edozein eraso fisiko edo moralen aurkako babesa berma diezaien.

4.- Ikastetxeetako gobernu-organoek, irakasleek eta ikastetxeko gainerako langileek berdinen arteko tratatu txarrak ezabatzen lagunduko dute, ezarritako prozedurei jarraiki eta Zuzendariari haren berri emanez, hark Hezkuntza Administrazioari jakinaraz diezaien.

5.- Eskola-eremuan ez da inola ere tabakoa, alkohola edo bestelako drogarik edukitzen eta kontsumitzen utziko.

12. artikulua.- Kontzientzia-askatasunerako eskubidea.

1.- Ikasleek eskubidea dute beren kontzientzia-askatasuna eta beren erlijio-sinesmenak nahiz sinesmen moral eta ideologikoak errespetatu diezazkieten.

2.- Eskubide horren berme gisa, ikasleek, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuari, eta, hala badagokio, ikastetxearen nondik norakoari buruzko informazio nahikoa izan beharko dute matrikulatu aurretik.

3.- Ikasleek erlijioaren eta moralaren arloan beren sinesmenekin bat datorren irakaskuntza aukeratzeko duten eskubidea bermatuko dute ikastetxeek, baita horrelako irakaskuntzarik ez jasotzekoa ere, eta aukera horrek ez du diskriminaziorik eragingo. Era berean, ikastetxeetan ematen den irakaskuntzak inolako manipulazio ideologikorik ez izatea bermatuko dute ikastetxeek.

13. artikulua.- Ikastetxeetan biltzeko eskubidea.

1.- Ikasleak ikastetxeetan bildu ahal izango dira eskolako nahiz eskolaz kanpoko jarduerak gauzatzeko, baita hezkuntza edo trebakuntza xede duten jarduerak gauzatzeko ere.

2.- Antolakuntza eta Jarduera Araudiek edo Barne Araudiek biltzeko eskubidea baliatzeko modua, ordua, espazioak eta lekuak arautuko dituzte, baita derrigorrezko aurretiazko baimentzeak edo jakinarazpenak, edo bertaratu daitezkeenak ere. Horretarako kontuan hartuko da irakatsi eta ikasteko jardueren garapen normalean izan dezaketen intzidentzia-maila.

3.- Ikastetxeak bere Antolakuntza eta Jarduera Araudian edo bere Barne Araudian ezartzen dituen baldintzetan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren mailatik gorako ikasleek eskoletara bertaratzeari buruz hartzen dituzten erabaki kolektiboak ez dira jokabide desegokitzat, bizikidetzaren aurkako jokabidetzat edo bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidetzat hartuko eta horiei erantzuteko ez da neurri zuzentzailerik ezarriko, betiere biltzeko eskubidea baliatuta hartu badira eta aldeztatik aurretik ikastetxeko Zuzendaritzari jakinarazi bazaizkio, ikastetxeak ezarrita dituen arauak jarraiki.

14. artikulua.- Adierazpen-askatasunerako eskubidea ikastetxeetan.

1.- Ikasleek adierazpen-askatasunerako eskubidea dute, beren iritziak askatasunez, bakarka eta taldean, adierazi ahal izateko.

2.- Ikastetxeetako Antolakuntza eta Jarduera Araudiek edo Barne Araudiek zehaztuko dute idazki bidez adierazpenerako eskubidea baliatzeko modua eta espazioak.

3.- Ikasleak artikulua honetan eta aurrekoan adierazitako eskubideak betetzeko eskola-eremutik ateratzekoak badira, gurasoen edo legezko ordezkarien baimen idatzia beharko dute, baldin eta adinez txiki badira. Idazki horretan, ikastetxetik ateratzeko baimena zer ordutan ematea eskatzen den adierazi beharko da, hala badagokio, erantzukizun zibilak zehazteko, eta derrigorrezkoen ondorengo hezkuntzetako ikasleen kasuan izan ezik; azken horien kasuan, gurasoen edo legezko ordezkarien idazki bidezko baimen orokorrarekin nahikoa izango da.

15. artikulua.- Ikasleek elkartzeko duten eskubidea.

1.- Ikasleek elkartzeko eta elkarteak, federazioak nahiz konfederazioak osatzeko eskubidea dute, indarrean dauden legeetan oro har xedatutakoarekin bat.

2.- Ikastetxeetako Antolakuntza eta Jarduera Araudietan edo Barne Araudietan erabakitakoari jarraiki, ikastetxeek lokal egokiak utzi beharko dizkiete ikasleei ikasle-elkarteen berezko jardueretarako, betiere azpiegiturak ezarritako mugak kontuan izanik eta jarduera akademikoa eten gabe. Ahal den neurrian, utzitako lokalak premiei egokitzen zaizkiela eta behar bezala erabiltzen direla bermatu beharko du ikastetxeko zuzendaritzak, bai elkarteek modu

iraunkorrean erabiltzeko izaten diren lokalen kasuan, baita unean uneko premiaren arabera erabiltzen direnen kasuan ere.

16. artikulua.- Parte hartzeko eskubidea.

1.- Ikasleek ikastetxeko jardueran eta bizimoduan parte hartzeko eskubidea dute, indarrean dauden arauari jarraiki.

2.- Horrez gain, ikasleen partaidetzarako organo espezifikoak eratu beharko dira, ikastetxe publiko edo itunpeko ikastetxe pribatu bakoitzak bere Antolakuntza eta Jarduera Araudian edo bere Barne Araudian ezartzen duenaren arabera. Gutxienez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzatik aurrera ikasturte eta talde bakoitzeko ordezkariak egongo dira, baita ordezkari horiek kide izango diren kide anitzeko organo bat ere.

3.- Erregelamendu horiek hainbat funtzio ezartzen dizkiote ikasleen partaidetzarako organo kide anitzari. Artean, gutxienez, Ordezkaritza Organo Gorenean edo Eskola kontseiluan ikasleen ordezkari izango direnei aholkuak eman eta laguntza eskaintzea. Ordezkariek aipaturako organoetara eramango dituzte ordezkatzeko dituzten maila, berezitasun edo lanbide-familien arazo zehatzak. Ikasle horiek Ordezkaritza Organo Gorenean edo Eskola Kontseiluan proposamen edo eskaera guztiak aurkeztuko edo beroriei helaraziko dizkiete. Horrez gain, ordezkariak enpresetan praktikak egiteko hitzarmenei buruzko informazioa jasoko dute eta praktiken jarraipenean parte hartu. Ordezkariek, halaber, Ordezkaritza Organo Gorenaren nahiz ikasle ordezkariaren arteko informazioaren garraioa izango dira.

4.- Edonola ere, ikasleen ordezkari izango direnak zuzeneko nahiz isilpeko bozketaren bidez hautatuak izan behar dira taldeko edo mailako bakoitzeko ikasleen artean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaz edo horren baliokideaz geroztik. Lehen Hezkuntzako ikasleak dituzten ikastetxeetan, Antolakuntza eta Jarduera Araudiak edo Barne Araudiak ikasleen adinerako egokienak diren parte hartzeko mekanismoak ezarri ahal izango ditu.

17. artikulua.- Informazioa erabiltzeko eskubidea.

1.- Ikasleek, adinaren eta heldutasun-baldintzen arabera, beren garapenerako informazio egokia bilatzeko, jasotzeko eta erabiltzeko eskubidea dute.

2.- Ikastetxeetako gobernu-organoei haien eskubideak betetzeko beharrezkoa den informazio guztia emango diete ikasleei.

3.- Ikastetxeetako ikasleek eskubidea dute informazioa jasotzeko beren partaidetzarako taldeko organo kideen eta Ordezkaritza Organo Goreneko edo Eskola Kontseiluko ordezkarien eskutik, bai ikastetxeko gaien inguruan, bai, oro har, Hezkuntza Sistemari dagozkion gaien inguruan.

18. artikulua.- Aukera-berdintasunerako eskubidea.

1.- Hainbat arlotako gabeziak eta desabantailak (pertsonalak, familiarlokoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak) konpentsatzeko

behar dituzten laguntzak jasotzeko eskubidea dute ikasleek, batez ere hezkuntza-premia bereziak badituzte, hain zuzen ere Hezkuntza Sistemari sartzeara eta bertan irautea zailtzen dizkieten hezkuntza-premia bereziak badituzte.

2.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eskubide hori bermatzeko, ikasleen premiei egokitutako laguntza-politika ezarriko du, baita integratuz eta hezkuntza-premia berezietan erantzutera bideratutako neurri hezigarriak ere.

3.- Hezkuntzako premia bereziak dituzten ikasleek beren beharren arabera arreta jaso beharko dute matrikulatuak dauden ikastetxeetan, ikastetxearen berezko baliabideekin eta Hezkuntza Administrazioak ikastetxearen esku jarri dituen baliabideekin.

4.- Ikastetxeek beste zerbitzu publikoekin eta udaletako, lurraldeetako nahiz Autonomia Erkidegoko beste zerbitzuekin harremanak izango dituzte arlo soziokulturalean eta arlo ekonomikoan bereziki behartsuak diren ikasleen premiei erantzuteko.

19. artikulua.- Gizarte-babeserako eskubidea.

1.- Ikasleek hezkuntza-arloan gizarte-babesa jasotzeko eskubidea dute, familia-ezbeharren edo istripuen kasuan.

2.- Osasunaren eta Gizarte Segurantzaren arloan indarrean dagoen legeriaren arabera dituzten eskubideak alde batera utzi gabe, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak beharrezkoak diren baldintza akademiko eta ekonomikoak ezarriko ditu familia-ezbeharra, istripua edo gaixotasun luzea izan duten ikasleek beren ikasketei eutsi eta ikasketak amaitzeko edo geroko ikasketei heltzeko aukera izan dezaten.

3.- Kasu horietan, derrigorrezko mailetan diharduten ikasleek beren eskola-errendimendua ziurtatzeko behar den laguntza jasotzeko eskubidea dute. Laguntza hori ikastetxearen bidez, Oinarrizko Urrutiko Hezkuntzako Ikastetxeen bidez, edo Lurralde Ikastetxeen esku dauden Ospitaleko, Etxez Etxeko eta Terapeutikako Hezkuntza-arloko Arretarako baliabideen bidez.

4.- Ikastetxeek babes-neurriak hartu beharko dituzte berdin arteko tratatu txarren kasuetan eta bereziki eskola-jazarpenen eta emakumeen aurkako eraso kasuetan. Beharrezkotzat jotzen badute, jazarleak ikastetxez aldatzea berehala proposatu dezakete edo, jazarpenaren biktimek nahiago badute eta hala eskatzen badute, biktimek lekuz alda ditzakete. Nolanahi ere, behar duten laguntza psikologikoa jasotzeko eskubidea izango dute jazarpenaren biktimek.

20. artikulua.- Ikastetxean ikasleen eskubideak errespetatzen direla bermatzea.

1.- Ikasle guztiek jakin beharko dituzte euren eta gainerako kideei indarreko ordenamendu juridikoan aitortzen zaizkien eskubideak. Era berean, eskubide horiek errespetatzen eta baliatzen ikasi beharko dute, betiere duten adinak horretarako aukera ematen badie.

2.- Beren eskumenen eremuaren barruan, ikastetxeko Gobernu Organoek, baita irakasleek ere, aurreko artikuluetan adierazitako eskubide guztiak eta Legeek nahiz Nazioarteko Itunek ikasleei aintzat hartzen dizkieten eskubide guztiak baliatzeko aukera bermatuko dute. Ikasle adingabeei dagokienez, berezi babestuko dira Adingabearen Babes Juridikoaren urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak nahiz Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak aintzat hartzen dituztenak, eta, oinarrizko printzipio gisa, haurren eta nerabeen interes gorenari emango zaio lehentasuna aldi bereko beste edozein interes legitimoren aurrean.

3.- Era berean, ikastetxeetako Gobernu Organoek eta irakasleek eskubide horiek legeek ezarritako mugen barnean baliatuko direla zainduko dute, eta ikasleen arteko harremanetan ezin eratako diskriminazio-egoerarik gerta ez dadin arduratuko dira, hain zuzen ere, honako hauek arrazoitzat hartuta diskriminaziorik gerta ez dadin: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia edota beste edozein zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial.

2. ATALA

IKASLEEN BETEBEHARRAK

21. artikulua.- Ikasteko betebeharra.

1.- Ikaslearen betebeharra da bere gaitasun guztiak al bait gehien garatzeko ikastea eta ahalegina egitea. Hain zuzen ere, duintasunez bizitzeko, elkarrekin bizitzeko eta etorkizunean laneratzeko behar diren gaitasunak lortzearren, behar adinako lana egingo du eta behar den interesez; era berean, lan intelektualerako giro egokia sortzen eta giro horri eusten lagundu behar du, eta bere portaerarekin ez du eragozpenik sortuko gelan.

2.- Ikasleak behartuta daude azterketak eta ariketak egiten dituztenean zintzo jokatzera, eta, beraz, beren ahalegina eta irakasleak maila bakoitzean baimendutako liburuak nahiz materialak besterik ez dituzte baliatuko.

22. artikulua.- Prestakuntza-jardueretan parte hartzeko betebeharra.

Ikasle guztiak hartu behar dute parte prestakuntza-jardueretan, interesez jardunez, agintzen dizkieten lan pertsonalak eginez eta antolatzen diren lan-taldeetan lagunduz.

23. artikulua.- Bertaratzeko betebeharra.

1.- Irakasleek egunero joan behar dute eskolara, puntualtasunez eta justifikatu gabeko absentziarik izan gabe, eta sartzeko nahiz irteteko ordutegiak errespetatu behar dituzte.

2.- Honako hauek hartuko dira justifikatu gabeko bertaratze- eta puntualtasun-hutsegitez: ikasleak edo, ikaslea adingabea bada, haren gurasoek edo legezko ordezkariak idazki bidez arrazoitzen ez

dituztenak. Horretarako, ikastetxean ezarritako arauen arabera onargarria den justifikazioa aurkeztu beharra dago, Dekretu honetako 13.3 eta 14.3 artikuluetan ezarritakoaren aurka joan gabe.

24. artikulua.- Bizikidetza errazteko betebeharra.

1.- Ikasleek parte hartu eta laguntza eman behar dute ikastetxean eskola-bizikidetza hobetzeko eta ikasteko giro egokia lortzeko, betiere ikaskideen hezkuntzarako eskubidea eta irakasleen agintaritzza eta orientazioak errespetatuz.

2.- Horretarako, ikasleek beren ikastetxeko Antolakuntza eta Jarduera Araudian edo Barne Araudian bildutako Bizikidetza Arauak jakin behar dituzte; irakasle eta hezkuntza-komunitateko kide guztien eskubideak errespetatu behar dituzte, eta portaera egokia izan behar dute haiekin guztiekin, besteek beren eskubideak baliatzeko dituzten eskubideak urratu gabe, sortzen diren gatazkak konpontzeko metodo baketsuak soilik erabiliz, eta betiere ikaskideekiko tolerantziaz eta elkartasunez jokatzuz eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak baliatzea erraztuz.

3.- Ikasleek bizikidetzarentzat aurkakoak eta larriki kaltegarriak diren jokabideen neurri zuzentzaileak aplikatzeko lagundu behar dute, zuzendariak edo, hala badagokio, instrukzioaz arduratzen den edozein irakaslek eskatzen dienean lekuko gisa deklaratzuz.

25. artikulua.- Norberaren kontzientzia-askatasuna errespetatzeko betebeharra.

1.- Ikasleek hezkuntza-komunitateko kide guztien kontzientzia-askatasuna, erlijioaren eta moralaren arloko sinesmenak, eta duintasuna, osotasuna eta intimitatea errespetatu behar dituzte, honako hauek arrazoitzat hartuta inolako diskriminaziorik egin gabe: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial.

2.- Ikasleek beren ikaskideen erabakiak errespetatu beharko dituzte, ikaskideek adierazteko, biltzeko edo elkartzeko eskubide indibidualak modu kolektiboan baliatzeko ekintzetan parte hartu nahi ez dutenean.

3.- Ikasleek ez dute hezkuntza-komunitateko kide bakar bat ere iraindu, mehatxatu edo difamatzeko ezein adierazpenik egingo.

4.- Ikasleek, eskola-eremuan, ezin izango dute grabazio-baliabiderik erabili, salbu eta ikastetxeak programatutako jardueretan horrelako baliabideak erabili behar badira. Kasu horietan ere ezin izango dute hezkuntza-komunitateko inor grabatu hark nahi ez badu eta hartarako baimena esanbidez ematen ez badu.

26. artikulua.- Eskolako arauak errespetatzeko betebeharra.

1.- Ikasleek, ordenamendu juridikoak hezkuntza-komunitateko gainerako kideei aitortzen dizkien eskubideez gain, ikastetxeko antolamenduko, bizikidetzako eta diziplinako arauak ezagutu eta

errespetatu behar dituzte, ikastetxearen Antolakuntza eta Jarduera Araudiko edo Barne Araudiko xedapenak osorik betez, ikastetxeko Hezkuntza Proiektua errespetatuz, eta, hala badagokio, ikastetxearen ideiak eta izaera errespetatuz, baita horrekin ados ez daudenean ere.

2.- Ikasleek beren eskumenen arloan ikastetxeko gobernu-organoen erabakiak bete beharko dituzte, norberaren garbiketari eta norberaren gauzak, jantziak, tresnak edo aparatu elektronikoak erabili eta erakusteari buruzkoak barnean hartuta, eta, era berean, atsedendietan eskola-eremutik kanpo egin daitezkeen irteerei buruzko eta irteeretan erakusten duten portaerari buruzko erabakiak ere bete beharko dituzte. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren ikasturtetik aurrera ikasle adingabeei irteera horiek baimentzeko, gurasoen edo legezko ordezkarien idazki bidezko eskabidea beharko da Dekretu honetako 14.3 artikuluan ezarritakoaren aurka joan gabe.

3.- Era berean, ikasleek irakasleen, hezkuntzako laguntzaileen nahiz legezko araudiak esleitu dizkien funtzioak gauzatzen ari diren ikastetxeko irakasle ez direnen jarraibideak bete beharko dituzte.

4.- Ikastetxeak ezartzen dizkien hezkuntza-neurri zuzentzaileen barnean hartutako ekintzak betetzeko betebeharra dute ikasleek.

27. artikulua.- Instalazioak errespetatzeko betebeharra.

1.- Ikasleek ikastetxeko ekipamenduak eta material didaktikoak zaintzeko eta egoki erabiltzeko betebeharra dute, ikastetxeko, instalazioak, altzariak eta ekipamendu orokorra beren nolakotasunaren arabera eta beren helburuetarako erabiliz, eta, hala badagokio, irakaslearen edo irakasleak ez diren langileen jarraibideen arabera. Ez dute inola ere ikastetxeko ekipamendua baimenik gabe erabiliko ezarritakoak ez diren helburuetarako, ezta dagokion ordutegitik kanpo.

2.- Ikasleek, baimenik gabe, ez diote kanpoko inori ikastetxean sartzeko aukera erraztuko, eta ez dira bidegabe sartu den inorekin ibiliko bertan. Ildo horretatik, legez eratu diren eta ikastetxean ezarri diren ikasle-elkartek ordezkatzan dituzten pertsonak ez dira ikastetxetik kanpoko pertsonatzat hartuko, betiere ordezkari gisa identifikatzen dien dokumentazioa baldin badute eta elkarteko zuzendaritzari beren bisitaren berri eman badiote.

3.- Ikasleek hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzak errespetatu behar dituzte eta ikastetxearen testuliburuak nahiz gainerako material didaktikoak erabiltzeko baldintza egokietan mantendu behar dituzte.

II. KAPITULUA

DESEGOKIAK ETA AURKAKOAK DIREN NAHIZ BIZIKIDETZAN KALTE LARRIAK ERAGITEN DITUZTEN JOKABIDEAK ETA HORIEN ZUZENKETA

1. ATALA

XEDAPEN OROKORRAK

28. artikulua.- Zuzendu behar diren jokabideak.

Desegokiak, aurkakoak eta bizikidetzarentzat larriki kaltegarriak diren jokabideak baino ezin izango dira zuzendu.

29. artikulua.- Ikasleen adinari egokitzea.

1.- Dekretu honetan xedatutakoa derrigorrez aplikatuko da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzatik aurrerako kasu guztietan.

2.- Lehen Hezkuntzan dekretu honetan ezarritako betebeharretako bat betetzen ez bada, irakasleek jokabide desegokia zuzendu beharko dute horretarako ezarri diren neurrietako bat berehala eta ahoz baliatuz. Neurri horiek aplikatu behar dira pertsonak edota objektuek balizko kalteak jaso ez ditzaten behin-behineko neurri ezarrien aurka egin gabe.

3.- Salbuespen gisa, ikaslearen jokabidea ikastetxeko bizikidetzarentzat larriki kaltegarria izan daitekeenean, eta jokabide hori ikaslearentzat edota hezkuntza komunitateko gainerako kideentzat arriskutsua bada, zuzendariak ohiko prozedura erabili eta dekretu honetan jokabide horiek zuzentzeko ezarri diren neurriak aplikatu ahal izango ditu, betiere, Hezkuntzako Ikuskaritzari aurrez jakinarazpena igorritz.

2. ATALA

JOKABIDE MOTA DESBERDINAK

30. artikulua.- Jokabide desegokiak.

1.- Hona hemen jokabide desegokiak zerrenda:

a) Justifikatu gabeko puntualtasun-hutsegiteak.

b) Justifikatu gabeko bertaratze-hutsegiteak.

c) Ikastetxeko instalazioei, ikastetxeko materialari edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzei narriadurak eragitea, zabarkeriagatik gertatzen denean.

d) Irakasleek edo agintari akademikoek agindutakoa ez betetzea, betiere ikasleak haiek mespretxatzen eta iraintzen ez baditu edo diziplina nahita hausten ez badu; baita ikastetxeko gainerako langileek beren jardunean emandako aginduei jaramonik ez egitea ere.

e) Hezkuntza Komunitateko kideen aurkako adeitasunik ezako jarrera, keinu edo hitzak.

f) Ikastetxeko Gobernu Organoak bere eskumenen eremuan debekatutako ekipoa, materialak, jantziak edo aparatuak ikastetxera eramatea.

g) Ikastetxeko ekipamendua (elektronikoa, mekanikoa, telefonikoa, informatikoa edo zeinahi motatakoa) baimenik gabe edo baimendutakoak ez diren helburuetarako erabiltzea.

h) Ikastetxeko langileei gezurra esatea edo informazio faltsua ematea, betiere horrek hezkuntza-komunitateko inori kalterik eragiten ez badio.

i) Kalifikaziorako baliatuko diren azterketa, proba edo ariketetan kopiatzea edo besteei norberarena kopiatzen erraztea, edo azterketa, proba edo ariketa horietan baimenduta ez dauden material edo aparatuak erabiltzea.

j) Hartarako baimenik ez dutenei ikastetxean sartzeko aukera erraztea edo haiekin sartzea, ikastetxeko Bizikidetzaren arauen edo Gobernu Organoen jarraibideen aurka.

k) Ikaskideen gauzak nahita erabiltzea, haien borondatearen aurka.

l) Norberaren betebeharren beste edozein ez-betetze, betiere hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzea galarazten, oztopatzen edo eragozten ez badie, eta jokabide hori ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabide gisa edo bizikidetzaren horri kalte larria eragiten dion jokabide gisa sailkatuta ez badago.

2.- Ikastetxeek, beren Antolakuntza eta Jarduera Araudietan edo Barne Araudietan, artikuluko honetako 1.l) idatz-zatian argi eta garbi sar daitezkeen jokabideen adibide zehatzak bildu ahal izango dituzte.

31. artikulua.- Ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabideak.

1.- Hona hemen ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabideen zerrenda:

a) Ikastetxeetako lagun bakarreko aginte-organoen edo irakasleen aginduak eta ikastetxeko gainerako langileek beren eginkizunen jardunean emandako aginduak ez betetzea, betiere horrekin batera diziplinarik eza agertzen bada edota irainak, mespretxuak, desafioak edo mehatxuak egiten badira.

b) Ikaskideen edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen aurkako mehatxuak edo irainak, betiere jokabide horiek ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabide gisa sailkatuta ez badaude, baita honako hauek ere: hezkuntza-komunitateko gainerako kideen aurkako keinuak edo jarrerak, ezbairik gabe erasotzeko saiakeratzat edo mehatxutzat har daitezkeenak.

c) Azterketa-ereduak lapurtzea edo erantzunak kopiatzea, eta horiek guztiak hedatzea, saltzea edo erostea.

d) Noten buletinetan edo gurasoentzako nahiz legezko ordezkariarentzako beste edozein dokumentutan edo jakinarazpenetan aldaketak egitea, eta, ikasle adingabeei dagokienez, dagokien hartzaileei ez ematea edo erantzunak aldatzea.

e) Kalteak eragitea bidegabeko erabileragatik ikastetxeko lokalei, altzariei, materialari edo dokumentuei, edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzei, jokabide hori ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea ez bada.

- f) Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak hartutako baliozko erabakiak nahita ez betetzea.
- g) Besteek ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea, haiek, edo, hala badagokio, haien gurasoek edo legezko ordezkariak, baimena eman gabe grabazio-baliabideak erabiliz.
- h) Beste edonori bere eskubidea baliatzeko aukera galaraztea, indarkeria erabili gabe, eta beste edonor bere borondatearen aurka zerbait egitera behartzea, betiere indarkeriarik erabili gabe.
- i) Ordena nahasten duten portaerak autobusean edo eskolako jangelan, bai bakarka bai taldean, eta betiere bizikidetzan kalte larria eragiten ez badute.
- j) Hezkuntza-komunitateko edozein kiderengan lesio fisikoak eragin ditzaketen objektuak zuhurtzirik gabe erabiltzea.
- k) Ikastetxeko langileei gezurra esatea, informazio faltsua ematea edo norberaren nortasuna ezkutatzea, horren ondorioz hezkuntza-komunitateko beste kide batzuei kalte egiten bazaie.
- l) Diskriminazioa dakarren edozein egintza edo jokabide, diskriminazio horren arrazoia edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial. Betiere bizikidetzan kalte larria eragiten duen jokabidetzat hartzen ez bada.
- m) Aurreko artikuluan adierazitako jokabide desagokiren bat gehenez ere hiru aldiz egitea hiruhileko akademiko berean, betiere aurreko biak zuzendu badira, eta, ikasle adingabeei dagokienez, gurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazi bazaizkie.
- n) Ikasleen betebeharrak ez betetzea dakarren beste edozein jokabide, betiere hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzeko edo beren betebeharrak betetzeko eragozpenik sortzen ez badie eta jokabide hori hurrengo artikuluan bilduta ez badago, ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideen artean, hain zuzen ere.

2.- Ikastetxeek, beren Antolakuntza eta Jarduera Araudietan edo Barne Araudietan, artikuluko honetako 1.n) idatz-zatian argi eta garbi sar daitezkeen jokabideen adibide zehatzak bildu ahal izango dituzte.

32. artikulua.- Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak.

1.- Hona hemen bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideen zerrenda:

- a) Ikastetxeetako Gobernu Organoekiko edo beren eskumenak betetzen diharduten irakasleekiko diziplinarik gabeko egintza edo obediencia-ukatze esplizitu guztiak, ezarritako neurri zuzentzaileak betetzeari uko egitea barne, baita hezkuntza-komunitateko kideen

aurkako adierazpen biziki laidogarri edo iraingarriak ere, laido edo irain horiek edozein modutan adierazita ere: ahoz, idazki bidez, edo baliabide informatikoak edo ikus-entzunezkoak erabiliz.

b) Diskriminazioa dakarten edo adierazten duten irainak erabiltzea, diskriminazio horren arrazoia edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial.

c) Jazarpen sexista, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari jarraiki halakotzat hartuta: nahi ez duen pertsona batekin eta pertsona horren sexua dela-eta, hitzez, hitzik gabe edo fisikoki edozein jokabide izatea, eta horren helburua edo ondorioa pertsona horren duintasunari erasotzea edo kikilduta, etsai, makurrarazita, irainduta edo laidoztatua sentiarazteko giroa sortzea bada.

d) Hezkuntza-komunitateko edozein kideren aurkako eraso fisiko edo psikologikoa.

e) Ikastetxeko hezkuntza-komunitateko kideak beren osasunerako eta osotasun pertsonalerako oso kaltegarriak diren jokaerak egitera bultzatzea, hala nola tabakoa, alkohola eta drogak kontsumitzera bultzatzea.

f) Bizikidetzaren aurkako jokabide guztiak, taldean egiten direnean edo haien berri nahita zabaltzen denean, ahoz, idazki bidez, ikus-entzunezko baliabideen edo baliabide informatikoen bidez; baita berdinen arteko tratu txarreko egoeretan parte hartzen dutenean ere.

g) Liskar edo jokabide erasokorrak eragitea edo jokabide horietan parte hartzea, betiere lesioak eragiteko arrisku larria sortzen bada.

h) Nahita kalteak eragitea ikastetxearen instalazioetan edo ondasunetan, ikastetxeko langileei, beste ikasle batzuei edo beste pertsona batzuei, bai bakarka bai taldean.

i) Ordena nahasten duten jokabideak autobusean edo eskolako jangelan, betiere hezkuntza-komunitateko edozein kiderentzako egoera arriskutsuak sortzen badituzte.

j) Grabazio-baliabideak erabiliz, besteek ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea, aldez aurretik haiek, edo, hala badagokio, haien gurasoek edo legezko ordezkariak, horrelakorik nahi ez dutela esanbidez adierazi badute.

k) Ikastetxeko jarduneko egintzetan beste edonoren izena erabilita aritzea.

l) Euskarri idatzian edo informatikoan dagoen eskolako dokumenturen bat edo erregistroren bat kaltetzea, trukitzea edo aldatzea, baita dokumentu akademikoak ezkutitzea edo baimenik gabe ateratzea ere.

m) Delitua edo zigor-arloko hutsegitea den edozein egintza, nahita egin bada.

n) Ikasturte berean gehienez ere hiru aldiz egitea aurreko artikuluan adierazitako bizikidetzaren aurkako edozein jokabide, artikuluko horren 1.m) idatz-zatian bildutakoa izan ezik, betiere aurreko biak zuzendu badira eta, hala badagokio, gurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazi bazaizkie.

ñ) Norberaren betebeharrak ez betetzea dakarren edozein jokabide, betiere jokabide hori hezkuntza-komunitateko gainerako kideen edo beste edonoren eskubideen aurkako bada zuzen-zuzenean; hain zuzen ere, honako eskubide hauen aurkako bada: osasunerako, osotasun fisikorako, adierazpen-askatasunerako, parte hartzeko, biltzeko, diskriminaziorik ez jasateko, ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea.

2.- Ikastetxeek, beren Antolakuntza eta Jarduera Araudietan edo Barne Araudietan, artikuluko honetako 1.ñ) idatz-zatian argi eta garbi sar daitezkeen jokabideen adibide zehatzak bildu ahal izango dituzte.

33. artikulua.- Ikastetxetik kanpo egindako jokabide edo egintzengatiko erantzukizuna.

Aurreko artikuluetan bildutako jokabideak eskolako eremutik edo ordutegitik kanpo egiten direnean ere zuzenduko dira, betiere ikastetxeak programatutako jarduera osagarrien edo eskolaz kanpokoen jardunean egiten badira, jangela- edo garraio-zerbitzuak erabiltzen diren bitartean, edo eskolako jarduerarekin kausa-ondorio harremana dagoela egiaztatzen denean.

3. atala

Hezkuntzako neurri zuzentzaileak

eta desegokiak, aurkakoak edota

bizikidetzarentzat larriki kaltegarriak diren jokabideen beste ondorio batzuk.

34. artikulua.- Jokabide desegokiaren zuzenketa.

Honako neurri hauetako baten edo gehiagoren bidez zuzenduko dituzte jokabide desegokiak:

a) Izandako jokabide desegokiari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa.

b) Kaltetuak izan diren pertsonen aurrean jokabidea desegokia izan dela onartzea.

c) Jokabide-eredu egokiak ikasteko eta barneratzeko jarduerak egitea.

d) Jokabide desegokiaren nolakotasunarekin zerikusia duen zereginen bat egitea.

e) Zuzendariaren, ikasketaburuaren edota une horretantxe ikastetxearen ardura duen zuzendaritza taldeko kideren baten aurrean agertzeko agindua.

35. artikulua.- Ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabideen zuzenketa.

1.- Bizikidetzaren aurkako jokabideak zuzentzeko, zuzendariak aurreko artikuluan zerrendatutako neurriak edo honako neurri hauetako bat edo gehiago aplikatu ahalko ditu:

a) Bizikidetzaren aurkako jokabideari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa eta jokabidea bideratzeko orientazioak.

b) Ohartarazpen idatzia.

c) Ohartarazpena, ikasle adingabeen kasuan, gurasoak edo legezko ordezkariak bertan direla.

d) Ikaslea taldez edo gelaz aldatzea, aldi baterako edo behin betiko.

e) Lan hezigarriak edo eragindako kalte materialak konpontzeko lagungarriak diren zereginak egitea, edo hala badagokio, ikastetxeko jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak, betiere hiru hilabetez gehienez ere.

f) Ikasgai bateko edo bat baino gehiagoko eskoletara nahiz ikastetxera joateko eskubidea etetea, ikasle adingabeen gurasoekin edo legezko ordezkoekin elkarrizketa izan arte. Neurri horrek ezin izango du hiru egun baino gehiago iraun.

g) Eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendutako jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte; edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte.

h) Eskolaz kanpo egin behar diren jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendutako jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte; edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte. Nolanahi ere, eskola-ordutegiaren barnean, ikasleari arreta eman beharko zaio ikastetxean.

i) Jangela-zerbitzua edo garraio-zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendu beharreko jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte, edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte, betiere bizikidetzaren aurkako jokabidea zerbitzu horiek erabiltzen ari zenean egin badu ikasleak.

2.- 1.g), 1.h) eta 1.i) idatz-zatietan adierazitako neurriak erabili ahal izan dira, soilik 1.a) eta 1.f) idatz-zatietan adierazitako neurrietatik bi gutxienez aplikatu ondoren bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak zuzentzea lortu ez bada.

36. artikulua.- Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideen zuzenketa.

1.- Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzeko aurreko artikuluan bildutako neurri bat edo gehiago

aplikatuko ditu zuzendariak, eta, horiez gain, honako hauetako edozein:

a) Lan hezigarriak eskola-ordutegitik kanpo egitea, edo ikastetxeko jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak, edo, hala badagokio, eragindako kalte materialak konpontzeko lanak, betiere sei hilabetez gehienez ere.

b) Arlo edo irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara joateko eskubidea etetea hiru eskola-egunetik hogeira bitartean. Horren ondorioz, ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko, betiere lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleek kontrolatuta.

c) Ikastetxera joateko eskubidea etetea hiru eskola-egunetik hogeira bitartean. Horren ondorioz, ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko, betiere lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleek kontrolatuta.

d) Eskolaz kanpoko jardueretan edo ikastetxetik kanpoko jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea edo eskola-garraioko zerbitzua edo jangela-zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea. Neurri hori ikasturtea amaitu arte aplikatu ahal izango da.

2.- Artikulu honetako 1.b), 1.c) eta 1.d) idatz-zatietan bildutako neurriak erabili ahal izango dira, baldin eta 1.a) idatz-zatian adierazitako neurrietako baten bat aplikatuta bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzea lortu ez bada.

37. artikulua.- Ikastetxez aldatzeko proposamena.

1.- Ikastetxe-aldaketa ondoko kasu hauetan proposatu ahal izango da:

a) Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea ikasleari gutxienez bi aldiz zuzendu bazaio, betiere 1.n) idatz-zatian zehaztutakoa salbu, eta lehen zuzenketa gauzatu zenetik ehun eta hogeik eskola-egun baino gehiago igaro ez badira.

b) Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragin dion jokabideak berdinen arteko tratu txarrak edo sexuagatiko jazarpena berarekin badakar.

c) Ikastetxeko irakasle bati eraso egitea.

d) Salbuespenez, hezkuntza komunitateko beste kide batzuei eraso larriak egin izana.

2.- Aurreko atalean zehaztu diren jokabideetakoren baten erantzule den ikaslea adinez handi bada edo Derrigorrezko Hezkuntzaren ondoko ikasketak gauzaten ari bada, ikaslea urrutiko hezkuntzako ikastetxe batera, gaueko ikastetxe batera edo pertsona helduen hezkuntzarako ikastetxe batera aldatzea proposatu ahalko da.

3.- Ikaslea ikastetxez aldatzeko proposamena Lurraldeko Hezkuntza Ordezkaritari helaraziko zaio. Azken horrek Hezkuntzako Ikuskaritzari txostena bidali eta irtenbiderik egokiena zein den erabakiko du.

38. artikulua.- Etengabeko ebaluazioa egiteko ezintasuna bertaratze-hutsegiteak behin eta berriz egiteagatik.

1.- Aurreko artikuluen arabera dagozkion neurri zuzentzaileak aplikatzeko aukera bazter utzi gabe, bertaratze-hutsegite ugari egin dituztela-eta etengabeko ebaluaziorako ikastetxeak onartutako metodoak eta irizpideak aplikatu ezin zaizkien ikasleek ez-ohiko probetara aurkeztu beharko dute, ebaluazioa egin diezaieten.

2.- Ikastetxeek ezarriko dute proba horien nolakotasuna, betiere dagokion arloa, irakasgaia edo modulua kontuan izanik eta indarrean dagoen araudian xedatutakoari jarraiki.

39. artikulua.- Oinarrizko gaitasun sozial eta hiritarra ebaluatzearen ondorioak.

Gizarte -eta herritartasun- oinarrizko gaitasuna zer neurritan atxiki den ebaluatzeko irizpideak finkatzeko orduan, irakasle-taldeek edo dagozkion departamentu didaktikoek kontuan hartu ahal izango dute kontrakoak nahiz bizikidetzarentzat larriki kaltegarriak diren jokabideak zuzentzeko neurriek xede dituzten hezkuntzako helburuak bete ez izana.

40. artikulua.- Izan daitezkeen kalteengatik erantzukizuna.

Dagokionean aplika daitezkeen neurri zuzentzaileak alde batera utzi gabe, ikasleen erantzukizuna da ikastetxeko instalazioetan, altzarietan edo materialean, edo ikaskideen gauzetan, eragindako kalteak konpontzea, kalte horiek nahita edo zabarkeria larriki edo ikastetxeak onartutako bizikidetzara-arauden aurkako portaeraren ondorioz egin badituzte. Horren orde, egin beharreko konponketen kostu ekonomikoa beren gain hartu ahal izango dute, eta beren gurasoak edo legezko ordezkariak izango dira erantzule subsidiarioak legeek aurreikusitakoaren arabera.

41. artikulua.- Neurri zuzentzaileak proportzionaltasunez aplikatzen direla bermatzeko irizpideak.

1.- Jokabide deskribatuak zuzentzeko neurriak aplikatzeko, alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

a) Jokabide deskribatuek zer neurritan eragozten diete hezkuntza komunitateko gainerako kideei beren eskubideak eta betebeharrak betetzea.

b) Hezkuntza komunitateko gainerako kideek beren duintasunean edo autoritatean pairatu duten kaltea, edota jokabide aipatuen ondorioz jasan dezaketena.

c) Ikaslearen jokabidearen gain eragina izan dezaketen inguruabarrak nahiz ikasleak bere betebeharrak bete ez dituela eta 3.3 artikuluan zehazturiko oinarrizko gaitasunetako hutsuneak zuzen balioestea ahalbidetzen duten inguruabar pertsonalak eta sozialak.

d) Jokabidea osatzen duten gertakariak gauzatzearekin zerikusia duten inguruabarrak.

2.- Jarraian aipatuko ditugun inguruabarrengatik hain murriztaileak ez diren neurri-zuzentzaileak aplika daitezke eta, era berean, erantzukizuna gutxiagotzen dute. Hona hemen:

- a) berehala onartzea zuzentzea merezi duen jokabidea desegokia izan dela.
- b) Aurretiaz neurri zuzentzailerik jaso ez izana.
- c) Materialari edo ondasun higigarriei edo higiezinei kalteak eragin bazaizkio, kalte horiek eskola-ordutik kanpo konpontzea, edo kalte horiek konpontzeko konpromisoa izenpetzea prozedura erabaki baino lehen.
- d) Jendaurrean barkamena eskatzea.
- e) Hain kalte larria eragiteko asmorik izan ez duela erakustea.
- f) Eraso fisikoen kasuan, kalte edo lesiorik ez eragitea.

3.- Ondoko inguruabar hauek gertatzen badira, erantzukizuna handituko da eta eskubideak zuzentzeko neurri murriztaileagoak erabiliko dira:

- a) Jokabidea zuzentzea eragin duten egite edo ez-egiteak honako ezaugarri hauek dituztenen aurka egiten direnean: adinez txikiak, minusbaliatuak, ahalmen fisiko txikiagokoak, ikastetxera etorri berriak; edo nagusikeriaz jokatu izana adierazten duen beste edozein zirkunstantzia.
- b) Kaltea nahita egina izatea.
- c) Kaltea apropos egitea edo alde aurretik prestatu ondoren egitea.
- d) Jokabidea zuzentzea eragin duten egite edo ez-egiteetarako taldean jardutera bultzatu edo akuilatu izana.
- e) Eskola-arloko ordezkaritza-kargua gehiegikeriaz baliatzea jokabidea zuzentzea eragin duten egintzetarako.

III. KAPITULUA

JOKABIDEAK ZUZENTZEKO BIDE ALTERNATIBOAK

42. artikulua.- Xedapen orokorrak.

1.- Ikastetxeetako zuzendariek ahalegina egingo dute bizikidetzarazoak konpontzeko, Dekretu honetako IV. kapituluan araututako prozedurak erabili gabe, eta, ahal dela, kapitulu honetan adierazten diren bide alternatiboak erabilita.

2.- Lehentasunez, zuzendariek ahalegina egingo dute alde hauek adiskidetu daitezten: hezkuntza-komunitateko kideren bati eskubideak urratu dizkion ikaslea eta bere eskubideak urratuak ikusi dituen hezkuntza-komunitateko kidea. Horrez gain, eta, posible bada, sortutako kalte materialak edo moralak konpontzen ahaleginduko dira.

3.- Bide horiek erabiliz zuzendu diren jokabideen berri eman behar zaie ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenari edo Eskola Kontseiluari eta irakasleen klaustroari (jokabide horiek bizikidetzaren

aurkakoak izan behar zuten edo bizikidetzari kalte larria eragiten diotenak).

4.- Bizikidetzaren aurkako jokabideak eta hari kalte larria eragiten diotenak, behin kapitulu honetan adierazitako bide alternatiboak erabilia zuzendu ondoren, soilik ondorio hauetarako jasoko dira ikastetxeetan: ikasleak aurrez hutsegiteren bat egin duen ala ez jakiteko.

43. artikulua.- Prozedurarik gabeko neurri hezitzaileak.

1.- Bizikidetzaren aurkako jokabideak edo hari kalte larriak eragiten dizkietenak gertatzen badira, zuzendariek, inolako prozedurarik martxan jarri aurretik, ahalegina egingo dute ikasleek jokabide horiek zuzen ditzaten, beren borondatez onartutako neurrien bidez, edo, egoerak hala eskatzen badu, haien gurasoek edo lege-ordezkariek onartutako neurrien bidez. Proposatutako neurriak onartzen badira, ez da prozedurarik abiatuko, edo, prozeduraren bat abiatuta badago, eten egingo da.

2.- Ezingo da horrela jokatu, salbuespenezko egoera hauetan:

a) Adin nagusikoak diren ikasleak izan badira ikastetxearen bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkieten jokabideak egin dituztenak.

b) 37. artikuluan adierazitako jokabideak eman badira.

c) Ikastetxean gutxienez bi aldiz egin bada ahalegina bide horietatik konpontzeko bizikidetzaren aurkako jokabideak edo hari kalte larriak eragiten dizkietenak, eta ez bada erdietsi lortu nahi zen helburu hezitzailea. Zuzendu nahi izan diren jokabideak izaera berekoak izan behar dute.

44. artikulua.- Prozedura bertan behera uztea adiskidetzea gertatu delako.

1.- Adiskidetzetik gertatzen bada, eten egingo da prozedura. Adiskidetzea izango da, gertakari hauek ematen badira:

a) Ikasleak onartzea hark egin duen jokabidea bizikidetzaren aurkakoa dela edo bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkiola, eta, berariaz, urratu egin dituela hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak.

b) Barkamena eskatzea edo azalpenak ematea.

c) Kaltetua izan den pertsonak, edo, kasuan-kasuan, ikastetxeko organo eskudunak barkamena onartzea.

d) Jarduera hezitzailearen bat egitea onartzea.

2.- Adiskidetzeak ez du bertan behera utziko prozedura 37. artikuluan adierazitako jokabideren bat gertatu bada, baina, hala ere, arindu egingo ditu aplikatzekoak diren neurriak.

45. artikulua.- Prozedura bertan behera uztea kaltea konpondu delako.

1.- Prozedura bertan behera utziko da baldin eta konpondu egiten badira bizikidetzaren aurkako jokabideen eta hari kalte larriak eragiten dizkioten jokabideen biktimak edo erakunde kaltetuek jasandako kalteak, edo haiek konpontzeko konpromiso fidagarria hartzen bada. Konponketa horrek kalte materialak eta moralak konpondu behar ditu.

2.- Kalteen konponketak edo haien konpontzeko konpromisoa hartzeak ez du etengo prozedura, baldin eta 37. artikuluan adierazitako jokabideren bat gertatu bada, baina, hala ere, arindu egingo ditu aplikatzekoak diren neurriak.

46. artikulua.- Prozedura bertan behera uztea jokabidea familia-eremuan zuzentzeagatik.

Prozedura bertan behera uzteko aukera izango da, baldin eta, zuzendariaren iritziz, jokabidea behar bezala zuzentzen ari bada familia-eremuan. Ezingo da halakorik egin, jokabidea 37. artikuluan adierazitakoren bat baldin bada.

47. artikulua.- Neurri zuzentzaileak eten, arindu edo barkatzea.

1.- Prozedura ebatzi eta kaltetutako pertsonen entzun ondoren, aplikaturiko neurriak baldintzapean etetea erabaki dezake zuzendariak, baita betetzealdia murriztea edo neurriak deuseztatzea ere, ofizioz edo interesdunak nahiz, interesduna adin txikikoa bada, haren lege-ordezkariek eskatuta, betiere ikaslearen jarrera modu positiboan aldatu dela aldez aurretik egiaztatuz gero.

2.- Zuzendu beharreko jokabidea berriz gertatuz gero, berrerortzetat hartuko da, zigorra bertan behera geratuta ere.

3.- Jakinarazi egin behar zaie ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenari edo Eskola Kontseiluari eta irakasleen klaustroari neurri zuzentzaileak bertan behera utzi direla arrazoi horiek direla medio.

48. artikulua.- Bizikidetzarako konpromiso hezigarriak.

1.- Kasu guztietan, kaltetuek barkamena onartu ez dutelako adiskidetzarik lortu ez denetan ere, neurri zuzentzaileen aplikazioa eten ahal izango da ikasle interesdunak bizikidetzakonpromiso hezigarria sinatuta; ikaslea adingabea bada, gurasoek edo legezko ordezkariak ere sinatu behako dute. Bizikidetzakonpromiso hezigarrietan, honako hauek bildu beharko dira, behar bezala zehaztuta, baita denboraren aldetik ere.

2.- bizikidetzari buruzko prestakuntza-jardunak, eta bizikidetzaren aurkako jokabideak aldatzeko eta horien prebentziorako gurasoek edo legezko ordezkariak, hartarako konpromisoa hartuta, gauzatuko dituztenak, euren edo erakunde, ikastetxe edo pertsona egokien bidez gauzatuko dituztenak, hain zuzen ere. Era berean, ikastetxearekin komunikatzeko eta koordinatzeko mekanismoak bildu beharko dira.

3.- Bizikidetzakonpromiso hezigarriak ez betetzeak etendako neurri zuzentzaileak berehala aplikatzea ekarriko du.

IV. KAPITULUA

NEURRI ZUZENTZAILEAK APLIKATZEKO PROZEDURAK

1. ATALA

XEDAPEN OROKORRAK

49. artikulua.- Kontrakoak diren eta bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak zuzentzeko erabili behar diren prozedurak

Kontrakoak diren eta bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak zuzentzeko kapitulu honetan arautu diren prozeduretako bat erabili behar da derrigorrez, betiere, III. kapituluan jaso diren aukerako bideak aplikatzea posible izan ez denean.

50. artikulua.- Neurri zuzentzaileak aplikatzeko organo eskumenduna.

1.- Ikasgelan, ikastetxeko beste eremuetan edota ikastetxetik kanpo ikasleak haien zainketa zuzenaren pean dauden bitartean, ikastetxeko irakasle guztiek ikasleen jokabide desegokiak berehala zuzentzeko eskumena dute.

2.- Irakasle guztiek eskumena dute haien aurrean kontrakoa den edo bizikidetzan kalte larriak eragiten dituen jokabidea gertatzen den unean bertan ikasleari errieta egiteko. Irakasleek, halaber, ikaslea zuzendariarengana, ikasketaburuarengana edo une horretan ikastetxearen arduradun den zuzendaritzako taldeko kideren batengana bidaltzeko eskumena dute, betiere, pertsonak edota objektuek kalteak jasotzea ekiditeko berehala hartu behar diren neurriak bazter utzi gabe.

3.- Zuzendaria da kontrakoak diren edota bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak zuzentzeko eskumena duen organoa.

4.- Ordezkaritza Organo Gorena edo Eskola Kontseilua da Dekretu honek ezartzen dituen mugetan zuzendariak hartu dituen erabakiak berrikusteko eskumena duen organoa.

51. artikulua.- Neurri zuzentzaileak aplikatzeko prozeduren epeak.

1.- Kapitulu honetan arautu diren prozedurekin lotura duten egintzak gauzatzeko epe guztiak eskola-egunetan adieraziko dira.

2.- Ondorio horietarako, eskola-egunak hauek izango dira: egun baliadun guztiak, astelehenetik ostiralera, irailaren batetik ekainaren hogeita hamarrera, oporraldiak izan ezik.

52. artikulua.- Denbora igarotzeagatik prozedurei ekiteko debekua.

Ondoko kasu hauetan, ezin izango zaio inolako prozedurari ekin, ezta desegokiak diren, kontrakoak diren edota bizikidetzan kalte larriak eragin dituzten jokabideen berri edukita ere:

a) Bizikidetzan kalte larriak eragin dituen jokabidea osatzen duten gertakariak edota ez-egiteak gertatu zirenetik ehun eta hogeit egun baino gehiago igaro direnean.

b) Bizikidetzaren kontrakoa den jokabidea osatzen duten gertakariak edota ez-egiteak gertatu zirenetik hirurogei baino gehiago igaro direnean.

c) Jokabide desegokia osatzen duten ekintzak edo ez-egiteak gertatu zirenetik ehun eta hogeitun egun baino gehiago igaro direnean.

53. artikulua.- Neurri zuzentzaileak aplikatzeko unea.

1.- Neurri zuzentzaileak aplikatu ahal izango dira:

a) Kontrakoak diren edo bizikidetzan kalte larriak eragin dituzten jokabideak zuzentzeko neurriak, erreklamazioak edo helegiteak jartzeko epea amaitzen den unetik aurrera.

b) Jokabide desegokiak zuzentzeko zer neurri aplikatuko diren erabakitzen den unetik aurrera.

2.- Ondoko kasu hauetan ezin izango da neurri zuzentzailerik ezarri:

a) Bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideen kasuan, neurriak aplikatzeari buruzko behin betiko ebazpena eman zenetik ehun eta hogeitun egun baino gehiago igaro badira.

b) Bizikidetzaren kontrakoak diren jokabideen kasuan, neurriak aplikatzeari buruzko behin betiko ebazpena eman zenetik hirurogei egun baino gehiago igaro badira.

c) Jokabide desegokiaren kasuan, hogeitun egun baino gehiago igaro badira.

54. artikulua.- Ikastetxearen barruan jakinarazpenak nahiz erreklamazioak egiteko modua eta epea.

1.- Dekretu honetan arautu diren prozeduren egintzei buruzko jakinarazpenak jakitera eman behar den egintza gertatu eta hurrengo eskola-eguna amaitu aurretik egin beharko dira.

2.- Kapitulu honetan arautu diren prozeduretan jaso diren erreklamazioak jartzeko epea hiru eguneko izango da.

3.- Dekretu honetan arautu diren prozeduren barruan jaso diren eta hezkuntza-komunitateko kideei helarazi behar zaizkien jakinarazpenak nahiz zitazioak jasotzaileak mezua jaso duela argi jakiteko moduan igorri behar dira.

55. artikulua.- Dekretu honetan arautu diren prozeduretako datu pertsonalak lantzeko, babesteko eta ezeztatzeko bidea.

1.- Jokabide zuzenduari buruzko datuak dagokion ohiko edota ohiz kanpoko prozeduraren agirietan soilik ageriko dira. Datu horiek ez dira ikastetxeko fitxategi edota erregistro iraunkorrera transferituko eta, maiatzaren 3ko 2/2006 Hezkuntzaren Lege Organikoaren hogeita hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat zaindu eta aldi baterako beste ikastetxe batera eraman ahal izango dira.

2.- Edonola ere, Dekretu honek arautzen dituen prozeduretan sortu diren agiriak suntsitu behar dira. Horrela, bizikidetzaren kontrakoak diren jokabideei buruzko prozeduren agiriak prozedura gertatu zeneko ikasturte akademikoa amaitzean suntsitu behar dira. Eta,

bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideei buruzko prozeduren agiriak prozedura gertatu eta hurrengo ikasturte akademikoa amaitzean suntsitu behar dira.

3.- Prozeduraren izapide guztietan prozeduran parte hartzen duten pertsona guztien ohorearen, duintasunaren, intimitatearen eta irudi propioaren eskubideak babestu beharko dira, ikasle adingabeen kasuan batez ere.

56. artikulua.- Erreklamazioak eta helegiteak.

1.- Zuzendariak emandako ebazpenaren aurka, ikasleak edo, haren lekuan, haren gurasoek edo legezko ordezkariak, erreklamazioa aurkeztu ahalko dute Ordezkaritza Organo Gorenean edo Eskola Kontseiluan. Organo edo Kontseilu horrek erreklamazioa berrikusi ahalko du, 65. artikuluan ezarri denari jarraiki.

2.- Ordezkaritza Organo Gorenaren edo Eskola Kontseiluaren erabakiaren aurka, ikasleak erreklamazioa aurkeztu ahalko dio dagokion Hezkuntzako Lurralde ordezkariari hiru egun balioduneko epean, erabakiaren jakinarazpena jasotzen denetik zenbatzen hasita.

3.- Erreklamazio ezestearen aurka interesdunak gora jotzeko errekurtsioa jar diezaioke Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza sailburuordeari, jakinarazpena egin eta hilabeteko epean.

2. ATALA

JOKABIDE DESEGOKIEN ZUZENKETA

57. artikulua.- Jokabide desegokiak zuzentzeko ahozko prozedura.

1.- Jokabide desegokiak berehala eta ahoz zuzenduko dira.

2.- Nolanahi ere, jokabide desegokia zein izan den eta aplikatu izan diren neurri zuzentzaileak idatziz jaso ez badira eta, ikasle adingabeen kasuan, ikasleen gurasoak edota legezko ordezkariak jakinaren gainean jarri ez badira, ezin izango da 31.1.m) artikuluan aurreikusitakoa aplikatu.

3.- Kasu guztietan, jokabide desegokiei eta jokabide desegokiak zuzentzeari buruz idatziz edota euskarri informatikoetan jaso diren agiriak ikasturte akademikoa amaitzean suntsituko dira.

3. ATALA

BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEAK

ETA BIZIKIDETZAN KALTE LARRIAK ERAGITEN

DITUZTEN JOKABIDEAK ZUZENTZEKO OHIKO

PROZEDURA

58. artikulua.- Ohiko prozeduraren erabilera.

1.- Ohiko prozedura erabili ahalko da zuzendu beharreko jokabidea osatzen duten gertakariak nahiz gertakari horien egilea nor izan den bistakoa denean.

2.- Prozedura horri ofizioz ekingo zaio eta idazki bidez egingo da. Prozedurak, gutxienez, honako zati hauek izango ditu: hasierako egintza; ikasleak eta, hala badagokio, ikaslearen gurasoek edo legezko ordezkariak, esateko zer duten entzutea; eta prozeduraren amaiera ekarriko duen erabakia.

59. artikulua.- Hasierako egintzaren gutxieneko edukia.

1.- Hasierako egintzak honako hauek ekarri behar ditu:

a) Ikasleari leporatzen zaion jokabidearen azalpena.

b) Kontrakoak diren edo ikastetxeko bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideetako batean kokatzea.

c) Ikasleari leporatzen zaion jokabidearen izaera kontuan harturik aplika daitezkeen neurriak, Dekretu honetan zehaztu direnen artean.

d) Dagokion neurria aplikatuko den erabakitzeko eskumena duen organoa zein den, eta organoari horretarako ahalmena esleitzen dion araua.

2.- Era berean, Dekretu honetan aurreikusi diren baketzegatiko edo konpontzegatiko eteteak jasoko dira.

60. artikulua.- Hasierako jakinarazpena eta alde zurretiko entzunaldirako zitazioa.

1.- Hasierako egintza, kasu guztietan, jokabide leporatuaren erantzule den ikasleari jakinaraziko zaio, baita, ikasle adingabea den kasuetan, haren gurasoei edota legezko ordezkariari ere.

2.- Hasierako jakinarazpenarekin bat, ikaslearen alde zurretiko entzunaldirako zitazioa bidaliko da, baita, hala badagokio, haren gurasoen edota legezko ordezkarien entzunaldirako zitazioa ere. Mintzagai dugun zitazioan, halaber, entzunaldiaren eguna eta ordua zehaztuko dira.

61. artikulua.- Behin-behineko neurriak.

1.- Bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideen kasuan, bere iritziz beharrezkoa denean eta bizikidetzari eragindako kaltearen larritasunaren arabera, zuzendariak behin-behineko zenbait neurri ezarri ahal izango ditu ikastetxean jarduerak normaltasunez gauzatzeko direla bermatzeko. Neurri horien artean ondoko bi hauek leudeke: batetik, ikasleak eskoletara joateko duen eskubidea aldi baterako etetea, ikasleari eskola zehatz batzuetara edo eskola guztietara joatea debekatuz; bestetik, ikaslea behin-behinekoz taldez aldatzea.

2.- Behin-behineko neurriak prozedura amaitu arte bere horretan mantendu ahal izango dira. Behin-behineko neurriak, bidenabar, ezin izango dira aplikatu beharreko neurri zuzentzaileak baino latzagoak izan. Nolanahi ere, ikaslea ikastetxera edo eskoletara bertaratzeko eskubideaz gabetuta egon den denbora oso-osorik zenbatuko da, aplikatutako neurri zuzentzailea betetzeko garaian.

3.- Ikasle interesdunei eta, ikasle interesdunak adinez txikiak badira, haien guraso edo legezko ordezkarietara jakinaraziko zaie behin-behineko neurri ezarriak zein diren.

62. artikulua.- Entzunaldiaren izapidea.

1.- Entzunaldiaren izapidearen bidez, entzuna izateko eta bere burua defendatzeko ikasleak duen eskubidea bermatu ahal izango da. Horrenbestez, hasierako egintzaren edukiaren gain nahiz ikastetxeak bere erabakiaren oinarri gisa hartuko duen informazio osoaren gain ikasleak egoki deritzon alegazioak egiteko aukera izango du.

2.- Ikaslearen entzunaldia egitea derrigorrezkoa izango da kasu guztietan, ikaslearen adina dena delakoa izanik eta hartu beharreko neurria hartuta ere. Adinez txikiak diren ikasleek entzunaldian beren gurasoek edo legezko ordezkariak laguntzeko eskubidea dute. Azken horiek, nahi izanez gero, beren alegazioak egin ahal izango dituzte, betiere, ikasleak bereak egin ondoren.

3.- Ondoko kasu hauetan, ikasle adingabeen gurasoei edo legezko ordezkarietara entzunaldia egin beharko zaie derrigor:

a) Ikasle adingabe horietara leporatzen zaien jokabidea ikastetxeko bizikidetzan kalte larriak eragin dituenetan.

b) Bizikidetzaren kontrako neurriak direnean, betiere, aplikatu litezkeen neurri jakinarazien artean 35. artikuluko 1.g), 1.h) eta 1.i) ataletan zehaztutakoren bat badago.

4.- Entzunaldiaren izapidea hasierako egintza jakinarazi eta hurrengo eskola-egunean egin beharko da, betiere, gurasoen edo legezko ordezkarien entzunaldia egitea derrigorrezkoa ez bada. Hala ez bada, entzunaldia, gehienez ere, hiru eguneko epean egin beharko da. Interesdunak entzunaldira agertzen ez badira ere, prozedurak bere martxari eutsiko dio.

5.- Aurkeztu diren alegazioak idatziz jaso behar dira.

63. artikulua.- Aplikatu beharreko neurri zuzentzailea erabakitzea.

1.- Hartutako erabakia idazki batean bilduko du zuzendariak, arrazoiak azalduta. Era berean, dagozkion gertakizunak eta zuzenbideko oinarriak bilduko ditu, baita erreklamaziorik edo errekurtsorik ebatzi behar izanez gero hartutako eskumena duen organoak kontuan izan beharreko alderdi guztiak bildu ere. Gutxienez, honako hauek agerraraziko dira:

a) Oro har, ikasleei edo, ikasle adingabeen kasuan, haien legezko ordezkarietara ikastetxeko bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak edo bizikidetzaren kontrako jokabideak zein diren jakinarazi zaien modua.

b) Bizikidetzaren aurkako jokabidea edo bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea osatzen duten gertakizunen deskribapena.

c) Gaitzesten zaion portaera ikasleari argi eta garbi jakinarazi zaiola ziurtatzea, zuzendu nahi den jokabidearen tipifikazioan portaera hori jasota dagoela azalduz.

d) Ikasleak bere jokabidea onartzeko, ukatzeko, zehazteko edo azaltzeko egin dituen alegazioak edo adierazpenak, eta, hala badagokio, gurasoek edo legezko ordezkariak egin dituztenak, baita egon daitezkeen lekukoaren deklarazioak ere.

e) Zuzendariaren iritziz ikaslearen jokabidearekiko zirkunstantzia astungarririk, aringarririk, edo ikaslea errugabetzeko zirkunstantziarik ba ote dagoen ala ez.

f) Ezarriko diren neurri zuzentzaileak. Neurri horiek hasierako egintzaren jakinarazpenean aukerakotzat jo direnak izango dira, ez besterik.

g) Neurriak zer unetatik aurrera aplikatu behar diren. Neurriak inoiz ez dira aplikatuko Ordezkaritza Organo Gorenaren edo Eskola Kontseiluaren aurrean erreklamazioak egiteko epea amaitu aurretik.

h) Ordezkaritza Organo Gorenaren edo Eskola Kontseiluaren aurrean aipatu erreklamazioa aurkezteko epea.

2.- Zuzendariak bere erabakia hartu beharko du entzunaldia egin eta hurrengo eskola-eguna amaitu aurretik. Zuzendariaren erabakia, hortaz, ikasleari eta, ikaslea adinez txiki bada, haren gurasoei edo legezko ordezkariari jakinaraziko zaie.

3.- Zuzendariak hartutako erabakia helarazi beharko dio Ordezkaritza Organo Gorenari edo Eskola Kontseiluari eta ikastetxeko Irakasle klaustroari, horren berri izan dezaten.

64. artikulua.- Dagokion Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzari, eta, hala badagokio, dagokion Gizarte Zerbitzuei jakinaraztea.

1.- Neurria bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea zuzentzeko ezartzen den guztietan, idazki horren kopia bat helaraziko zaio dagokion Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritari. Honako kasu honetan ere helaraziko zaio idazkiaren kopia: bizikidetzaren aurkako jokabidea zuzentzeko ezartzen bada, neurri zuzentzaileak ikastetxera bertaratzeko edo garraio- eta jangela-zerbitzuak erabiltzeko eskubidea aldi baterako kentzea badakar.

2.- Kasu horietan, neurria bete behar duten ikasleak Foru Aldundietako edo Udaletako Gizarte Zerbitzuen laguntza duten familietakoak badira, aplikatu zaien neurria Zerbitzu horiei helarazi beharko zaie, haren berri izan eta jarraipena egiteko aukera izan dezaten.

3.- Artikulu honetan xedaturikoa betetzearen ondorioz egiten diren jakinarazpen guztiak konfidentziasun-eskubidearen eta erreserba-betebeharraren babespean daude.

65. artikulua.- Ordezkaritza Organo Gorenaren edo Eskola Kontseiluaren aurrean erreklamazioa jartzea.

Ikasleak edo, hala badagokio, haren gurasoek edo legezko ordezkariak eskatuz gero, Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak zuzendariak hartutako erabakia berrikusi ahalko du, eta, hala badagokio, dagokion neurriak proposatuko ditu.

66. artikulua.- Ordezkaritza Organo Gorenaren edo Eskola Kontseiluaren erabakia.

1.- Batetik, zein neurri aplikatu behar den erabakitzeko idazki arrazoitua eta, bestetik, ikaslearen edota, ikaslea adinez txiki bada, haren gurasoen edo legezko ordezkarien erreklamazioan jasotako alegazioak kontuan hartuta, Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak neurri hori berretsiko du, betiere Dekretu honetan aurreikusitakoaren arabera dela irizten badio, bestela, erabakia berriz aztertzea erabakiko du.

2.- Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak bere eskumenak eskuordetu ahalko dizkio ikastetxeak Antolakuntza eta Jarduera Araudian edo Barne Araudian ezarrita dituen ordezkori batzordeei edo horretarako eratutako Batzorde bati, betiere Ordezkaritza Organo Gorenako kideek erabakia gehiago osoz onartzen badute. Nolanahi ere, Dekretu honen aplikazioarekin lotutako funtzioak betetzeko, Ordezkaritza Organo Gorenako edo Eskola Kontseilurako legez ezarritako gurasoen, ikasleen eta irakasleen proportzioak errespetatu beharko dira, eta horretarako boto haztatu sistema ezarri ahalko da.

3.- Ordezkaritzako Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak gehienez ere hiru eguneko epean hartu beharko du bere erabakia.

67. artikulua.- Jakinarazpena.

1.- Ordezkaritza Organo Gorenaren edo Eskola Kontseiluaren erabakiaren ikaslearentzako edo, hala badagokio, haren gurasoentzako edo legezko ordezkariarentzako jakinarazpenak erabakiaren eduki osoa adierazi beharko du. Jakinarazpenean erabakiaren arrazoiak adieraziko dira, zuzendariaren aurreko erabakia berresten nahiz berrikusten den aintzat hartu gabe, eta, era berean, Hezkuntzako Lurralde ordezkariari erreklamazioa aurkezteko epea adieraziko da.

2.- Ordezkaritza Organo Gorenaren edo Eskola Kontseiluaren hitzarmena Lurraldeko Ordezkaritari eta dagozkion Gizarte Zerbitzuei jakinaraziko zaie, betiere, 64. artikuluan jasotako kasuetan.

4. ATALA

OHIZ KANPOKO PROZEDURA

68. artikulua.- Ohiz kanpoko prozedura noiz erabili beharra dagoen.

Ohiz kanpoko prozedura ondoko kasu hauetan erabili beharko da:

a) Zuzendu beharreko jokabidea osatzen duten ekintzak edo ekintza horien egilea nor izan den kaltetuak edo hirugarren pertsonak salatutakoaren bidez soilik ezagutzen direnean, edota zeinahi arrazoiengatik, ekintza nahiz egilea bistakoak ez direnean.

b) 37. artikuluan aipatzen diren kasuetan.

c) Zuzendariak, kasuaren inguruabarrak ikusirik, neurri zuzentzaile egokia hartzeko ohiz kanpoko prozedura egokiagoa dela iritziz duenean.

69. artikulua.- Ohiz kanpoko prozedurari ekiteko epea.

Zuzendariak prozedurari ekin beharko dio. Prozedurari idatziz ekin behar zaio, gehienez ere, ikastetxeko bizikidetzaren kontrako jokabidea edo bizikidetzaren horretan kalte larriak eragiten duen jokabidea osatzen duten gertakariak ezagutu eta hiru egunetara.

70. artikulua.- Hasierako egintzaren gutxieneko edukia.

Hasierako egintzak honako hauek ekarri behar ditu:

a) Ikasleari leporatzen zaion jokabidearen azalpena; jokabide hori kontrakoak diren edo ikastetxeko bizikidetzaren kalte larriak eragin ditzaketen jokabideen artean egon daitekeeneko zehaztapena; eta neurri zuzentzaileak aplikatu behar izaneko aukera.

b) Izapidegilea izendatzea.

c) Dekretu honetako III. kapituluaren jaso diren eta aplikatu litezkeen aukerako bideak erabiliz prozedura eteteko aukera.

71. artikulua.- Izapidegilea izendatzea.

1.- Zuzendariak, ikastetxeko irakasleen artean, izapidegilea izendatuko du.

2.- Irakasle izendatuak izendapena onartu beharko du, betiere, abstenitzeko erregelamenduzko arrazoirik gertatzen ez bada. Erregelamenduzko ziorik gertatzen bada, irakasleak izendapenari uko egin beharko dio.

3.- Izendapenetik kontatzen hasita egun bateko epean, izapidegileak abstentzio-idazkia aurkeztu badu, emandako arrazoiak aztertu eta beste izapidegile bat izendatu beharko du zuzendariak, arrazoi justifikatuak daudela iritziz gero. Bestela, hasierako izendapena berretsiko du.

72. artikulua.- Hasierako egintzaren nahiz behin-behineko balizko neurrien jakinarazpena.

1.- Hasierako egintza, kasu guztietan, jokabide leporatuaren erantzule den ikasleari jakinaraziko zaio, baita, ikasle adingabea den kasuetan, haren gurasoei edota legezko ordezkariari ere.

2.- Zuzendariak behin-behineko neurriak ezarriko balitu, ikasleari eta, ikaslea adinez txiki bada, haren gurasoei edo legezko ordezkariari jakinaraziko dizkie, betiere, ohiko prozedurari buruzko 61. artikuluan zehaztu diren baldintzetan.

73. artikulua.- Izapidegilea errefusatzeko aukera.

1.- Ikasleak edo, ikaslea adinez txiki bada, haren gurasoek edo legezko ordezkariak izapidegilea errefusatu ahal izango dute, betiere, izapidegileari uko egiteko arazuko arrazoietako bat gertatzen bada.

2.- Mintzagai dugun jazoera gertatuko balitz eta izapidegileak uko egiteko arrazoiak onartuko balitu, izapidegile berria izendatuko litzateke. Izapidegileak ez baditu onartzen ezesteko arrazoiak, zuzendariak bi aldeek emandako arrazoiak aztertu eta —alde aurretik egoki irizitako txosten eta aholkuak jasota— hiru eguneko epean ebatzi beharko du.

3.- Zuzendariaren ebazpena ikasleari edota, ikaslea adinez txiki bada, haren gurasoei edo legezko ordezkariari jakinaraziko zaie.

74. artikulua.- Izapidegilearen jardunak.

Izapidegileak ofizioz gauzatuko ditu ikasle interesdunari leporatzen zaion jokabidea osatzen duten gertakariak ezagutzeko eta egiaztatzeko egoki deritzon ikerketa guztiak. Era berean, kontuan izan beharko ditu ikasleak entzunaldiaren aurretik ekar ditzakeen alegazioak, agiriak edo epaiketarako zeinahi elementu.

75. artikulua.- Jakinarazpena Fiskaltzari.

1.- Izapidegileak jokabide nahiz gertakari egotziak delitutzat edota falta penaltzat har daitezkeela uste badu, halaxe jakinarazi beharko dio zuzendariari, hala badagokio, kasua Fiskaltzaren eta Hezkuntzako Ikuskaritzaren esku jartze aldera.

2.- Ikaslea adingabea bada, Adingabeen Erantzukizun Penalari buruzko urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren 18. eta 19. artikuluetan aurreikusitako ondorioak betetze aldera, ondoko hauek jakinarazi beharko dira ere:

- a) Hala bada, hezkuntzaren eremuan jokabideak zuzendu izana.
- b) Hala bada, baketzea gertatu izana.
- c) Hala bada, konponketa gertatu izana edo konpontzeko konpromisoa hartua egotea.

3.- Fiskaltzari igorritako jakinarazpenaren kopia bidaliko dio zuzendariak dagokion Hezkuntzako Lurralde Ordezkariari.

76. artikulua.- Entzunaldirako zitazioa.

1.- Izapidegileak ikaslea zitatu du entzunaldia egin dezan. Ikaslea adinez txiki bada, haren gurasoei edo legezko ordezkariari ere jakinaraziko die. Zitazioan, entzunaldiaren eguna eta ordua zehaztuko dira. 62.3 artikuluan zehaztutako kasuetan, ikaslearen gurasoei edo legezko ordezkariari derrigorrez hitzordua emango zaie.

2.- Zitazioarekin idatzi bat bidaliko da, zeinean honako hauek agertuko diren:

- a) Ikasleari leporatzen zaion jokabidearen azalpena.
- b) Kontrakoak diren edo ikastetxeko bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideetako batekin bat datorren.
- c) Ikasleari leporatzen zaion jokabidearen izaera kontuan harturik aplika litezkeen neurriak, Dekretu honetan zehaztu direnen artean.

d) Dagokion neurria aplikatuko den erabakitzeko eskumena duen organoa eta organoari ahalmen hori esleitzen dion araua.

e) Kontrako proba-baliabideak proposatzeko aukera.

77. artikulua.- Entzunaldiaren izapidea.

1.- Entzunaldiaren izapidea gauzatzeko, 62. artikuluan ohiko prozedurari buruz esandakoa aplika daiteke.

2.- Gainera, ikasleari eta, ikaslea adingabea bada, haren gurasoei edo legezko ordezkariari prozedurako agiri guztiak erakutsi behar zaizkie - betiere, indarrean dauden legeek ezartzen duten zuhertasunaz- egoki deritzotena alegatu dezaten eta egoki deritzeten proba-bitartekoak proposatu ditzaten.

78. artikulua.- Ebazpen Proposamena.

1.- Entzunaldiaren izapidea amaitutakoan, izapidegileak frogak -aldeztatik aurretik zeudenak, bereziki lekukoak deklarazioak, eta ikasleak edo guraso edo legezko ordezkariak aurkeztu ahal izan dituztenak- balioetsiko ditu, baita aurkeztutako alegazioak ere; gertakizunak argitzeko eta balioesteko beharrezko iritzitako jardunak gauzatu ditu, eta ondorioen bat ateratzen duenean, ebazpen-proposamena idatzita aurkeztuko du.

2.- Proposamena idatzi ostean, horren berri emango zaio ikasleari. Horretarako, entzunaldirako ezarri diren epe nahiz baldintza beretan deituko zaio, berriz, ikasleari. Alegazio berririk izanez gero, jaso egingo dira, eta proposamena zuzendariari helaraziko zaio, aldaketarik gabe eta jasotako alegazio berriekin batera.

79. artikulua.- Ohiz kanpoko prozedura amaitzeko epea.

1.- Ohiz kanpoko prozedurari ekingo zitzaiola interesdunari eta, hala balegokio, interesdunaren gurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazi zitzaien egunetik zenbatzen hasita, gehienez ere hamabost eguneko epean amaitu beharra dago ohiz kanpoko prozedura.

2.- Bi asteko epe horri abstentzioak edo arbuiatzeak ebazteko erabili diren egunak gehituko zaizkio, baita ikasleak, haren gurasoek edo legezko ordezkariak eragin dituzten eta beharrezkoak ez diren atzerapenetan galdu diren egunak ere.

3.- Ikertu beharreko ekintzen konplexutasunak edo antzerako inguruabarrek hala eskatuko balute, zuzendariak gehienez ere hamar egunetz luzatu ahal izango du prozedura amaitzeko epea.

4.- Epea luzaturik ebazpen proposamenik egongo ez balitz, prozedura igarotzat joko da, betiere, interesdunak edota haren gurasoek edo legezko ordezkariak eragindako atzerapenek sortua ez bada. Igarotze horrek ez du eragotziko delitu edo falta penaltzat har daitezkeen gertakariak edo ez-egiteak Fiskaltzari jakinarazi beharra, betiere, zigor arloan gertakaria edo ez-egitea preskribatu ez bada.

80. artikulua.- Espedientearen ebazpena eta jakinarazpena.

1.- Ebazpenak arrazoitua izan beharko du beti, eta honako hauek bildu beharko ditu: ikasleari leporatu zaizkion gertakizunak; neurri zuzentzailea(k) ezartzeko arrazoiak; erantzukizuna aldatzen duten zirkunstantziak, hala badagokio; neurrien edukia eta neurriak zer unetatik aurrera aplikatuko diren; erreklamazioa zer Organori aurkeztu behar zaion, eta azken hori aurkezteko epea.

2.- Ikasleari eta, hala badagokio, ikaslearen guraso edo legezko ordezkariari ebazpenaren jakinarazpena helaraziko zaie.

3.- Ebazpen hori Ordezkaritza Organo Gorenari edo Eskola Kontseiluari eta irakasleen klaustroari zuzendariak egoki deritzon moduan jakinaraziko zaie.

4.- 64. artikuluan zehaztu diren kasuetan, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritari eta, hala badagokio, dagozkion Gizarte Zerbitzuei helaraziko zaie ebazpena.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.- Itundu gabeko ikastetxe pribatuak.

Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen 8/1985 Lege Organikoan eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Legean ezarritako esparruan, itundu gabeko ikastetxe pribatuek autonomia izango dute barne-araudia eta bizikidetzara-arauek ezartzeko, legeetan ikasleei onartzen zaizkien eskubideak errespetatuta betiere.

Bigarrena.- Adin nagusiko ikasleak dituzten ikastetxeetarako egokitzapena.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Dekretu honen III. kapituluan xedaturikoa moldatuko du, honako hauen egoerara egokitzeko: Hizkuntza Eskola Ofizialen; Urrutiko Oinarrizko Hezkuntzarako eta Batxilergoko Ikastetxeen; Gau Eskolen; Lanbide Heziketako Goi-mailako Zikloak, Irakaskuntza Artistikoetako Goi-mailako Zikloak eta Kirol Irakaskuntzetako Goi-mailako Zikloak soilik ematen dituzten ikastetxeen; egoitza-zentroen; eta, oro har, ikasleak adinez nagusiak diren kasu guztien egoeretara.

Hirugarrena.- Irakasleentzako laguntza eta defentsa juridikoa.

1.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak laguntza juridikoa emango die titularra den ikastetxe publikoetako irakasleei irakaskuntzako eta eskolako zereginetan sortzen diren prozesuetan, betiere irakasleen jarduna ikastetxeko Bizikidetzara Planaren eduki eta espirituarekin bat etorri gero, eta Euskal Autonomia Erkidegoak kasu horietarako ematen duen defentsa juridikoa bazter utzi gabe.

2.- Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailak egoki deritzon neurriak ezarriko ditu ikasleen gurasoen edo ikasleen beste senitarteko batzuen erasoetatik irakasleak babesteko.

Laugarrena.- Antolakuntza eta Jarduera Araudiaren edo Barne Araudiaren aldaketa.

1.- Dekretu hau argitaratzen denetik kontatzen hasita sei hilabeteko epean, zati batean ala osorik fondo publikoekin finantzaturako ikastetxeek egokitu beharko dute beren Antolakuntza eta Jarduera Araudia edo Barne Araudia Dekretu honetan xedatukoari, beharrezko aldaketak eginda eta bizikidetzaren plana betetzea bermatzen duten aldaketak barnean hartuta.

2.- Antolakuntza eta Jarduera Araudiaren edo Barne Araudiaren idazketa berria egiteko batzorde bat eratzen bada ikastetxean Ordezkaritza Organo Gorenaren edo Eskola Kontseiluaren baldintza eta ordezkaritza-proporzio berberak errespetatu beharko dira, eta horretarako boto haztatuko sistema ezarri ahalko da.

3.- Ikastetxe publikoen Ordezkaritza Organo Gorenek Antolakuntza eta Jarduera Araudiaren edo Barne Araudiaren idazketa berria onartu aurretik, edo itundutako ikastetxeek Barne Araudiaren idazketa berria onartu aurretik, ikastetxe bakoitzean ezarritako eta legez osatutako guraso-elkarteei nahiz ikasle-elkarteei eta ikasleen taldeko organoari entzun beharko zaie.

Bosgarrena.- Ikasleek erabiltzen duten hezkuntzako irakas-hizkuntza edozein izanda, Dekretu honetan araututako prozeduretan gurasoen edo legezko ordezkarien esku-hartzeak eta haiei bidaltzen zaizkien jakinarazpenak aukeratzen duten Hizkuntza Ofizialean egingo dira, euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizko azaroaren 24ko 10/1982 Legearen 5. eta 6. artikuluekin bat etorriz.

Seigarrena.- Ebazpen judizial batek guraso-ahala ezkontide bakar bati ematen dionean edo guraso-ahalaren funtzioak nolabait bi ezkontideen artean banatzen duenean izan ezik, Dekretu honetan araututako prozeduretako esku-hartzeak biek egin ahalko dituzte, edo, bestela, horietako bakar batek, betiere beste ezkontidea ados dagoela kontuan hartuta, Kode Zibilaren 156. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

Zazpigarrena.- Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailak laguntza eta orientazioa emango die ikastetxeei Dekretu honetako 5. artikuluan aipatzen diren bizikidetzaren planak idatz ditzaten. Horrez gain, Sail horrek gatazkak ebazteko aukerako bideak erabiltzea sustatuko du, besteak beste, bitartekaritza prozedurak erabiltzea sustatuko du ikastetxeen eta ikasleen familien artean elkarlan handiagoa lortzeko.

Zortzigarrena.- Dekretu honetan arautu diren prozeduretan sortutako agiriak, gorde behar diren denbora-tartean, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoaren arabera zaindu beharko dira, baita Lege hori garatzeko erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege dekretuan xedatutakoaren arabera ere. Ikastetxe publikoei dagokienean, Datu Pertsonalak gordetzeko Titulartasun Publikoko Fitxategien gaineko nahiz Datu Pertsonalak Babesteko Euskal Agentzia sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea

garatzen duen 308/2005 Dekretuan xedatutakoaren arabera zaindu beharko dira.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehena.- Bertaratze-hutsegite kolektiboen erregimen iragankorra.

Ikastetxeek ez badute betetzen Dekretu honen 13.3 artikuluan aurreikusitakoa, apirilaren 19ko 160/1994 Dekretuaren — Unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoaren— 19.3 artikuluan aurreikusitakoari atxikiko zaizkio, baina Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren mailatik aurrera soilik aplikatuko da.

Bigarrena.- Aldez aurretik abiarazitako prozedurak.

Dekretu hau indarrean jartzen denean jada abiarazitako diziplina-espedienteek erabat amaitu arte jarraituko dute, unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko apirilaren 19ko 160/1994 Dekretuan aurreikusitakoarekin bat etorritik, eta betiere, Dekretu hau aplikatuta, interesdunek edo, hala badagokio, haien gurasoek edo legezko ordezkariak idazki bidez kontrakoa adierazten ez badute.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Xedapen Iragankorretan aurreikusitakoa alde batera utzi gabe, unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko apirilaren 19ko 160/1994 Dekretua indargabetu da. Halaber, Dekretu honetan aurreikusitakoarekin bat ez datozen xedapen guztiak (maila berekoak edo txikiagokoak) ere indargabetuta daude.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2008ko abenduaren 2an.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,

JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS

XIV. ERANSKINA

ORIXE B.H.IKO ELKARBIZITZARAKO ARAU ETA PROZEDURAK

Egunerokoan, ikastetxean bizikidetza bermatuko da, neurri handi batean, hurrengo arau simple hauek betetzen badira :

- Ikaskideak, irakasleak eta gainontzeko langileak errespetuz tratatuko dira.
- Norberak bere zereginak beteko ditu eta ahalik eta gehien saiatuko da.
- Beti beharrezko materiala ekarriko da ikastetxera.
- Azalpenak arretaz entzungo dira.
- Ordukotasuna zainduko da.
- Irakaslea falta denean ordezkariak jakinaraziko du.
- Ikasgelak eta egoitzak txukun eta garbi mantenduko dira.
- Materiala, altzariak eta instalazioak zainduko dira.
- DBHko ikasleak eskola eremuan egongo dira eskola ordutegian.
- DBHko jolas-garaian eta eguerdian geletatik eta pasabideetatik aterako dira ikasleak.
- Pasabideetan eta eskaileretan lasai, korrikarik egin gabe, ibiliko dira ikasleak.

JOKABIDE DESEGOKIAK	JOKABIDE DESEGOKIEN ZUZENKETA
<p>a) Justifikatu gabeko puntualtasun hutsegiteak</p> <p>b) Eskolara edo eskola-jarduera osagarrietara justifikatu gabe ez bertaratzea.</p>	<p>Dagokion irakasleak Inika-n apuntatuko du.</p> <ul style="list-style-type: none"> - 1 eta 5 bitartean. Tutorearen ahozko zentzarazpena. - 5 eta 10 bitartean: Tutoreak gurasoekin hitz egingo du. - 10 eta 15 bitartean: TUTOREAK: idatzizko jakinarazpena prestatuko du.
<p>c) Ikastetxeko instalazioei, Ikastetxeko materialari edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzei nariadurak eragitea, betiere zabarkeriaz gertatu bada. Ikaskideen gauzak nahita erabiltzea, haien borondatearen aurka.</p>	<p>Ikaslearekin dagoen irakasleak ezarriko ditu portaera desegokiak zuzentzeko beharrezko neurriak. Beharrezkoa ikusten bada I. eranskina beteko du. Ikasleak hondatutako materiala ordezkatu du.</p>
<p>d) Irakasleek edo agintari akademikoek agindutakoa ez betetzea, betiere haiek mespretxatzen, iraintzen edo nahita diziiplina hausten ez badu ikasleak; baita ikastetxeko gainerako langileek beren jardunean emandako aginduei jaramonik ez egitea ere.</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Irakasleak emandako agindu zuzena ez betetzea. ▪ Irakasle ez den ikastetxeko pertsonalaren agindu zuzena ez betetzea. ▪ Ikasleari dagokion esparrutik irtetea baimenik gabe.(patioa, dbh1, dbh2, batx) ▪ Irakaslearen azalpenak moztea. ▪ Klase orduan eta saio artean jolasean aritzea. ▪ Klaserako beharrezkoa den materiala ez ekartzea. ▪ Lantzen ari den lanarekin zerikusia ez duen beste lan bat egiten aritzea. ▪ Gelako beste ikasleen arreta oztopatzea ▪ Irakaslearen mahaia eta eserlekua ez errespetatzea. 	<p>Ikaslearekin dagoen irakasleak ezarriko ditu portaera desegokiak zuzentzeko beharrezko neurriak. Beharrezkoa ikusten bada I eranskina beteko du, bertan gertatutakoa eta hartutako erabakia azalduz eta tutoreari komunikatuko dio. TUTOREAK: idatzizko jakinarazpena prestatuko du.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Klase orduetatik kanpo (arratsaldean, jolas garaian...) lanak egiten gelditu. - Gelatik bidali liburutegira lana egitera
<p>e) Hezkuntza komunitateko kideen aurkako adeitasunik ezako jarrera, keinu edo hitzak.</p>	<p>Ikaslearekin dagoen irakasleak ezarriko ditu portaera desegokiak zuzentzeko beharrezko neurriak. Beharrezkoa ikusten bada I eranskina beteko du, bertan gertatutakoa eta</p>

<ul style="list-style-type: none"> ▪ Beste ikasleen lana gutxieste errepikatugabeak. ▪ Beste ikasleak iraintze errepikatu gabeak. ▪ Jangelan jokaera desegokia izatea (karrasika hitzegin, dagokion tokian eserita ez egotea, baimenik gabe jangelatik irtetea) ▪ Jolasetan garbi ez jokatzea (ad. Futbol partidu batean zankadila jartzea, ukondoarekin jotzea e.a.) 	<p>hartutako erabakia azalduz eta tutoreari komunikatuko dio.</p> <p>TUTOREAK: idatzizko jakinarazpena prestatuko du.</p> <p>Ahozko zentzarazpenaz gain:</p> <ul style="list-style-type: none"> -Barkamena eskatu izandako jokaerarengatik. - Larritasunaren arabera patio garai batean zigorra
<p>f) Gobernu Organoak, bere eskumenean, debekatu dituen ekipoak, materialak , jantziak edo aparatuak ikastetxean erabiltzea.</p> <p>XIX. eranskinean adierazitakoaren arabera, mugikorrak eta gailu elektronikoak behar den bezala ez edukitzea.</p> <p>XIX. eranskinean adierazitakoaren arabera, mugikorrak eta gailu elektronikoak baimendutako guneetatik kanpo erabiltzea.</p>	<p>Ikaslearekin dagoen irakasleak lehenengo aldian ahozko ohartarazpena egingo dio ikasleari eta behar den bezala gordetzeko esango dio.</p> <p>Errepikatzen denean gailua ikasleari eskatuko zaio. Irakasleak jasotako gailua etapako koordinatzaileari emango dio eta I. eranskina beteko du. Irakasleak gailua egunaren amaieran jaso ahal izango du.</p>
<p>g) Ikastetxeko ekipamendua (elektronikoa, mekanikoa, telefonikoa, informatikoa edo edozein motatakoa) baimenik gabe edo baimendutakoak ez diren helburuetarako erabiltzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Irakasleak lehenengo aldian ahozko ohartarazpena egingo dio ikasleari eta jokabidea zuzentzeko esango dio. - - Errepikatzen denean irakasleak I. eranskina beteko du.
<p>h) Ikastetxeko langileei gezurra esatea edo informazio faltsua ematea, betiere horrek hezkuntza-komunitateko inori kalterik eragiten ez badio.</p>	
<p>i) Kalifikaziotarako baliatuko diren azterketa, proba edo ariketetan kopiatzea edo beste ikasle batzuei kopiatzen laguntzea, edo azterketa, edo proba horietan baimenduta ez dauden material edo aparatuak erabiltzea.</p> <p>Irakasleak eska dezake irakaslearen mahai gainean uzteko gailu elektroniko guztiak (telefonoak, erloju digitalak...) azterketak edo frogak irauten duen bitartean.</p>	<p>Dagokion irakasleak erabakiko du zein neurri jarri azterketa, proba edo ariketa hori kalifikatzeko garaian (nota jaitsi, kalifikatu gabe geratu, suspenditu e.a...)</p> <p>Kopiatzeko erabili dena irakasleak jasoko du, ahal bada azterketa, proba edo ariketarekin batera.</p> <p>Irakasleak I. eranskina beteko du. Irakasleak ikaslearekin hitz egingo du. Irakasleak egoeraren inguruko hausnarketa egin beharko du.</p>

<p>j) Hartarako baimenik ez dutenei ikastetxean sartzeko aukera erraztea edo haiekin sartzea, ikastetxeko Bizikidetzaren edo Gobernu Organoen jarraibideen aurka.</p> <p>l) Norberaren betebeharren beste edozein ez-betetze, betiere hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzea galarazten, oztopatzen edo eragozten ez badie, eta jokabide hori ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabide gisa edo bizikidetzaren horri kalte larria eragiten dion jokabide gisa sailkatuta ez badago.</p>	<p>Ikaslearekin dagoen irakasleak ezarriko dituen portaera desegokiak zuzentzeko beharrezko neurriak. Beharrezkoa ikusten bada txostena beteko du, bertan gertatutakoa eta hartutako erabakia azalduz eta tutoreari komunikatuko dio.</p> <p>TUTOREAK: idatzizko jakinarazpena prestatuko du.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Izandako jokabide desegokiari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa. - Kaltetuta geratu diren pertsonen aurrean jokabidea desegokia izan dela onartzea. - Jokabide-eredu egokiak ikasteko eta barneratzeko jarduerak egitea. - Jokabide desegokiaren nolakotasunarekin zerikusia duen zereginen bat egitea.
--	--

**Hezkuntza-neurri zuzentzaileak: (dekretuak esaten duena)
Kasu guztietan:**

- Izandako jokabide desegokiari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa.
- Kaltetuta geratu diren pertsonen aurrean jokabidea desegokia izan dela onartzea.
- Jokabide-eredu egokiak ikasteko eta barneratzeko jarduerak egitea.
- Jokabide desegokiaren nolakotasunarekin zerikusia duen zereginen bat egitea.

IKASTETXEAREN BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEAK	ARDURADUNA, PROZEDURA ETA ONDORIOA
<p>a) Ikastetxeko kide bakarreko aginte-organoen edo irakasleen aginduak eta ikastetxeko gainerako langileek beren eginkizunen jardunean emandako aginduak ez betetzea, betiere horrekin batera diziplinarik eza agertzen bada edo irainak, mespretxuak, desafioak edo mehatxuak egiten badira.</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Gelakideak ados jartzea eskola jarduera bat oztopatzeko. ▪ Irakasleak agindutakoa ez betetzeaz gain gelakideak gauza bera egitera bultzatzea. ▪ Kanpo ekintzetan jarrera desegokia izatea ekintza oztopatzeko asmoz. ▪ Gelakideak kanpo ekintza batean parte ez hartzera bultzatzea. 	<p>Ikaslearen jokabidearen lekuko izan den irakasle edo agintari akademikoak idatzizko txostena emango dio ikaslearen tutoreari eta zuzendaritzari gertatutakoa azalduz. Tutoreak eta zuzendaritzak ahozko zentzarazpena egin ondoren hauetako neurri bat edo gehiago aplikatuko ditu:</p> <p>a) Bizikidetzaren aurkako jokabideari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa eta jokabidea bideratzeko orientazioak.</p> <p>b) Kargu-hartze idatzia.</p> <p>c) Gurasoen edo legezko ordezkarien aurrean kargu hartzea.</p> <p>d) Ikaslea taldez edo gelaz aldatzea, aldi baterako edo behin betiko.</p> <p>e) Lan hezigarriak edo eragindako kalte materialak konpontzeko lagungarriak diren zereginak egitea, edo hala badagokio, ikastetxeko jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak, betiere hiru hilabetez gehienez ere. Lan edo zeregin horiek lotura izan behar dute ikasleak bizikidetzaren aurka izandako jokabidearekin. Zerbait hondatzen duen ikasleak konponketa ordaindu beharko du. Hondaketa anonimoak Zuzendaritzak erabakitzen duen inplikatu guztien artean ordainduko dira</p> <p>f) Gai bateko edo batzuetako eskoletara joateko eskubidea eta jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak egiteko nahiz zerbitzuak jasotzeko eskubidea etetea, harik eta ikaslearen gurasoekin edo legezko-ordezkariekin elkarrizketa bat egiten den arte. Eskubide-etendura horrek ezingo du hiru egun baino gehiago iraun.</p> <p>g) Eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendutako jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte, edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte.</p>
<p>b) Ikaskideen edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen aurkako mehatxuak edo irainak, betiere jokabide horiek ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabide gisa sailkatuta ez badaude, baita honako hauek ere: hezkuntza-komunitateko gainerako kideen aurkako keinuak edo jarrerak, ezbairik gabe erasotzeko saiakeratzat edo mehatxutzat har daitezkeenak.</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Min egiteko, barregarri uzteko edo baztertzeko asmoz egindako irain edo laidoak. Eraso psikologikoak. ▪ Ahulago edo gazteago den norbaiti egindako irain edo laido larriak ▪ Ikasle bat arinki jotzea. ▪ Ikasle bati bultza edo kolpe bat ematea. (adibidez gelara sartzerakoan edo eskailera igo edo jaisterakoan) 	

<p>c) Azterketa-ereduak lapurtzea edo erantzunak kopiatzea, eta horiek guztiak hedatzea, saltzea edo erostea.</p> <p>d) Noten buletina edo guraso edo legezko ordezkariari igorritako beste edozein dokumentu edo jakinarazpenetan aldaketak egitea, eta , ikasle adingabeei dagokionez, buletin edo idazki horiek hartzaileei ez ematea edo hartzaileen erantzunak aldatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Azterketak lapurtzea ▪ Notak faltsifikatzea ▪ Etxeko ziurtagiriak faltsifikatzea ▪ Ikastetxeko aplikazio informatikoan aldaketak egiteko sartzea 	<p>h) Eskolaz kanpo egin behar diren jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendutako jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte. Nolanahi ere, eskola-ordutegiaren barnean ikasleari arreta eman beharko zaio ikastetxean.</p> <p>i) Jangela-zerbitzua edo garraio- zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendutako jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte, edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte; betiere bizikidetzaren aurkako jokabidea zerbitzu horiek erabiltzen ari zenean egin badu ikasleak.</p> <p>g), h) eta i) idatz-zatietan adierazitako neurriak erabili ahal izango dira, soilik, a-f idatz-zatietan adierazitako neurrietatik bi gutxienez aplikatu ondoren bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak zuzentzea lortu ez bada</p>
<p>e) Nahita edo bidegabeko erabileragatik ikastetxeko lokalei, altzariei, materialari edo dokumentuei , edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzei kalteak eragitea, jokabide hori ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea ez bada.</p>	
<p>f) Ikastetxeetako Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak hartutako baliozko erabakiak nahita ez betetzea.</p>	
<p>g)Besteek ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea, alde zuzenetik haiek, edo, hala badagokio , haien gurasoek edo legezko ordezkariak, esanbidez baimena eman gabe grabazio-baliabideak erabiliz. Aldagela edo komunetan mugikorra edo antzeko gailua behar den bezala ez edukitzea. (XIX. eranskinean adierazitakoaren arabera)</p>	
<p>h) Beste edonori bere eskubidea baliatzeko aukera galaraztea, indarkeria fisikorik erabili gabe, eta beste edonor bere borondatearen aurka zerbait egitera behartzea, betiere indarkeriarik gabe.</p>	

<p>i) Autobusean edo eskola-jantokian ordena era larrian aztoratzen duten portaerak , banakakoak edo talde mailakoak , bizikidetzarako oso portaera larria ez diren kasuetan</p>	
<p>j) Arriskua sortzea, lesio fisikoak eragin ditzaketen objektuak zuhurtziagabekeriak erabiliz.</p>	
<p>k) Ikastetxeko langileei gezurra esatea, informazio faltsua ematea edo norberaren nortasuna ezkutatzea, horren ondorioz hezkuntza-komunitateko beste kide batzuei kalte egiten bazaie.</p>	
<p>l) Diskriminazioa dakarren edozein egintza edo jokabide, diskriminazio horren arrazoa edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fiskoa edo psikikoa, osasun-egoera, kultura, erlijioa, sinismena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial.</p>	
<p>m) Jokabide desegokiren bat gehenez ere hiru aldiz egitea hiruhileko akademiko berean, betiere aurreko biak zuzendu badira, eta, ikasle adingabeei dagokienez, gurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazi bazaie. (Hau aplikatu ahal izateko idatzita jasota eduki beharko da aldez aurretik neurri zuzentzaileak aplikatu direla, eta ikasleak adingabeak badira, baita haien gurasoei edo legezko ordezkariari neurri horiek aplikatu izana jakinarazi zaiela ere)</p>	
<p>n) Norberaren betebeharrak ez betetzea dakarren beste edozein jokabide, betiere hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzeko edo beren betebeharrak betetzeko eragozpenik sortzen ez badie eta jokabide hori hurrengo artikuluan bilduta ez badago, ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideen artean, hain zuzen ere.</p>	

IKASTETXEAREN BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA ERAGITEN DIOTEN JOKABIDEAK	ARDURADUNA, PROZEDURA ETA ONDORIOA
a) Ikastetxeko gobernu-organoekiko edo beren eskumenak betetzen diharduten irakasleekiko diziplina egintza edo obediencia ukatze esplizitu guztiak, ezarritako neurri zuzentzaileak betetzeari uko egitea barne. Hezkuntza komunitateko kideen aurkako adierazpen oso laido garri edo iraingarriak edozein modura adierazita ere: ahoz, idatziz edo baliabide informatikak edo ikus-entzunezkoak erabiliz.	Ikaslearen jokabidearen lekuko izan den irakasle edo agintari akademikoak idatzizko txostena emango dio ikaslearen tutoreari eta zuzendaritzari gertatutakoa azalduz: - Zuzendariak "Ikastetxearen bizikidetzaren aurkako jokabidea"-k zuzentzeko neurri bat edo gehiago aplikatuko ditu eta horiez gain honako hauetako edozein: a) Lan hezigarriak eskola-ordutegitik kanpo egitea, edo ikastetxeko jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak, edo, hala badagokio, eragindako kalte materialak konpontzeko lanak, betiere sei hilabetez gehienez ere. b) Arlo edo irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara joateko eskubidea etetea hiru eskola-egunetatik hogeira bitartean, . Horren ondorioz ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko, betiere lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleek kontrolatuta. c) Ikastetxera joateko eskubidea etetea hiru eskola-egunetatik hogeira bitartean, eta adierazten zaizkion prestakuntza-jarduerak egiteko obligazioa, dagokien irakasleen kontrolpean. d) Eskolaz kanpoko jardueretan eta ikastetxetik kanpoko jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea edo eskola-garraioko zerbitzua edo jangela-zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea. b), c) eta d) neurriak aplikatuko dira baldin eta a) neurria aplikatutakoan bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzerik lortu ez bada. Ikasleari ikasturte berean behin baino gehiagotan ezari bazaizkio ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzeko neurriak (m jokabidea ezik), Zuzendariak ikaslearen
b) Diskriminazioa dakarten edo adierazten duten irainak erabiltzea, diskriminazio horren arrazoia edozein izanik: jaiotza, adina, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun egoera....	
c) Jazarpen sexista, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari jarraiki halakotzat hartuta.	
d) Hezkuntza komunitateko edozein kideren aurkako eraso fisikoa, lesio eragiteko arrisku larri sortzen bada.	
e) Ikastetxeko hezkuntza-komunitateko kideak beren osasunerako eta osotasun pertsonalerako oso kaltegarriak diren jokaerak egitera bultzatzea, hala nola tabakoa, alkohola eta drogak kontsumitzea bultzatzea.	
f) Bizikidetzaren aurkako jokabide guztiak, taldean egiten direnean edo haien berri nahita zabaltzen denean, ahoz, idatziz, ikus-entzunezko edo baliabide informatikoen bidez; baita eskola jazarpeneko jokabideak ere.	
g) Liskar edo jokabide erasokorrak eragitea edo jokabide horietan parte hartzea, betiere lesioak eragiteko arrisku larria sortzen bada.	
h) Kalteak eragitea ikastetxeko instalazioei edo ondasunei, baita bertako langileen, beste ikasleen edo hirugarrenen ondasunei.	
i) Ordena nahasteko jokabideak eragitea autobusean edo eskola-jangelan, edo jokabide horietan parte hartzea, arrisku egoeraren bat sortzen bada eskola-elkarteko edozeinentzat.	

j) Grabazio-baliabideak erabiliz, besteek ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea, bereziki intimitatea eta irudia larriki kaltetzen duenean.	matrikula beste ikastetxe batera lekuz aldatzea proposatu ahal izango dio Hezkuntza Administrazioari. Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabideak eskola-jazarpenerako egoera sortzen badu edo hari eustea badakar, edo jokabide hori ikastetxeko irakasleren bati eraso egitea bada, lekualdatze hori zuzenean proposatu ahal izango da, ikasleari alde aurretik neurri zuzentzailerik ezarri ez bazaio ere. Gainera gauza bera egin ahal izango da hezkuntza komunitateko beste edozein kideri eraso fisiko bereziki larria egiten zaionean.
k) Ikastetxeko jarduneko ekintzetan beste edonoren izena erabiltzea. <ul style="list-style-type: none"> • Beste norbaiten pasahitza lapurtzea eta/edo zabaltzea. • Beste baten kontuan sartzea. • Beste baten izenean aritzea (nortasuna lapurtzea edo ordezkatzeta) Hauek, gainera, epaitegietan salatu daitezkeen ekintzak dira, delitu direlako.	
j) Ikastetxeko jarduneko egintzetan beste edonoren izena erabilia aritzea.	
k) Euskarri idatzian edo informatikoan dagoen eskolako dokumenturen bat edo erregistroren bat kaltetzea, trukitzea edo aldatzea, baita dokumentu akademikoak ezkutitzea edo baimenik gabe ateratzea ere.	
l) Delitu edo hutsegite penala den edozein egintza, nahita egin bada.	
m) Ikasturte berean gehienez ere hiru aldiz izatea "Ikastetxearen bizikidetzaren aurkako jokabidea", betiere aurreko biak zuzendu badira eta gurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazi bazaizkie.	
n) Norberaren betebeharrak ez betetzea dakarren edozein jokabide hezkuntza-komunitateko gainerako kideen edo beste edonoren eskubide hauen aurkakoa bada: osasunerako, osotasun fisikorako, adierazpen-askatasunerako, parte hartzeko, biltzeko, diskriminaziorik ez jasateko, ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea.	

DIZIPLINA ARAZOAK PREBENITU ETA KUDEATZEKO PROTOKOLOA

- Gela barruan ikasleekin sortzen diren portaera desegokiak bertako irakasleak saiatu behar du kudeatzen, ondorioak jarritz; gertaeraren berri emango du gelako jarraipen orrian, Gorosabelen.

- Ikaslearen portaera larria baldin bada, gelako irakasleak zaintza gelara bidaliko du. Posiblea baldin bada, lana jarriko dio, han egin dezan. Kasu honetan irakasleak txostena egin behar du, tutoreari eta dagokion koordinatzaileari emateko.
- Zaintza gelak:
 - Orixe:
 - Zaintzako irakaslea kanporatutako ikasleaz arduratuko da: lan egiten duela ziurtatu, iskanbilarik sortzen ez duela... Halaber, zaintza gelako eguneko orriko kanporatuen zutabeen ikaslearen izena apuntatuko du.
 - Kanporatutako ikasleak zaintza gelan portaera desegokia badauka eta zaintzako irakasleak ezin badu egoera menperatu, zuzendaritzara joko du.
 - Zaintza gelan irakaslerik ez badago, gelako irakasleak ikasle kanporatua zuzendaritzara bidaliko du (zuzendaritzak baloratuko du zer egin).
 - Gorosabel:
 - Ez da komenigarria zaintza gelan ikasleak pilatzea.
 - Bi ikasle izanik ere, horiek gatazkatsuak baldin badira, bat bertan geratuko da eta bestea beste toki batera eramango dugu: Gorosabelen bisita gela edo normalkuntza gela, beti ere ikasle kanporatuak dauden tokia zainduz (posiblea baldin bada, bertan egonda); Orixera ere eraman dezakegu liburutegira, zaintza gelara, bisita-gelara (ikasketaburua edo zuzendari albokoa baldin badaude beren bulegoan), batxilergoko geletara (nork eta nora eraman: hau egiteko prest dauden batxilergoko irakasleekin plan bat egin beharko litzateke).
 - Zaintzara bidalitako ikasleak beti lana izango du. Komenigarriena da gelatik lana ekartzea, baina, hala ez balitz, ikasleak AJAko pasarteren bat kopiatuko du.

- Zaintzara bidalitako ikasleak komunera joan nahi badu, gatazkatsuen kasuan, zaintzako irakasleak ikasleari lagundu beharko dio.
 - Zaintza gelan sortzen diren arazoak zaintzako irakasleak konpontzen saiatu behar du. Ez balitz posiblea izango, zuzendaritzako norbaiti jakinaraziko dio, neurriak har ditzan.
- Ustezko droga-kontsumoaren aurreko protokoloa:
 - Ikasleak droga kontsumitu duen susmoa badago, baina lan egiteko moduan badago, gertatutakoa tutoreari komentatu.
 - Ikasleak droga kontsumitu duen susmo argia badago eta ez badago lan egiteko baldintzetan, etxera deitu, bila etortzeko.
 - Ikasleak droga kontsumitu duen susmo argia badago eta fisikoki gaizki badago edo agresiboki jokutzen badu, etxera deitu eta, larria baldin bada, 112ra ere deitu.
 - Jolas-orduko eta bazkal osteko garaiko zaintzak arretaz egingo dira (guk atsedendietakoak, jangelako zaintzaileek bazkalondokoak), tabakoa eta kanabisaren kontsumorik ez gertatzeko.
 - Hartutako erabakiak betearazi behar dizkiegu ikasleei: atsedenik gabe utzi badugu ikasleren bat, jolas garai horretan ikasleak neurria betetzen duela ziurtatu behar dugu; bestela, arazo baten ondorengo txostena egingo da.
 - Portaera desagokiak sortzen dituzten ikasleak ez dira irteeretara ezta txangoetara ere joango.
 - Neurri zuzentzaileak ikasleak izandako portaera desagokiarekin zerikusia izaten saiatuko gara: giza lanak egitea aproposa izan daiteke (patioa garbitu, hostoak eta adarrak jaso, paperontziak hustu...).
 - Ikasleen portaera desagokien aurrean, ze ondorio mota jarriko den eta nork ezarriko dituen neurri zuzentzaileak erabakitzeko, diziplina araudiak ezartzen duen prozedura jarraituko dugu, ikasle eta portaerak sailkatzen dituzten fase desberdinak kontutan hartuz.

JANTOKIA

Jantokiaren kudeaketa arduraduna

Ikastetxeko zuzendaritzak hurrengo zereginak eskuordetuko dizkio jangelako irakasle arduradunari, beti ere, honek kargua borondatez hartu badu.

- a) Janari-zerbitzua antolatzea eta menuen jarraipena egitea.
- b) Jantoki-zerbitzura atxikitako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpeko langileriaren buru izatea eta kanpoko langileen funtzioen gaineko aginpidea izatea, enpresa hornitzaileen eta haien langileriaren arteko lan-harremanei, halakorik egongo balitz, kalterik egin gabe.
- c) Jankideek egin beharreko ordainketen jarraipena egitea, bai haien ikastetxeko jankideena bai zerbitzua erabiltzen duten gainontzeko ikastetxeetakoena. Jantoki partitua badira, kudeaketa ekonomikoa bakarra izango da eta jantokia kokatuta dagoen ikastetxeko kudeaketa ekonomikoa orokorraren baitan egingo da.
- d) Jantokiko fondoek kontrol zuzenaz arduratzea.
- e) Gainbegiratze-zereginen arduratzea. Gainbegiratze-zereginak honakoak izango dira: zerbitzua ematen den bitartean ikastetxean egotea eta jantokiko diziplinaz nahiz funtzionamenduaz arduratzea.
- f) OOGari ikasleen partehartzerako programak proposatzea.
- g) Sukaldeko tresneriaren inbentarioa aldi berean behin prestatzea eta gaurkotzea eta behar direnak berriz jartzea.
- h) Zerbitzua emateko kontratatutako enpresaren zerbitzuaren ezaugarriak eta kalitateari buruzko txostena aurkeztea OOGari eta instalazioak behar dituen obra eta hobekuntza proposatzea.
- i) Elikagaien eta lokalen higiena zaintzea.
- j) Zerbitzuak behar bezala funtziona dezan, egoki ikusten den beste edozein funtzio, bai eta indarrean dagoen legediak agintzen dizkion bestelako funtzioak ere.

Bereziki, irakastordu guztia bete gabe dituzten irakasleen artean eskuordetu ahal izango da. Jantokiaren kudeaketa eta administrazio zereginen ardurak irakastorduek bete gabe dituzten irakasleek hartzen badute, ordu murrizketak egitea eskatuko du.

Jantokiaren kudeaketa arduradunak zaintza-lanak ere egingo ditu, eta jantokiko begiralea izango balitz bezala zenbatuko da ratioen ezarpenari begira.

Sukaldeko langileak

Sukaldeko langileen zereginak honakoak dira:

- 1.- Janariak prestatzea.
- 2.- Janaria behar bezala aurkeztea eta jantokira eramatea.
- 3.- Sukaldea eta bertako tresnak garbitzea.
- 4.- Jantokia garbitzea eta jantokiko instalazioak prest izatea.
- 5.- Jantokiko funtzionamenduari eragiten dioten gorabeheren berri ematea jantokiko arduradunari, besteak beste lehengaien erosketen eta tresnen mantenimenduen gainean.
- 6.- Zerbitzuak behar bezala funtziona dezan, egoki ikusten den edozein funtzio.

Janaria arloko enpresa homologatu batek egiten badu, kontratatutako enpresa horretako langileek egin beharko dituzte goian esandako zereginak, eta enpresak bera arduratuko da zeregin horiek ondo betetzen direla egiaztatzeaz.

Jantokiko begiraleak

Jantokiko begiraleen zereginak honakoak dira:

- 1.- Jantokian ordena zaintzeaz arduratzea.
- 2.- Ikasleen ardura eta zaintza, ikasleak jantokian daudenean, bai eta jantokian sartu aurreko eta bazkal osteko atsedendietan daudenean ere.
- 3.- Janaria mahaian ipintzea eta mahaitik jasotzea.
- 4.- Jantokiak hezkuntza-izaera duenez, ikasleen partehartzea ere sustatuko da, eta honela egingo da: mahaia ipintzen eta jasotzen erakutsiko zaie eta mahaia zerbitzatzeko erakutsiko zaie.
- 5.- Ikasleen partehartzerako programak garatu: osasunerako hezkuntza, gizarte-azturak eskuratzea eta aisialdia.
- 6.- Zerbitzuak behar bezala funtziona dezan, egoki ikusten den edozein funtzio, bai eta indarrean dagoen legediak agintzen dizkien bestelako funtzioak ere.

JANGELAREN ARAUDIA

1. JANGELA ERABILTZEN DUENAREN ESKUBIDEAK

1. Ikasleak, jangelako zerbitzua higiene-egoera egokian hartzeko eskubidea.
2. Ikaskide, begirale nahiz jangelako langileen aldetik errespetuzko trataera izateko eskubidea.

3. Egun bakoitzeko menua alde zuzenetik ezagutzekoa, eta berarekin hobetzeari buruzko iritzia emateko eskubidea.

2. JANGELA ERABILTZEN DUENAREN BETEBEHARRAK

1. Jangela-garaian ere, Institutuko Elkarbizitzarako Araudia errespetatuko du.
2. Jangelako kide guztiak, ikaskide, begirale nahiz jangelako langileak, errespetuz tratatuko ditu.
3. Jangelako zerbitzuak zuzen erabiltzeko dauden arauak errespetatu behar ditu.
4. Jardunbide arrunta aldarazten duen edozein alderdi (ordainketak, ikastetxetik irtetea, menu berezia, botikak hartu beharra, ...) jangelaren arduradunari adieraziko dizkio alde zuzenetik.

3. JANGELAKO ARAUDIA

1. Ikasle guztiak jangelaren prestaketan parte hartuko dute. Horretarako jangela arduradunak antolatutako txandaz zenbait ikasle alde zuzenetik sartuko dira jangelara eta dagokien mahaiko mahai tresnak jarrito dituzte.
2. Mahaian dauden bitartean, ikasleek ondo eserita, lasai hitz eginez, builarik egin gabe, eta mahaian edo erretiluan kolperik eman gabe egon behar dute.
3. Mahaian dauden bitartean, telefonoak, musika tresnak, makina elektronikoak e.a. ezin dira erabili.
4. Ikasleak ezin dira mahaitik altxatuko jangela arduradunak baimena eman arte.
5. Jatorduan, kontuz erabiliko dira jakiak, mahaira edo lurrera eror ez daitezkeen; hala gertatuz gero, bota duenak berak jasoko du eroritakoa.
6. Mahaien bilketa errazteko, Ikasle guztiak jasoko dituzte erabili dituzten tresnak (edalontziak, ezpainzapiak, erretiluak, etab.) mahaiaren alde batean denak pilatuz.
7. Mahaitik altxatzea eta jangelatik ateratzea modu ordenatuan egingo da, inor bultzatuz gabe eta jangela arduradunak baimena emandakoan.

8. Mahai bakoitzeko arduradunak, mahaiaren bukaerako garbiketa egingo du.
9. Jangelatik irten ondoren, ikasleak ezin dira eskola eremutik atera. Arratsaldeko klase orduak hasi bitartean, Gorosabeleko patioan egongo dira. Arduradunaren baimenik gabe ezin izango dira ikastetxeko beste solairuetan egon.

4. HUTSEGITEAK

Hiru hutsegite-mota bereiziko dira: hutsegite arinak, larriak eta oso larriak.

4.1. HUTSEGITE ARINAK

1. Jangelako materiala (basoak, koilarak eta beste tresnak) ongi ez erabiltzeagatik hondatzea, edo mahaiari kolpeak ematea.
2. Mugikorra, mp3, nintendo edo antzeko makinak erabiltzea bazkalorduan.
3. Janaria era desegokian erabiltzea: lurrera edo mahai gainera nahita botatzea, urarekin jolasean ibiltzea, ogia elkarri botatzea, e.a.).
4. Jangelako jardun normala arin oztopatzea: sartzeko edo irteteko txanda ez errespetatzea, arduradunaren agindurik gabe mahaitik altzatzea, ilaran daudenean bultzaka ibiltzea, e.a.
5. Beste bazkaldarren tresnak nahita zikintzea.
6. Baimendu gabeko ikastetxeko beste eremuetan egotea.

4.2. HUTSEGITE LARRIAK

1. Jangelako kideak, -ikaskideak, sukaldariak, begiralea edo jangelako arduraduna, larri iraintzea edo mehatxatzea.
2. Edozein kide jotzea edo beste batek norbait jo dezan eragitea.
3. Jangelako materiala larri hondatzea, edo gaizki erabiltzeagatik egoera larria sortzea.
4. Besteen gauzak ebastea: janaria, eskola-materiala edo dirua.
5. Ikaslearen txandan, jangelaren prestaketan eta txukunketan laguntzeari uko egitea.

6. Jangelaren arduradunak, sukaldariak edo begiraleak emandako aginduak ez betetzea.
7. Baimenik gabe eskola-barrutitik irtetea.
8. Jangelatik janariak ateratzea.
9. Jolastokian besteek ere jolas egin dezaten eragozteak.
10. Hiru hutsegite arin metatzea.

4.3. HUTSEGITE OSO LARRIAK

1. Aldez aurretik prestaturiko edota talde batek burututako hutsegite larria.
2. Hiru hutsegite larri metatzea.

5. NEURRIAK

1. Hondatutako materiala, kasu guztietan, hutsegitea egin dutenek ordaindu, konpondu edo berria jarriko dute.
2. Hutsegitea arina denean, arduradunak idatziz jasoko du gertatutakoa eta egindakoaren ondorioak adieraziko dizkio egileari. (Jangelaren garbiketan lagundu beharko du: zaborrak atera, erratza pasa e.a.)
3. Telefono, mp3 eta antzeko aparatuak, jangela arduradunak hartuko ditu eta gurasoei entregatuko zaizkio.
4. Hutsegitea larria denean, jangelako arduradunak Zuzendaritzari emango dio hutsegitearen berri. Honek, ikasleari eta gurasoei jakinarazi ondoren, ikasle hori bi edo bost egunez jangela-zerbitzurik gabe uztea erabakiko du, hutsegitearen larritasunaren arabera. Horrelako kasuetan, ikaslearen gaineko ikastetxearen erantzukizuna ordutegi lektibora mugatuko da.
5. Hutsegitea oso larria denean, Institutuko Elkarbizitza-Batzordeari jakinaraziko zaio. Batzorde honek, ikaslearekin eta gurasoekin hitz egin ondoren, ikaslea ikasturte-amaiera arte jangela-zerbitzurik gabe uztea erabaki lezake.

XV. ERANSKINA

Testuliburu eta Curriculum-materialen Kudeaketa Solidarioa egiteko Programaz arduratzen den zentroko batzordea.

2010-2011 ikasturterako jarraibideak izeneko Hezkuntza Saileko 2010eko maiatzaren 10eko ikastetxeen Zuzendariaren eta Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendariaren ebazpenean oinarritzen da programa

XEDEA

2010-11 ikasturtean DBHko 1. mailako ikasleentzako lau urtetan berrerabili daitezkeen testu-liburu eta zentroak prestatutako curriculum materialak eta urte bateko banan-banan lan egiteko koadernoen kudeaketa solidarioa

APLIKAZIO EREMUA

1. mailako ikasle, ikastaldetako tutore guztiak eta 1. eta 2. mailako irakasle delegatua. Gainera, prozesuaren funtzionalitatearen arabera programan eragina duten guztiak (Liburu-batzordekideak, zuzendaria, idazkaria, liburu zaintzailea eta abar)

EGITEKOAK ETA ERANTZUKIZUNAK

Zuzendaria

- OOG-ren konbokatu eta presiditu. Programa bultzatu eta Hezkuntza Saileko jarraibideak konplitzeko eta epeak betetzeko bitartekoak jarri.
- AJAn eta Urteko Planean, programaren araudia eta organo-eraketa jaso.
- Batzordea presiditu edo irakasle-ordezkaria izendatu.
- Programari jarraipen orokorra egin eta kontrolpean izan.

Idazkaria

- Programaren kudeaketa ekonomia egin, Hezkuntza Sailak esandako jarraibideen arabera.
- Liburu-batzordeko idazkari lanak egin.
- Liburu-denda edota argitaletxeekin hitzarmenak egin eta liburu-batzordeak hartzen dituen erabaki ekonomikoak konplitu.

Departamendu buruek

- Programako testu-liburu eta material curricularrak aukeratu, jarraibideak eta liburu-batzordeak ezarritako irizpideak betez.
- DBHko koordinatzailearekin eta 1. eta 2. kurtsoko irakasle-delegatuarekin koordinatu.

DBHko Koordinatzailea eta 1. eta 2. DBHko Irakasle-delegatua

- Departamendu didaktikoekin programako testu-liburu eta material curricular aukeraketa koordinatu.
- Tutoreek, programa jarraitzeko irizpideak eta egin beharreko lanak argi azaltzeko bitartekoak jarri eta beraien lana koordinatu, horretarako urteko idatzizko plangintza eta erregistroa eginez.
- Programaren prozesua kontrolpean izan.

Tutorea

- Heziketa-jarduera denez, tutoretza saioetan ikasle taldearekin programaren edukiaren garrantzia garatu. Programan sartutako ikasleekin eta familiekin harremana izan, hartutako erabakien ondorioak esplikatzen eta programako arauak eta liburu-batzordearen erabakiak konplitzeko .
- Ikastaldeko irakasleekin eta irakasle-delegatuarekin koordinatu.
- Ikastaldeko ikasleekin ekaina eta iraileko liburuen eman/jaso prozesuan kolaboratu.

Liburuzaina

- Liburu-batzordeak eta OOGak erabakitako eran programako liburu eta material kurrikularren erregistroa eraman, ABIES programako datu-basea kontrolpean izanez.
- Ekaina eta Iraila bitartean liburuak gordetzeaz arduratu. Irailean berehala banatzeko, ondo sailkaturik izan eta liburu-fondoa seguru izateko baliabideak jarri.
- Programa betetzeko jarritako irizpideak konplitzeko, liburutegiaren antolaketaz arduratu.
- Idazkariarekin eta irakasle-delegatuarekin koordinatu.

2016-17 ikasturtea

SARRERA

2016-17 ikasturterako jarraibideak izeneko Hezkuntza Saileko 2015eko ekainaren 23koa, Hezkuntza sailburuordearena, Euskadiko Autonomia Erkidegoko eskola publikoetako

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleentzako ikasmaterialen Programari buruzkoa. Bertan agertzen dira: *Lege oinarriak, Programaren xedea eta aplikazio-eremua, programaren kudeaketa, erabilera eta zaintza, 2016-17 ikasturterako finantziarioa, fidantzak dirutan, eskuratzeko prozedura, kudeaketa ekonomikoa, kontrola eta uko egiteak eta bateraezintasunari* buruzko atalak.

Horrela, 5. atalak, zentroek ikasleen esku utzitako testuliburuak eta curriculum-materialak erabiltzeko eta zaintzeko arauak barneratuko dituztela beren antolaketa eta funtzionamendu arautegietan (AJA) dio.

Goian aipatutako ebazpenean esaten den moduan etorkizunean ezinbestean, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko material didaktikoen programak, gero eta material kurrikular digital gehiago sortzeko eta erabiltzeko balio behar du. Material kurrikular argitaratuekin batera erabili beharko dira material digitalak, gero eta eskola gehiagok *Sare Hezkuntza Gelan* proiektua aurkez dezaten.

Beraz, Orixe Institutuak, lau ikasgaitan, Euskara, Ingelera, Biologia-Geologia eta Teknologian berriztatze digitalean sartzea erabaki du. Horrek esan nahi du lizentzia digitalak erosiko direla ikasgai horietarako. Horrela bada, DBH-1eko Euskara, Ingelera, Biologia-Geologia eta Teknologia eta DBH-2ko Ingelesa eta Teknologia modu digitalean erabiliko dira.

ARAUAK

- 1) Kudeaketa solidarioko testuliburu eta material curricularrek Hezkuntza departamenduaren jabetza dute eta Orixe Institutuko datu-basean erregistratuak egongo dira.
- 2) Programan sartzea familien borondatezko erabakia da. Partehartzea, Institutuak eskainitako beheko konpromiso-orria ikaslearen aita, ama tutore edo ordezkari legalak sinatu ondoren indarrean jarriko da.
- 3) Testuliburu eta material zerrenda Ikastetxeak ezarriko du eta irailan Institutuan bertan emango zaizkio liburuak ikasleari. Hartze-agiria sinatu ondoren eta Hezkuntza Sailak ezarritako ekarpen ekonomikoa eginga badago.
- 4) **Ikaslea eta familia izango dira liburu eta materialen zaintzaileak. Kurtso amaieran Institutuan utziko dira eta berrerabilgarriak egon beharko dute liburu-batzordearen iritziz.**
- 5) Programako liburu eta materialak hondatzen edota galtzen dituenak bere balioa ordaindu beharko du dirutan edo liburu berriak ekarri. Hori ezean, hurrengo urteko programatik kanpo geratuko da.

- 6) Familiek liburuak eta materialak plastiko ez-itsasgarriarekin forratuko dituzte. Etiketa batean ikaslearen izena eta taldea gehi zenbakia jarriko dute (adib.:Josune Jauregiberri 1A-05). Etiketak ikastetxeak banatuko ditu
 - 7) Institutuak argitaratutako zerrendako liburu eta material curricularrak soilik sartuko dira programan.
 - 8) Institutuan, OOG-k sortutako liburu-batzordea da programaren kudeaketa eta jarraipenaren ardura duena. Batzordearen ebazpenak betetzea ezinbestekoa izango da eta dagozkion azalpenak OOG-ri soilik emango dizkio.
 - 9) Kurtso amaieran programaren ebaluazioa egingo da eta hobekuntzak proposatuko dira. Prozesuan eskola komunitateak parte har dezake eta aldaketak OOG-k onartuak izan beharko dira.
 - 10) **Hezkuntza Sailak ezarritako ekarpen ekonomikoa: DBH1-en 41€ eta DBH2-n 45€.** Hori konplitzen ez duenak, programan parte-hartzeari uko egiten diola adieraziko du Institutuko idazkaritzan eta ukatze-orria, III. Eranskina, sinatzera behartua egongo da. Une horretan ikasturteko ikasle-liburu zerrenda banatuko zaio uko egin duenari.
 - 11) Liburu-batzordeak programan parte hartzeko fidantza gisa diru kantitate bat ezar dezake. Batzordearen ustez programa ondo joanez gero fidantza itzuliko da. Ikasturte honetan ez da egongo indarrean.
- Liburu-batzordea da programaren antolaketa, egutegia, arauak eta beharrezkoak diren bestelako neurriak eratu eta eguneratzeko ardura duen bakarra. Ondoren, erabaki horiek OOGren onarpenera izan beharko dute.

XVI. ERANSKINA

KARGU ETA BATZORDE BERRIAK ETA BERAIEN ESKU GERATZEN DIREN FUNTZIOAK

Sarrera.-

Zuzendaritzako eta gainerako karguei buruz, 2010-2011 Ikasturtea antolatzeko moduari buruzko ebazpenean jasotzen dena kontuan hartuta eta AJA honen III. ATALAn, 14. artikulua 3. puntuan, jasotzen denaren arabera, zera argitzen da: Zuzendaritza taldeak, berari egoki deritzon funtzioak ikastetxeko irakasleen esku utz ditzakeela, batez ere, zikloko edo etapako koordinatzaileen esku edota proiektu zehatzez arduratzen diren irakasleen esku. XVI. eranskin honetan zeintu diren kargu horiek eta zernolako funtzioak dituzten.

- A) Koordinatzaileen Batzordea (KNB). Ikasketa Buruak, DBHko eta Batxilergoko koordinatzaileek eta irakasle ordezkariak osatzen dute batzorde hau. Batzorde honen esku irakasleen diziplina eta irakasleen arteko harreman-arazoak geratzen dira.
- B) Berrikuntza Taldea (BT). Zuzendariordeak eta proiektuen arduradunek osatzen dute batzorde hau. Batzorde honen esku berrikuntza pedagogikoa eta irakasleen formakuntza antolakuntza geratzen da.

XVII. ERANSKINA: ESKOLA 2.0 - ARAUDIA

- ❑ Ordenagailu bakoitza kode bidez identifikatua izango da. Azalean, begi bistan egongo den pegatinaz.
 - Kodeak, gelaren izena eta zenbaki bat izango du,.
Adib: IKDBH1A-01, IKDBH1A-02, ... , IKDBH1A-23
- ❑ Ikasle bakoitzak, bere zenbakiari dagokion ordenagailuaren ardura izango du.
- ❑ Ikasleak, ordenagailuaren erabilpen txarra egingo balu, horrek, ikaslearen diziplina falta larria suposatuko du. Ikasleak gainera ordenagailu horren kalteen konponketa ordaindu beharko du.
- ❑ Erabilpen txarra suposatuko du, onartu gabeko edozein konfigurazio edo ekipamenduko edozein hausturak.
- ❑ Ikasleak, dagokion ordenagailuarekiko, honako ardurak izango ditu:
 - Ordenagailua kanpotik zaindu (markak, pegatinak, urratuak, ..)
 - Ordenagailuaren erabilera zaindu (softwareak, konfigurazio aldaketak, bisitatutako web guneak, ...) bere gain hartuko ditu.
- ❑ Ordenagailuak dagokien gelako armairuan egongo dira, uneoro giltzapetuta.
- ❑ Saioa bukatzerakoan ordenagailu guztiak armairuan giltzapean utziko dira.
- ❑ Ordenagailuak armairutik atera zein armairura itzultzea era antolatuan egingo da. Ikasle arduradun bat izendatuko da lan hori egiteko. Lan hau txandaka egin daiteke, helburua armairuaren atean pilaketak ez sortzea da.
- ❑ Ordenagailuak erabiltzerakoan, irakasleak, jarraipen/erabilpen fitxa beteko du, zein saiotan erabili diren argi utziz (eguna eta ordua), gainera ordenagailuen inguruko edozein intzidentzia ere idatziko du, araudia bete dela ziurtatuz.
- ❑ PREMIA arduraduna (astean behin) jarraipen/erabilpen fitxak kontrolatuko ditu, balizko arazoak konponbidean jarriz.

- ❑ Ordenagailuen bateria erabat kargatzeko behar den denbora dela eta (seinaka kargatzen dira) azkeneko saioko irakasleak kargatzen jarriko ditu.
- ❑ Irakaslearen ordenagailua gelarekin dago lotuta, ez irakasle batekin, gelako irakasle guztien ardura da erabilera egokian mantentzea.

XVIII. ERANSKINA:HEZKIDETZAKO ETA GENERO-INDARKERIAREN PREBENTZIOKO ARDURADUNA

Orixeko BHI ESKOLA HEZKIDETZAILEA bihurtu nahian, hezkidetzako eta genero-indarkeriaren prebentziorako plana eratzeari ekin diogu. Horretarako, irakaslea den arduradun bat izandatu dugu. Era berean, 2013-14 ikasturteko OOGko lehenengo bileran ere gizon-emakumeen berdintasunerako neurriak sustatzeko pertsona bat izendatua izan zen. Bi pertsona hauek lankidetzan arituko dira.

Hona hemen ikastetxeko hezkidetzako eta genero-indarkeriaren prebentziorako arduradun horri egozten dizkiogun eginkizun eta betebeharrak:

a) EGINKIZUNAK

- Hezkidetzako eta genero-indarkeriaren prebentziorako plana eratzeari arduratzea.
- Berdintasun Batzordea dinamizatzea.
- Zuzendariordearekin batera, arlo honetan prestakuntza beharrak jasotzea eta proposamenak egitea.
- Gai honen inguruan dagoen materialaz arduratzea.
- Berdintasunari eta genero-indarkeriari dagokien Orixeko diagnostikoa egiteko prozesua koordinatzea.
- Orixeko hezkidetzako eta genero-indarkeriaren prebentziorako zuzendutako proposamen berriak martxan jartzea koordinatzea

b) BETEBEHARRAK

- Hezkidetzako eta genero-indarkeriaren prebentziorako plana eratzeko antolatutako mintegian parte hartzea.
- Berdintasun Batzordean parte hartzea.
- Tolosako Berdintasun Mahaian parte hartzea eta deitzen diren bileretara joatea.
- Gai honen inguruan dagoen materiala bildu eta ordenatzea.
- Orixeko Hezkuntza Komunitateko partaide guztiei material horren berri ematea.

XIX. ERANSKINA:

MUGIKOR ETA ANTZEKO TRESNEN ERABILERA ORIXEN

- Orokorrean, baimendutako gune eta uneetatik kanpo, gailua soinurik gabe, bibrazioarik gabe, inolako seinalerik emititu gabe eduki behar da, jasota.
- Mugikorrak erabiltzeko ondorengo gune eta uneak baimentzen dira:
 - Patioak goizeko lehen saioa baino lehen, jolas garaietan.
 - Ikasgela, beti ere irakasleak horrela baimentzen badu eta honek adierazitako erabilerarako soilik.
- Mugikorrik gabeko guneak izango dira:
 - Ikasgela, irakasleak baimendu ezean.
 - Jangela
 - Liburutegia
 - Pasabideak
 - Aldagelak
 - Komunak

(Aldagela eta komunitan mugikorra behar den bezala ez edukitzea bizikidetzaren aurkako jokabide bezala hartuko da)

XX. ERANSKINA

IKASLEEN CHROMEBOOK GAILUEN ERABILERA ORIXEN

- Gailua beharrezkoa izango da ikastetxean zein etxean egin beharreko lanerako. Hortaz, gailua egunero behar bezala kargatzeaz eta garraiatzeaz arduratu beharko du ikasle bakoitzak. Gailua eskolara ez ekartzea edo egoera egokian ez ekartzea (bateria kargatu gabe eta abar) testuliburua edo koaderno ahaztea bezalako hutsegitea izango da. Hutsegite hori errepikatzeak ikastetxeko arautegian jasotako neurri zuzentzailea eragin ahal izango du.
- Ikaslea da bere ordenagailuaren zaintzaren erantzulea, beraz, gailua lokalizatuta egon behar da momenturo. Eskola ordutegian, Chromebooka (edo ikastetxeak esleitu dion eskola 2.0 eramangarria) erabiltzen ez duenean, takilan gordeko da (gelan takila egonez gero), edo mahaiaren apalean edo gelako apalategian..
- Ez da gailu bat ikuskatu gabeko eremu batean utzi behar. Ikuskatu gabeko gailu bat aurkituz gero, irakasle bati edo ikastetxeko arduradunen bati jakinarazi beharko zaio lehenbailehen.
- Gailua ikastetxeak emandako etiketen bidez identifikatuko da.
- Chromebook-ak gelan liburutegian (jolas garaietan) eta bakarrik erabili daitezke.
- Ordenagailua irakasleak esaten duenean soilik aterako du bere gordelekutik, eta irakasleak adierazitako helbide edo aplikazioetan sartuko da, ez beste inon.
- Gailuak isilduta egon beharko du beti, irakasleak hezkuntza-helburuak direla-eta aurkakoa adierazten duenean izan ezik. Irakasleak bidezkotzat ikusten badu, belarrietarako entzungailuak erabili ahal izango dira.
- Ikasle bakoitza bere ordenagailuan arituko da, eta ezingo du beste ikaskide batena erabili, ez bada bere jabearen baimenarekin. Ezin da zabaldu, erabili edo aldatu norberarena ez den fitxategirik.
- Irakasleek ikastetxearen domeinuko pasahitza eta erabiltzaile IDa erabili beharko dituzte beren kontuak babesteko; halaber, pasahitzaren konfidentzialtasuna gorde beharko dute. Ezin da beste norbaiten pasahitza lapurtu eta/edo zabaldu, beste baten kontuan sartu eta beste baten izenean aritu (nortasuna lapurtu edo ordezkatu).
- Bidali eta jasotako komunikazio orok hezkuntza-gaiei lotuta egon behar du.

- Kameraren lentea estalita egongo da. Ez da inoiz erabiliko ordenagailua grabaketak egiteko edo argazkiak ateratzeko, irakasleak agintzen ez badu.
- Debekatuta dago Informazio konfidentziala, copyrighta duen materiala, material lizuna edo mehatxuzkoa, eta birusak transmititzea.